goiena"
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2011-02-11
EGUBAKOITZA
452. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Aizkorri-Aratz parkeak kezka sortu du


Hiru auzo-alkate. | M.B.

Eskoriatzako baserritarrak kezkatuta daude parkeko araudiaren eraginagatik | 24

Idoia Galan santurtziarrak irabazi du amodiozko gutunen lehen saria | 31



Hil bukaeran itxi egingo dute Epelen errepideko errei bat | 5



Iaz, 20 urteotako jaiotze kopuru handiena izan zen Arrasaten | 12



# TELESFORO MONZON GOGOAN

Martxoaren 9an 30 urte beteko dira hil zela; Olaso Dorrea fundazioak eta Bergarako Udalak hainbat ekitaldi antolatu dituzte bergarar euskaltzale eta abertzale ospetsua goratzeko | 11

Ramon Mendibil –Olaso Dorrea fundazioko lehendakariordea– eta Agurne Barruso –Bergarako alkatea– Olaso Dorrean, Telesforo Monzonen irudiaren ondoan. | MONIKA BELASTEGI

## Aramaioko Udalak kalte-ordainak eskatuko ditu errepideagatik

Galera ekonomikoak eta beste eragin dituela diote | 4

## "Euskara erabili eta maite duten 'euskalakariak' gura ditugu"



**Oskar Elizburu** | Gipuzkoako AEK-ko arduraduna | 8

## Armarria aldatzeko ideia lehiaketa Antzuolan



Udalak deituko du eta irudi korporatiboa ere aldatuko dute | 25

## Bailarako emakumeei omenaldia 200 argazkitan, Arrasaten

Gaurtik zabalik dago 'Debagoieneko emakumeak izan eta ekin' erakusketa, Ekin elkarteak eginda | 2


Oñatiko bi baserritar (1900).

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!
ZURETAKO OPARIA
350 €
► Otsailaren 28a baino lehen bazkide egiten zaretenon artean egingo dugu zozketa.
Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Urteko kuota: 48 €.

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

1.

2.

3.


**1. ARGAZKI ZAHARRENA** Jostun talde bat Bergaran, 1890ean. Argazkia, Bergarako Udal Artxiboko Indalecio Ojanguren fondokoa da. **2. JAIAK** Neska talde bat San Juan jaietan, 1963an. **3. ESKOLAN** 1947 inguruan ateratako argazki horretan, Arrasateko Jasokundeko Amaren eskolako ikasleak. *Kukaratxak* edo *cucas* deitzen zitzaien.

# 1890eko jostunak eta Arrasateko neska futbolariak

- Ekin Emakumeek argazki erakusketa zabaldu dute
- Debagoieneko emakumeen 200 argazki daude
- "Euren bizimoduari omenaldia egin gura diogu"

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Emakumeak bizitzako askotariko arlotan, 1890. urtetik hona, askotariko lanetan eta egoeratan. Eta herrikoak eta bailarakoak diren emakumeak, gainera. Eurak dira protagonistak, eta eurek, irudien bidez, ematen dute Arrasateko eta Debagoien osoko emakumeon bizimoduaren testigantza.

Irudiok ikusteko aukera dago gaur ezkero Arrasateko Kulturaten, klaustroan dagoen erakusketan. *Debagoieneko emakumeak izan eta ekin, atzoko eta gaurko emakumeen bizimodua argazkietan* delako erakusketa da eta Ekin Emakumeak elkarteak antolatu du. Elkarteak 15. urteurrena ospatu zuen iaz, eta ospakizunetako bat da honako erakusketa. Helburu nagusien artean daude hauek: Debagoieneko eta Aramaioko emakumeen bizimodua ezagutzea eta omenaldia egitea; eta "gure aurreko emakumeek egin dutena baloratzea; baita gaur egun emakumeek egiten dutena ere", antolatzaileen hitzetan.

Atzo, eguena, ziren inaugurazkoak ekitaldi baten, bailarako hiru alkate emakumezkoekin: Ino Galparsoro (Arrasate), Agurne Barruso (Bergara) eta Lourdes Idoiaga (Oñati).

### Zaharrena, 1890ekoa

Erakusketa interesgarria eta hunkigarria da. Ikusleenganako oso gertukoa, gainera, herritarrok egindako eta herriko emakumeak agertzen diren argazkiak izanik: "Debagoieneko herri guztietako eta Aramaioko argazkiak jaso ditugu. Argazki gehienetan, zeintzuk agertzen ziren genekienean, izenak agertzen dira. Gehienak Arrasatekoak dira; Bergarako asko ere jaso ditugu, Indalecio Ojanguren fondokoak asko", azaltzen du Ekineko eragile Tamara Perezek.

Emakumeak ikusiko ditugu, 1890etik honako euren historian barrena. 200 argazki batu dituzte, 50 herritarrek utzita. Gehienak 1890etik 1970era artekoak dira. "Horiei eman diegu garrantzi handien", esaten du Ekineko ordezkariak. Hala, argazki zaharrenean jostun talde bat agertzen da; 1893ko, 1900eko… argazkiak ere badaude.

Gero, gaika sailkatu dituzte: aisialdia, ospakizunak, kanpoko lana, etxeko lana eta familia, eta hezkuntza eta amatasuna. Multzo bakoitzean, hainbat garaiko eszenak agertzen dira: emakumeak garaiko lanak egiten, herriko jaietan edo bestelako ospakizunetan, ikasten, baserrian, lantegian, eguneroko pasadizoetan… Eta, emakumeez gain, sasoi baten herriak ze itxura zuen, zelako jantziak eramaten ziren eta ze ohitura zeuden ere beha daiteke argazkiotan.

Hala, bitxikeriak ere ikus daitezke: "Argazki baten, emakume talde bat agertzen da mendian. Garai hartan emakumeek ezin zuten prakarik eraman, eta haiek gona azpitik daramatzate prakak", esaten du Tamara Perezek.

### Inude zein miliziano

Erakusketarekin Ekinek duen helburuetako bat da "ezkutuan geratu den historia erakustea. Hala, argazki guztiak inoiz argitaratu gabeak dira. Bestetik, emakumeen irudia ez zen komunikabideetan edo liburuetan agertzen. Emakumeok egindako lana erakutsi gura izan dugu", esaten du Perezek. Hala, ez da hain ezaguna emakumeok industrian egindako lana; argazki batzuetan ikusten dira emakumeak bailarako industria ezagunetan beharrean –baten, lantalde bat bonbak egiten agertzen da; beste baten, kutxa gotorrak eskuz margotzen–; baita tradizionalki emakumeok egin izan dituzten lanbidetan ere –inude, dendari, neskame, jostun…– Gerra garaian emakumeek egindako papera ere erakusten da: emakume milizianoak, errepublikarrak, gerrarako arropak josten zituztenak, Emakume Abertzaleen Batzako kideak…

Erakusketako panelek azaltzen dute emakumeon bizitza eta lana zelakoak ziren: "Emakumeak behartuta zeuden fabrikako lana uztera ezkontzen zirenean. Horrela izan zen hemen ere 1973ra arte", azaltzen du Tamara Perezek. 1969an Auzolagun sortu zen, eta emakume asko horra joan ziren lanera. Auzolagunek utzitako argazkiak ere badaude.

### Eztei-bazkaria, lagunek egin

Emakumea etxean da argazki askotako gaia. "Emakumea familiaren eta etxeko arduraduna izan da, eta hori oso gai garrantzitsua da guretako", Ekinen esanetan. Horrela, bada, sukaldean, baserriko lanak egiten edo seme-alabak zaintzen ere ikus ditzakegu emakumeok.

## Emakumea eta alkatea: zelan bizi duzu?



**INO GALPARSORO**
ARRASATEKO ALKATEA

"Saiatzen naiz lanean nire emakume izaera ipintzen. Emakumeok botere postuetan gaudenean, gizonezkoen ildotik joaten gara; gure izaera gehiago aplikatu behar genuke".



**AGURNE BARRUSO**
BERGARAKO ALKATEA

"Emakumeok beste ikuspegi eta bizipen batzuk ekartzen ditugu, eta hori positiboa da. Erakundeak apur bat feminizatzea ona dela iruditzen zait".



**LOURDES IDOIAGA**
OÑATIKO ALKATEA

"Igarri dut jendeak asko baloratu duela emakume bat alkate izatea. Normaltasun osoz bizi dut. Emakumeenganako sentsibilitate berezia izaten dut gizarte gaietan".










**4. ETXEKO LANAK** Eskoriatzako Antontxu baserriko sukaldean etxeko andrea. 1975eko argazkia da. **5. FEMINISMOA** 1988an, Santiagon (Galizia) egin ziren sexu-indarkeriaren aurkako jardunaldi batzuetan izan ziren Arrasateko emakume batzuk. **6. GAUR EGUN** Arizmendi eta Mondra taldeetako neskak futbolean jokatzen, Arrasaten.

Ospakizunak eta aisialdia ere jasotzen dira. Sanjuanetan, Arrasaten ospatu ziren Euskal Jaietan, eztei ospakizunetan, bazkari eta afarietan, irteerak egiten, mendian… ere ibiltzen ziren, nola ez, emakumeak, eta hori erakusten duten argazki politak daude Kulturaten ikusgai.

Ohitura eta bizimodu batzuk asko aldatu dira. Hala, ezkontza ospakizun baten argazkia ikusita, Tamara Perezek hau azaltzen du: "Lehen, ezkonberriek ez zuten bazkarira gonbidatzen; lagunek gertatzen zieten bazkaria".

**Norberarena, panel baten**

Bigarren zati baten daude 1971. urtea ezkeroko argazkiak. Hamarkada guztietako irudiak daude; horietako gehienetan emakume arrasatearrak agertzen dira: hemen ere, lanean, denbora librean, kirola egiten, etxea eramaten, bidaiatzen… Garai berriagoetako bizimodua islatzen da. Mugimendu feminista antolatuaren ekintzak ere agertzen dira.

Beste multzo baten, Ekin Emakumeak elkartearen argazki batzuk ere ipini dituzte, 15 urte hauetan egin dituzten hainbat ekintzarenak.

## Bi astean zabalik

*Debagoieneko emakumeak izan eta ekin. Atzoko eta gaurko emakumeen bizimodua argazkietan* delako erakusketa Arrasaten dago, Kulturateko klaustroetan, otsailaren 25era arte, martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era bitartean.

Bukaeran, ikuslearen txanda ailegatzen da erakusketa parte-hartzaile honetan; izan ere, panel bat hutsik utzi dute, izenburu edo gonbidapen batekin: *Dena ez dago esanda*. "Norberak, erakusketa ikusi eta gero, bururatzen zaiona ipini ahal izango du panel horretan", esaten du Tamara Perez eragileak.

Eta erakusketa borobiltzeko, Aretxabaletako baserri bateko eta jendeak utzitako materiala dago ikusgai: antzinako kumatxo bat, idazteko makina eta takigrafia egitekoa eta josteko makina zahar bat, adibidez.

**Gizonezkoak ere bai**

Ekin Emakumeak euskara elkartea ere bada, AEDren magalean sortua. Horrela, bada, erakusketako testu guztiak euskara hutsean daude. Euskara da Ekinen oinarria, eta, hortik abiatuta, denetariko jatorri eta hizkuntzatako jendeari ematen dio lekua. Hala, ibarretik kanpoko emakumeek utzitako argazkiak ere badaude erakusketan.

Eta gizonezkoak ez izan arren oraingoan protagonistak, eurendako lekua ere badago Ekinen: dauzkan 680 bazkideetatik 326 dira gizonezkoak.



# Errepidearen mozketarengatik kalte-ordainak eskatuko ditu Udalak

## Arabako Diputazioa, Adif eta UT Aramaio–Arrasate, mozketaren arduradun

**ANDER MONEDERO** | ARAMAIO

Aramaioko Udalak urtarrilaren 26an aho batez onartu zuen kalte-ordainak eskatzea Arabako Foru Aldundiari, ADIFi eta Aramaio-Arrasate aldi baterako enpresa elkarteari Aramaio Arrasaterekin lotzen duen errepidearen mozketak eragindako arazoengatik. Udal ordezkarien esanetan, bi kalte-ordain mota daude: alde batetik, errepidearen itxierak Udalari eragindako gastuak; eta, bestetik, herritarrei eragindakoak.

Urtarrileko azken osoko bilkuran erabakitakoa ezagutarazteko asmoz, prentsaurrekoa egin zuten astelehenean. Udalean ordezkatuta dauden alderdi guztietako zinegotziak izan ziren eta guztiak bat etorri ziren Asier Agirre alkateak esandakoarekin. ADIFek, Foru Aldundiak eta UT Aramaio-Arrasate enpresak hilabete baten buruan udalbatzari erantzuten ez badiote, salaketa jarriko dutela adierazi zuen alkateak.

Errepidea itxi zutenetik Aldundiak, ADIFek eta Aramaio-Arrasate enpresak izan duten jarrera kritikatu zuen alkateak. Agirreren esanetan, ADIFek Abiadura Handiko Trenaren obra diseinatu zuenean ez zuen Aramaioko herriari egin ziezaiokeen kaltea kontuan izan.

UT Aramaio-Arrasate enpresaren jarrera ere kritikatu du Aramaioko Udalak. Izan ere, aurreko kasuan bezala, herriarekin ez kontatzea leporatu dio. Enpresa jakinaren gainean ei zegoen lur-jauzia gertatuko zela, baina ez ei zion garrantzirik eman.

Errepidea itxi baino lehen, auzoetako bidea bide alternatibo izendatu zuen Arabako Foru Aldundiak eta hura konpontzeko hitza eman zuen. Agirreren arabera, lanen %30 besterik ez da egin.

### Herritarren salaketa

Udalak animatu egin ditu herritarrak bizitako egoeragatik jasandako kalteak salatzera, eta horiek jasotzeko, aste honetan bulegoa zabalduko du.



Aramaioko Udaleko alderdi guztietako ordezkariak izan ziren prentsaurrekoan. | ANDER MONEDERO

## Mundukideren lana ezagutarazteko DVDa salgai

**A.M.** | ARRASATE

Mozambikeko Marrupa herrian hamar urtean egindako kooperazio lana ezagutzera emateko asmoz, Mundukidek *Behin batean Marrupa...* izeneko ikus-entzunezkoa kaleratu du.

Gobernuz kanpoko erakundeak landagunerako proiektua garatu du Marrupan. Ez hori bakarrik: ekimen ekonomiko parte-hartzaileak bultzatu ditu, haiei formazioa eta laguntza teknikoa eman eta ekonomikoarekin lagundu die. Gipuzkoako Diputazioaren laguntza izan du Mundukidek DVDa egiteko eta Mondragon Taldeko *TU Lankide* eta *KOOP* aldizkariekin banatu da; Mundukideren bulegoan ere eskura daiteke.




Dokumentalaren azala. | MUNDUKIDE

# Seriean egindako lehen auto elektrikoa Eroskik

## Vito E-Cell modeloa da: 550 kiloko bateria dauka eta 80 km/h abiadura har dezake

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Seriean egindako lehen auto elektrikoa Eroskiko langileek erabiliko dute. Mercedes Benz automobil-etxeak Eroskiko presidente Agustin Markaideri eman zizkion astelehenean, hilaren 7an, automobilaren giltzak. Gasteizen egin zuten ekitaldia, Mercedes Benz etxearen 125. urteurrenaren ekitaldien barruan.

Eroskik erabiliko duen auto elektrikoa Vito E-Cell da: 550 kiloko bateriarekin eta 80 km/h abiaduran 130 kilometroko autonomia dauka.

Auto elektrikoaren kostua bederatzi milioi euro da; Jaurlaritzak hiru milioi ipini ditu. Gainera, uste du 2020an ibilgailu elektrikoak merkatuaren %10 izango direla.

### Herri barruko banaketak

Eroskiko langileek herri barruan banaketak egiteko erabiliko dituzte. Agustin Markaidek bost autoren giltzak jaso ditu. 2012ra arte, Eroskik halako 25 izango ditu errentan hartuta. Markaidek esan zuen auto berria "helburu handi bat lortzeko pauso txikia" dela.

Bestalde, Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) sinatutako hitzarmenaren haritik, Eroskik auto elektrikoak kargatzeko instalazioak ipiniko ditu bere saltokietako aparkalekuetan. Dena den, Debagoienean ez dute halakorik ipiniko. Gainera, ibilgailu mota hori zenbat eta zelan erabiltzen den jarraitzera eta aztertzera konprometitu da Eroski. Hori horrela, azterketaren emaitzak hiru hilean behin emango dizkio EEEri.

**DATUA**

**25**

AUTO ELEKTRIKO

Horiek dira 2012. urterako Eroskik alokairuan izango dituen auto elektrikoak.

## Metaposta: agiriak doan jaso eta gordetzeko ekimena

Interneteko erabiltzaileek agiriak jaso eta gordetzeko aukera izango dute Metaposta proiektuarekin. Postontzia eta dokumentu gordailu elektronikoa abiaraziko ditu. Euskadiko kutxak, Eroskik eta Lagun Arok bat egin dute dagoeneko proiektu berriarekin.

## Landa eremuetan komunikazio teknologiak sustatzeko proiektua

Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak landa eremuetan informazio eta komunikazio teknologiak sustatzeko proiektua abiaraziko du. Hori horrela, formaziorako bi ikastaro egingo dituzte Eskoriatzan eta Bergaran. Informazio gehiago gura dutenek 943 76 25 47 telefonora dei dezakete.

## Hilaren 25ean sagardotegira irteera Zahar-Berrikoekin

Zahar-Berri programako arduradunek sagardotegira irteera egingo dute hilaren 25ean. Interesatuek 943 77 12 28 telefonora dei dezakete. 81 lagunendako tokia dute eta menuagatik 28 euro ordaindu behar ko dira. Autobusa 19:00etan irtengo da Arrasateko Garibai kaletik.




ARGAZKI PRESS

## Sortu alderdia aurkeztu zuten Bilbon

"Ireki berri den fase politiko berriari erantzuteko asmoz" aurkeztu dute Sortu alderdia Bilbon. Aurkezpenean ezohiko eragile sozialek parte hartu dute; tartean, ibarreko ordezkaritza ere izan da: Karmele Agirregabiria, Leintz Udal Euskaltegiko zuzendaria. Harekin batera, aurkezpenean parte hartu dute Iñaki Zabaleta EHUko irakasle eta katedradunak; Maider Etxeberria geologian doktoreak; Edu Burgos sindikalistak, Esther Hernandorena irakasleak; eta Sonia Respaldiza administrariak.



Arrasatetik Elorregira doan errepidean bide bat itxiko dute. | JOSETXO ARANTZABAL

# Hilabete honetan itxi egingo dute errepideko bide bat, Epele parean

## Biribilgunea baino lehen dagoen bihurgunea samurtzeko lanak egingo dituzte

**ANDER MONEDERO** | ARRASATE

Aurrera doaz Epeleko araztegiko lanak. Martxoa da obra guztiak bukatzeko epemuga. Hala ere, hori egin aurretik, errepidea itxi egin beharko dute Epele parean, AP-1 autobiderako Arrasateko sarrera baino lehen; izan ere, biribilgunea baino lehenago dagoen bihurgunea samurtzeko obrak egin behar dituzte. Obra egin ahal izateko bideak txandaka moztuko dituztela jakinarazi dute obra arduradunek, "ahalik eta eragozpen gutxien" eragiteko.

Lanen artean dago *S* itxurako bihurgunea zuzentzea. Helburua da halako norabide aldaketa zakarra egin beharrean bihurgune soil bihurtzea.

Bien bitartean, Oñatiko urzikinak araztegira eramateko hodiak sartzen segitzen dute. Halako gehiago ekarri dituzte, esate baterako, Ekilore kanpoko aldera: hain justu, "100 gehiago, Santandertik".

Esan bezala, araztegiaren lanak, errepidea, uren tratamendurako "igerilekuak" eta urbanizazio lanak martxoan bukatu behar ditu Edar-Epele aldi baterako enpresa elkarteak.

Hori amaitzean, ordea, ez dira lanak bukatuko. Orduan araztegia probatzeko saioak hasiko dira eta horrek sei hilabete iraungo du.

Araztegiaren probek irauten duten bitartean, Edar-Epele enpresa elkartea izango da arduraduna.

Epe hori igaro ostean eta dena behar bezala funtzionatzen duen segurtasuna dutenean, Gipuzkoako Ur Partzuergoa izango da Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Oñatiko uren garbiketaren esplotazioaren arduraduna. Araztegiak segundoko 848 litro ur tratatuko ditu.

### Bidegorria, lanak bukatutakoan

Bestalde, araztegiaren atzetik pasatzen den bidegorria eraiki dute dagoeneko: "Aglomeratua eta baranda bakarrik falta zaizkio, baina ez dugu zabalduko obra guztiak bukatu arte", adierazi dute obra arduradunek.

Elorregi eta Arrasate lotuko dituen bidegorria araztegiaren lanak amaitzerakoan bukatuko dute; izan ere, araztegiaren hodiak bidegorriaren azpitik doaz.

Oñatiko uren hodia tuneletik Epelera arteko zatia bukatzerakoan bukatuta egongo dela adierazi dute arduradunek. Orduan hasiko da Diputazioa bidegorria egiten.

# Arantzazu ezagutarazteko ekintzaz betetako lau informazio liburuxka kaleratuko dituzte urtero

**M.B.** | OÑATI

Arantzazun lan egiten duten erakunde guztiak elkarrekin agertu ziren astelehenean, hilaren 7an, "Arantzazu egunero ari da" oihukatzeko. Hori horrela, han egiten diren ekimen guztien berri "batera" ematea erabaki dute. Bi helburu nagusirekin batu dira: alde batetik, jarduera guztien programazioa bateratzea eta hiru hilean behin argitaratzea; eta, beste alde batetik, Arantzazu bisitatzeko gonbita egitea. "Urtaro bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta horiek begi-bistakoak dira: neguan, eguerdia eta gastronomia; udaberrian, goiza eta natura; udan, gaua eta espiritualtasuna; eta udazkenean, arratsaldea eta kultura".

### Hiru hilean behin liburuxka bat

Arantzazun lan egiten duten erakunde, elkarte, talde eta pertsonek bat egin dute han egiten diren ekimenak "indar bakarrez biltzeko". Gizaker enpresak egindako inkesta baten emaitzak agerian utzi du euskal gizartearen, hedabideen, iritzi publikoaren, enpresen, GKEen, elkarteen, unibertsitateen, erakundeen eta beste hainbat agenteren gehiengoak "ez duela Arantzazun gertatzen den horretan parte hartzen, Arantzazun geratzen den horren berririk ez" duelako. Hori horrela, bi erabaki hartu dituzte: lehena hiru hilean behin liburuxka bat argitaratzea da, eta euren ekintza guztiak bilduko dituzte. Agenda bakarra egingo dute, Arantzazu egunero ari dela erakusten duen programa: "Agenda bateratu horren zabalkundea era partekatuan egingo dugu".

Bigarrena bisitariak erakartzeko lan egitea izango da. Urtaro bakoitza egunaren zati bati lotuko diote, gai bati, kolore bati, Arantzazurekin lotutako ekintzaren bati.

Bi helburu horiek betetzeko asmoz antolatuko dute gainerako guztia. Hiru hilean behin kaleratuko dituzten liburuxkak –lehena kalean dago– Arantzazu lanean diharduten erakundeen webguneetan eta *www.arantzazu.org* atarian irakur daitezke.

**Roberto Uriarte** | EHUko irakaslea

# "Estatutuetan, Alderdien Legeak eskatutakoa baino gehiago betetzen dute"

## Roberto Uriartek Sorturen legeztatzearen gainean egin zuen berba Goiena telebistan

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE



Roberto Uriarte. | ARRITXU BARRUSO

Roberto Uriarte EHUko irakaslea da, eta eguaztenean egon zen Goiena telebistan Sortu alderdiaren legeztatzearen gainean berba egiten. Paperera ekarri ditugu haren berbak.

**Aurkeztu dute Sortu Barne Ministerioan, eta orain zer?**

Espainiako Gobernuak esan du ez duela erabakirik hartuko. Auzitegietan, Auzitegi Goreneko 61. salan erabakiko dute Sortu alderdia legezkoa den ala ez. Hauteskundeetarako tartea dute oraindik, erabakia hartzeko eta beharrezkoa bada epaia errekurritzeko.

**Sortuko kideek esan dute oso zorrotzak izan direla estatutuekin legea errespetatzeko.**

Bai. Ezustea izan da, urte askoan esan dutelako ez zutela Alderdien Legea onartzen eta inposaketa handia zela. Baina aldatzea erabaki dute: biolentzia errefusatu dute eta joko politikoan sartzea erabaki dute. Euren estatutuetan betetzen dute Alderdien Legeak eskatzen duena baino gehiago.

**Ezker Abertzaleak bi puntu azpimarratu ditu: ez direla ezeren jarraipena eta indarkeria mota guztiak errefusatzen dituztela, ETArena barne.**

Ikuspegi politikotik oso garbi daude Sortu alderdiaren asmoak; alegia, indarkeria mota guztiak errefusatzen dituzte, ETArena barne. Ikuspegi juridikotik alderdiaren estatutuak begiratzen dira, eta horiek aztertuko ditu auzitegiak. Nik esango nuke ikuspegi juridikotik Sortu alderdi legala dela.

**Ez dute *gaitzespen* berba erabili, baina bai *errefusatu*. Nahikoa dela uste duzu?**

Legeak oso garbi dio ezin zaiola terrorismoa edo biolentzia erabiltzen duen inongo talderi babesik eman. Legeak ez du eskatzen gaitzestea edo errefusatzea. Nik uste dut zerbait errefusatzen denean, argi eta garbi erakusten dela ez zaiola babesik ematen. Era berean, legeak ez du exijitzen iraganeko terrorismoa gaitzestu beharra.

**Ezker abertzaleko pertsona ezagunek aurkeztu zuten alderdia. Eraginik izan dezake?**

Ez luke eraginik izan behar. Auzitegiak baloratu behar duena ekintzak dira, eta ez pertsona horiek aurretik egin dutena. Aurpegi ezagun horiek estatutuetan jasotakoak betetzen dituzten baloratu beharko da.

**Sortu legeztatzen badute, posible da zerrendak legeztatzea eta beste batzuk ez?**

Bai, aukera badago. Auzitegi Gorenak legezkoa ez dela badio, ez dakit beste planik izango ote duten: zerrenda independenteak egitea, beste alderdi batzuetan sartzea... Zerrenda independenteen alde egiten badute, posible da herri batzuetan legeztatzea eta beste batzuetan ez. Lekuan lekuko zerrendak aztertuko dituzte. Adibidez, ANV legezkoa zen, eta zerrenda batzuk atzera bota zituzten.

**"Ikuspegi juridikotik Sortu alderdia legala dela esango nuke"**

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
2010/2011
MATRIKULA LIBREA
Otsailaren 11tik martxoaren 4ra

HIZKUNTZAK:
ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute ***www.eoieuskadi.net*** webgunean. **Argibide gehiago: *www.eoieibarheo.net*** webgunean edo **943 20 06 18** telefonoan.

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Jardineta, 3
20600 Eibar

## ZABALIK

**DIEGO MARTIARTU**
'http://goiena.net/iritzia/'



# Achtung! Figuranteak

Urteen joanean behin eta berriro egindako hausnarketen eta behaketen ondoriozko emaitzaren berri eman behar dizuet: herri honetan badago batzuoi konpainia "itsaskorra" egiten tematzen den figurante mordoa. Hasieran irudipen hutsa zena, urteen poderioz, ezin ukatuzko egitate borobila izatera pasatu da niretzat, eta uste dut zuon arteko bat baino gehiago bat etorriko dela nirekin, esatera noana ondo esaten asmatzen badut.

Arrasateko kaleetan gora eta behera hamaika zapata higatu zaigunoi ez zaigu oharkabean pasatu badirela kasik jaio ginenetik gurekin, figurante hutsak ez garenokin, herriko dekoratua partekatzen duten pertsonaia deseroso batzuk: figuranteak. Lehen uste nuen gu bezalakoak zirela, baina ez, gure ondoan dabiltza, espaloian gurutzatu egiten zaizkigu, Eroskin patatak pisatzen ikusten ditugu… eta hain dirudite normalak, non normalak direla diruditen. "Bistaz" ezagutzen dituzun horiexek, bai. 40 urtetik gora behar izan dut konturatzeko infiltratu horiek figuranteak baino ez direla, nire moduko hankabikoen plantak egiten dabiltzan konpartsak. Pentsa, halabeharrak, patuak edo dena delakoak denboraren eta espazioaren erabateko infinituaren barruan elkartu bagaitu ere, elkarri sekula ez diogu hitzik esan, eta ez dakigu euren izena zein den ere. Hor bada mutur ezkuturen bat.

> **"Agur egin behar nien unean bestaldera begiratu zuten disimuluz"**

Atzerria da figuranteei mozorroa kentzeko lekurik onena: behin ikusi nuen herriko figurante bikote bat Parisen, eta agur egin behar nien unean bestaldera begiratu zuten disimuluz. Tira, iaz deskubritu uste izan nuen bat, ikusi eta nire autoarekin bere autoaren kontra gurata joan nintzenean. Paperak bete ostean esan nion: "Aizu, esan egia: figurante bat zara eta harrapatu egin zaitut…"; eta berak: "Eskerrak esan duzuna, neuk ere horixe pentsatzen nuen-eta zutaz!". Figuranteen zerrenda bat egin genuen elkarrekin, eta orain "ekintzak" prestatzen hasi gara.

## USTEAK USTE

**MIRIAN BITERI** | 'mbiteri@goiena.com'

# Ezker abertzalea legeztatu

Printzipio berrietan oinarrituta dagoen alderdi politikoa aurkeztu dute asteon: Sortu. Adi entzun nituen astelehenean, Internet bidez, ezker abertzaleko kide Rufi Etxeberria eta Iñigo Iruinen adierazpenak; baita poztasunez hartu ere. Normalizazio politikorantz eramango gaituen bake prozesu baten atarian gaudela pentsatu nuen hasieran. Baina, Alfredo Perez Rubalcaba entzun bezain pronto, poztasun hori kezka bilakatu zen. Ez direla fio, eta alderdiaren legeztatzea epaileen eskuetan utzi dute. Gatazka politikoa mantentzearen aldekoak direla eta egoera horretan eroso daudela ematen du. Alderdiko interesak albo batera uzteko garaia da.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | 'http://goiena.net/iritzia/'




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Biharamunik ba ote?

**Pello Zabala**
http://berria.info/blogak/pellozabala/

Gosearen aurkako 52. Ekinaldian datu zehatz ziztaleegiak ikusi ditut. Galdera batzuk sortzen dira datu negargarri horien aurrean. Sortatxo bat bildu dut hemen, mostra gazigeza suerta daitekeena: Joxe Antonio Pagolarenak dira ia denak. Zer pentsa uzten gaituzten horietakoak… Ba ote dute biharamunik?

-Milatik gora ume 5 urte bete gabeak hiltzen dira orduko, debilidadeak jota.

-Minutuko, 9-10, mokadurik ezak ahitu ta akabatuta.

-Urte bakoitzeko, 11 milioitik gora nexka ta mutiko, kozkortu gabeak. Hortarako jaio al dira: goseak pasatuta, sufrikarioz ta ahuldadez hiltzeko?

-Hauetako asko sidaz zauriturik datoz mundura. Beste asko garbitasun ezak eramango ditu; gehienak ur garbirik ezak; beste asko guretzat apenas gaitz diren beherakoak, tuberkulosiak, nafarreriak edo malariak… Heriotz hauek ez al gaituzte lotsaz gorritzen? *Gizarte* hitzari ez al diogu giza ta gizatasun oro kendu?

Krisia ez da sekula aitzakia gizatasun puxka bat duen gizakiarentzat.

Mendialako dirutzak eman ditugu bankuen gaitza sendatzeko: ume gajo hauek sendatzeko, xoxik baote? Asko sendatuko lirateke txerto egoki batekin, antibiotiko xinple batekin, suero xume batekin… Ez da ekonomia soilik, hemen, krisi latzean dagoena, ez. Eta, ez!

Posible al da milioika ume hain atarramentu trixtean egotea, eta hala edukitzea, gu geure jubilazioarekin aztoratuta gabiltzan bitartean?

Noiz arte utziko diogu mundu gaiso honi horrela segitzen, hain *'funtzionamentu'*tsagarrian?

Nola uzten diogu geure buru kristauari, gure arazotxoetan distraittuta bizitzen? Jesus eta bere sentiberatasuna, ta sufritzen dutenekiko gupida, hain gutxi inporta al zaizkigu? Ondo legoke eliztarrontzat ia ahaztuta daukagun Jesusen pasarte hura gogoratzea: hamabiak, askotako legez, ondra ta botere bila, norgehiagoka solasean zihoazen bidez; Jesus eseri da, deitu ditu hamabiak korroan, jarri die erdi-erdian umetxoa, besarkatzen du amultsuki eta besotan jasoz: "Honelako haurra nire izenean onartzen duena, ni neu besarkatzen ari da".

Hara, argi esana: Apostoluen korroan, gero Apostoluen Kolegioa deitu zaion korro zabal horretan, Jesusek ez du Pedrorik ipini erdi-erdian, ez; haurtxo bat die paratu. Bere intentzioa garbia ta klaroa da: debilenentzat, indargeenentzat, ahulenentzat du Elizak sukaldeko erdigune gozoena. Kristau kristotarrak, beren buruaz ez baino, babesgabetxo horietaz arduratuko dira.

Nola esango dugu Jesus gure artean dugula, nola, ume trixte horiek denak, begizulo eginda, akabatzen uzten ditugunean? Ezin, ezin du Jesusek gure besarkada ametittu, ttiki hauetakoak, banan banan, besarkatzen ta besotan jasotzen ez ditugun bitartean…

Ume trixte hauekin, ia negarretarako malkoak ere lehortu zaizkien nexka-mutikoekin akordatzeak eta jabetzeak, ea bihotza beratu ta biguntzen digun. Gosearen aurkako 52. Ekinaldi hau izan dadila, gure duintasun galdua, puxka bat bederen jasotzeko.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**BERGARA 20570**: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## Eskerrik asko, zuen laguntzagatik

**Jose Lazkano**
(Bergarako Etxeraten izenean)
Bergara

Euskal presoen eta errefuxiatuen izenean Gabonetan egiten dugun laguntza kanpainan gurekin bat egin duzuen guztioi, eskerrik asko. Asko izan zarete, urtero bezala, zuen elkartasuna bideratu duzuenok, dela ekitaldietan parte hartuz, dela ekarpen ekonomikoak eginez.

Hortaz, Bergarako herritarrei, dendariei eta beste guztiei, gure eta haien partetik, eskerrik asko!

## Mila esker, artista eta ikusle guztioi

**Justina Elexpuru Arregi**
(Aranzadi ikastolaren izenean)
Bergara

Joan den igandean itxi zen Aroztegin 15 egunez ikusgai egon den arte erakusketa bikaina eta bitxia (lehengo eta oraingo guraso, ikasle eta irakasleak). 56 artistaren lanak ikusteko eta gozatzeko aukera paregabea izan dugu eta bertatik pasa diren ia bi mila pertsonen bisita eskertu nahi du Aranzadi ikastolak bere 40. urteurrenean.

## Gure bidea eginez

**Naiara Unamuno**
Aramaio

Aurreko baten Goienan Iñaki Nafarratek PNVren izenean esaniko egia bakarra esaldi batean laburbil daiteke: "Ez dago eskubiderik 1.500 laguneko herri bat eta bertara joan-etorria egin behar dutenak urtebetez egoera horretan edukitzeko". Norberaren gabezia eta hanka-sartzeak proiektatzen duenak izaten du zer ezkutatu, eta garbi adierazten dute bere hitzek.

Bidea itxita egotearen errua ADIF eta Madrilena dela dio, baina ez al zuen PNVk Lastertasun Handiko Trena bultzatu eta babestu? Non dago bere erantzukizuna? Presioa 1.500 biztanleko Udal Gobernuak egin dezake, baina Arabako Foru Aldundiak ez du zer esanik honetan? Ez al da Foru Aldundiko ardura herrien arteko errepideak mantendu eta egoera onean mantentzea? Nola liteke Udaleko PNVk gauza bat adierazi eta onartzea eta Foru Aldundiko PNVk kontrakoa esatea? Honek guztiak nahasmena sorrarazten digu, gutxienez ere.

Bestalde, Udal Gobernu hau, PNVk egin ez zuen bezala, herritarren parte-hartzea bultzatzen saiatu da modu eraginkor batean; bide honetan herritarrei irekia dagoen Udala sortzeko urrats garrantzitsuak eman dira.

Udal Gobernu honentzat eta Ezker Abertzalearentzat eraikitzaileak diren ekarpen eta kritikak datozen tokitik datozela ondo etorriak izan dira eta izango dira etorkizunean ere, suntsitzaileak eta hauteskundeei begirakoak direnak ez bezala.

Guk ez dugu akusazio faltsu eta azpijokoetan jardun nahi, eta gure bidea jarraitzeko autua egin dugu. Gardentasun osoarekin Aramaio, Araba eta Euskal Herri parte hartzaile, aske eta euskaldun bat eraikitzeko bidea egin nahi dugu, bertatik eta bertakoentzako.

## VPO etxebizitza: "Vive, paga y obedece"

**Jabier Bujanda**
Oñati

Eskutitza idaztearen arrazoia da Olabartako etxe okupatuagatik Oñatiko bost gazte deklaratzera bidali dituztela. Deklaratu eta gero epaiketa iritsiko da. Etxebizitza Udalarena da, hiru urte zeraman hutsik eta teorian "vivienda sozialerako" zen.

Teorian Oñatin agintzen duen PNVk (Partido del Negocio Vasco) herriaren arazoei aurre egiten lagundu beharko luke. Argi dago gazte hauek okupatu izanaren erabakia hartu zutenean arazo bat zegoela; hau da, etxebizitzaren egungo egoera larria. Eta zein izan da odola eduki beharrean europorlana duten kontzejalen erabakia: gazteak deklaratzera bidaltzea.

Oñatin ez baduzu kooperatiba zoragarri baten lan egiten eta ez badiozu zure bizitza kutxari ematen, gazteok ezin dugu etxebizitzarik eduki.

Eredu honen sortzailea eta, beraz, erruduna PNV izan da. Azken urte hauetan oñatiar gazteok etxebizitzarekin ditugun arazo larriak konpontzen saiatu beharrean, Oñatiko gazteak baino gehiago maite duten merkatu inmobiliarioari erraztasun guztiak jarri dizkiote, diru beltzez beteriko propina zikinak onartuz, udaletxean garbi dauden gauza bakarrak bertako leihoetako kristalak baitira. Hauek VPO etxebizitzak egin eta egin aritu dira azken urte hauetan, ustez gazteok dugun etxebizitza arazo larria soluzionatzeko. Niretako arazo larria da 40 urtez hipotekatua egotea; beraz, mila esker, baina ez dut zuen laguntzarik nahi.

Deklarazioan Udalak erabiliko duen abokatua, gainera, oñatiar guztion diruarekin ordainduko dugu. Hau da hau paradoxa: herritarron dirua herriaren aurka erabiltzen. Eskerrik, asko PNV. Arazoari konponbidea ematen saiatu beharrean (espekulazioaz behingoz amaitu, jada eginak dauden eta hutsik dauden etxebizitzak bete...), beste mila arazo sortu dizkigute euren kartera beteta egoteaz obsesionatuta bizi diren kontzejal hauek, eta horrekin nahiko izan ez badugu, orain deklaratzera. Hau al da arazoak konpontzeko duzuen era? Hau al da gazte oñatiarren alde egiten duzuena? Oñatin bizi ahal zarete?

Gaur egungo etxebizitzaren egoera larriaren sortzaileek Udalean jarraitzen badute, 40 urtez hipotekatuta bizi nahi ez dugun gazteen etxebizitza arazoak ez dira inoiz soluzionatuko. Zuek ez duzue etxebizitza arazorik; zuek ere ez duzue inoiz okupatuko etxebizitza bat. Amaitzeko, bi besarkada eman nahiko nituzke:

-PNVri, nigatik (etxebizitzaren egoera larria pairatzen duen oñatiar gazte bat) egin duen guztiagatik. Eskertzen dut benetan, baina oraingoz nahiko dut nire arazoekin.

-Eta hau bai, benetakoa, deklaratu duten bost gazte oñatiarrei.

## Auzolagunen jangeletan, noizko kalitatezko elikagaiak?

**Idoia Azkarate eta Joxe Ramon Arrieta**
Antzuola

Haurrak jangelara eramaten dituen bikote bat gara. Herritik 7 kilometrora bizi garenez, zerbitzu hau erabiltzeko hautua egin genuen. Hala ere, mila kezka ditugu buruan. Batez ere elikagaien kalitate aldetik. Alde batera utzita menuaren konposaketa; dieta hiper kalorikoak, maionesa, ketchupa, chip patatak...

Nondik hornitzen da elikagaiak lortzeko Auzolagun elkartea? Jaten dutenetik, zein portzentaje da produktu freskoa? Okela nondik dator? Eta arraina? Zein portzentaje da enlatatua? Eta kongelatua? Hainbat eskandalu iristen zaizkigu belarrietara elikagaien segurtasunaren inguruan.

Beldurturik gabiltza Alemaniako jakien toxina asuntoarekin; nork bermatzen digu ez dela handik jenerorik erosten? Eta panga arrainarena? Zenbat denbora egon dira arrain kutsatu hori jaten, merkea delako? Merkeenera joaten badira, non gelditzen da kalitatea? Eta osasungarritasuna?

Eusko Jaurlaritzari eskatu nahiko genioke taxuzko apustu bat egin dezan elikagaien jatorria eta kalitatea zaintzeko. Hainbeste entzuten dugu Eusko Labela eta Euskal Okela eta bertako produktuak eta garaian garaikoa… hitz antzuak?

Pentsatzen dugu ordua dela haurren elikaduraren arduradun zuzenak direnek apustu serio bat egiteko, alde ekonomikoari bakarrik begiratzeari utzi eta kalitatezko jangela zerbitzua eskain dezaten. Apustu honek epe motzera eta epe luzera onurak besterik ez digu ekarriko.

Alde batetik, bertako baserritarrei eta ekoizleei erosita, inguruko sektoreak indartuko dira eta luzera begira haurren osasunean inbertitzea litzateke. Gero eta entzunagoak dira inguruko herrialdeetan jangela ekologikoak edota bertako produktuz hornitutako jangelak. Gure ustez, bidea hori litzateke, eta, kantitate handietan ezinezkoa bada, erraztu ditzatela bideak eskoletan sukaldeak irekitzeko; horrela, lanpostu gehiago ere sortuko genituzke eta haurrek herrietako produktuak jango lituzkete.

Pentsatzen dugu bolumen horietako aldaketa bat, bat-batean, zaila izango dela. Baina poliki-poliki, kontzientzia orokor batekin, pausoz pauso… aldaketa asko eman daitezke. Bejondeiola hordagoari eusten dionak!

## Biba, Zuberoa! "Telesforori pastüala"

**Juantxo Madariaga eta Anaje Narbaiza**
Bergara

Inguruotan ohituta gaude musikalak antolatzen; badakigu nolako lana den guztia prestatzea eta nolako poza eta aberastasuna den bertakoentzat halako emanaldi batez disfrutatzea eta lanaren parte sentitzea.

Aurten izugarrizko aukera izango dugu euskal kulturak Zuberoan mantendu duen Europa zaharreko antzerkia zuzenean ikustera joateko; izan ere, pastüalak dira Europa guztian zehar geratzen diren antzerki mota hauen testigantza garrantzitsuenetarikoak. XVIII. mendean, Bernard Etchebarne Sarrikotakoak, Jean Mecol I.a de Garandainekoak… pertsonaia erlijiosoen bizitzak idatzi zituzten: Santa Grazi, San Blais, Santa Catherine... XIX. mendean, berriz, Jean Mecol II.a, Jean Pierre eta Jean Baptiste Saffores Atharratzekoek, Jean Pierre Heguiaphal I.a Sohütakoak… abertzaletasun frantseseko pertsonaien bizitzak idatzi zituzten: Jean de l'Arc, Henry IV.a, Napoleon… Eta, azkenik, XX. mendean Jean Pierre Heguiaphal II.a Sohütakoak, Jean Aguer Atarratzekoak eta gaur egun Jean Louis Davantek, Junes Casenavek, Battitta Urrutyk… pertsonaia zuberotarrak edo euskaldunen bizitzen inguruko pasarterik garrantzitsuenak ezagutzera ematen dizkigute: Etxahun, Matalaz, Bereterretche, Santxo Azkarra, Jose Antonio Agirre… pertsonaien, aldekoak, arerioak, deabruak, musikariak, koblakariak dantzariak eta… guztia, naturan bertan kokatutako taula gainean. Benetan ikusgarria!

Aukera ederra izango dugu Larrainera joateko, ehundik gora lagun lanean hasiak dira Jean Bordaxarrek idatzitako Telesforo Monzoni buruzko pastüala prestatzen; musikari, dantzari, koblakari eta abeslariak ari dira lanean abuztuaren 7an eta 13an emanaldia prest izateko Larrainen. Baina Larraine ezagutzen ez duzuenontzat ere esan behar dizuegu pastüalak aukera hobe-ezina eskaintzen digula Zuberoako bazterrak ezagutzeko: Kakuetako eta Holtzarteko Arroilak, Iratiko basoa, Ori mendia, baserri-etxeen arkitektura bitxia eta larrainetarren bizimodua, artzaintza, mendi-lurrak, basoen ustiaketa, bertako arkitektura bitxia. Aipamen berezia behar du euskalkiak. Larrainetar gehienak euskaldunak dira, gure euskara zaharraren beste euskalki bat erabiltzen dute, beste doinu bat, ia kantuz hitz egiten dute, eta, hasieran guztiz bestelakoa egiten bazaigu ere, poliki hitz egiñez elkar ulertzeko arazorik ez dago. Gainetik, zuberotar guztiak bezalaxe, kantuzale amorratuak dira, eta dauden bi taberna koskorretan liluratuta utziko gaituzte euren kantekin. Zergatik ez elkarrekin kantatu, hemen dagoen zaletasuna ere aparta da eta.

Beraz, badira merezi duten arrazoiak abuztuko lehen edo bigarren asteburuan Larrainera joateko. Telesfororen bizitzaz dakiguna baino gehiago ikasiko dugu. Benetan da eskertzekoa horren herri xumean egiten ari diren ahalegina Telesforori pästuala eskaintzeko. Biba, Zuberoa! Biba, Larraine!

**Oskar Elizburu** | Gipuzkoako AEK-ko arduraduna

# "Euskara erabili eta maite duten 'euskalakariak' gura ditugu"

- Korrikaren antolaketa ondo doala dio Elizburuk, "estresatu" samar dauden arren
- Ibarreko herri guztietatik igaroko da Korrika aurten, baita Angiozartik ere, lehen aldiz

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Apirilaren 14an helduko da Korrika Debagoienera. Eskualde osoa zeharkatuko du eta herri guztietatik igaroko da. Korrikaren eta AEKren gainean jardun dugu Oskar Elizbururekin, Gipuzkoako AEKren arduradunarekin.

**Zela doaz aurtengo Korrikaren prestakizunak?**

*Korrikatuta* gaudela esango nuke. Estresatu samar gaudela adierazteko erabiltzen dugu berba hori. Hilabete batzuk daroatzagu Korrika 17 antolatzen, ia aurrekoa amaitu zenetik. Ondo doa.

**Korrika batzordeek dagoeneko lanean dihardute, ezta?**

Bai; bederatzi batzorde sortu dira Debagoienean. Ibarreko herri guztietatik pasako da Korrika aurten. Angiozartik ere igaroko da eta hau berria da, inoiz ez baita bertatik pasatu. Angiozarren ere sortu dute batzordea.

***Euskalakaria* berba asmatu duzue Korrikarako. Zer da?**

Euskaltzaindiaren baimenarekin, berba hori hiztegiratzea gurako genuke. Zer den *euskalakaria*? Bada, hemen bagaude euskaldunak, baina euskara ez dutenak erabiltzen; badaude Euskal Herrian bizi arren, euskaldunak ez direnak. Eta, bestalde, benetan euskara maite, ikasten saiatu, etengabe hobetzen jardun, euskaraz bizi denak… Horiek zelan defini daitezke? Bada, *euskalakariak* dira horiek, gure ustez. Eskatzen diogu jendarteari, norbanakoari, *euskalakari* izateko.

**Aurtengo berritasunetako bat da *Euskalaketa* lehiaketa, edo euskarazko bakarrizketa lehiaketa.**

Bi lehiaketa antolatu ditugu aurten: *Euskalaketa* eta *Euskalaklip*. Euskalakari kontzeptua lau haizetara zabaltzeko. *Euskalaketa* da bakarrizketa lehiaketa, formatu txikiko antzerki lehiaketa. Euskal Herriko antzerki elkartearen laguntza jaso dugu eta haiek osatuko dute epaimahaia. *Euskalaklip* da antzeko zerbait, baina bideoklip formatuan. Hiru minutu inguruko musikazko bideoak. Betiere gure aurtengo leloa erabiliz: *Maitatu, ikasi, ari… euskalakari.*

**Gose taldeak egin du aurten Korrikaren abestia.**

Batzorde nazionalean hiruzpalau aukera aztertu ziren eta, azkenean, Goseri eskaintzea erabaki zen. Ustekabez hartu zuten, baina ilusioz eta gustura. Nik oso gustuko dut abestia, mezu garbi eta melodia itsaskorrekoa. Goseren estilokoa bete-betean.



Oskar Elizburu, joan zen martitzenean Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

**Non hasi eta bukatuko da oraingoan Korrika 17?**

Apirilaren 7an hasiko da Trebiñun eta 17an bukatuko da Donostiako kaleetan. Trebiñuko hainbat eragilek eskatu zuten, Udalean planteatu zuten, eta eskaria egin zuten. Erronka moduan planteatu genuen han hastea. Amaiera beti izaten da hiriburu baten, eta aurten Gipuzkoan tokatzen zenez, Donostian amaituko da.

**Debagoiena noiz zeharkatuko du eta zein izango da ibilbidea?**

Apirilaren 14an Elgetatik sartuko da 04:40 aldera. Elorrio aldetik etorriko da. Handik Asentzio, Angiozar, Bergara, Antzuola, Deskarga…; gero, Udanatik sartuko da berriro ere Debagoienera: Oñati, Arrasate, Aramaio, Untzilla, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga… 11:00 aldera etorriko da Arrasatera Korrika.

> "Erronka moduan hartu genuen Korrika Trebiñun hastea aurten"

> "70 kilometrotik gora egingo ditu ibarrean, Elgetatik Gatzagara"

**Zenbat kilometro jarriko dituzue salgai Debagoienean?**

70 kilometrotik gora. Korrika osoan, 2.000 baino gehiago.

**Korrika laguntzaile kanpaina ere bete-betean da, ezta?**

Oso garrantzitsua da guretako. Korrika Kulturala antolatu, materiala erosi eta dirua aurreratzeko ezinbestekoa da. Euskara eta euskal kultura barreiatzea da Korrikaren helburu bat, baina bestea ekonomikoa da: hain justu ere, AEKren bi urteko aurrekontua osatzea. Gura duenari Korrika laguntzaile izatea eskaintzen zaio. Txartel bat ematen zaio eta, horrekin, hainbat lekutan erosterakoan beherapenak egiten dira, txartela 12 euroren truke eskuratuta.

**Krisiak izan du eraginik Korrikan?**

Korrika laguntzailean ez du eragin handirik izango, 12 euro bi urtean behin Korrikari ematea ez da-eta horrenbesterako. Baina Korrika lagun ekimenean izan dezake eragina. Enpresa, denda eta tabernatara joaten gara laguntza eske, eta uste dugu hor igarriko dugula.

**Osasuntsu dago Debagoieneko AEK?**

Orain dela bost urtera arte Bergaran eta Arrasaten geneukan euskaltegi bana eta orain, bakarra daukagu Arrasaten. Bertatik kudeatzen dugu bailara osoko jarduna. 180 bat ikasle dabiltza. Erdia euskaltegira datoz eta beste erdia enpresetan dauzkagu. Euskaltegiak, oro har, indarra galtzen joan dira azkeneko urteotan. Orain dela 20 urte ia-ia 2.000 ikasle ziren euskaltegietan gure eskualdean. Baina, hezkuntza sistemak ikasleak euskaratu dituen neurrian, euskaltegiek ikasleak galdu dituzte, logikoa denez. AEKren helburuetako bat da egunen baten desagertzea.

**Euskal Herri osoan zenbat euskaltegi eta ikasle dauzka AEK-k?**

Euskal Herriko lurralde osoan dauzkagu euskaltegiak. Eta Nafarroan eta Iparraldean gora egin du matrikulazioak. 100 euskaltegi dauzkagu lurralde guztietan eta, guztira, 500 langile gara. Gehienok irakasleak gara. Ikasleak, ostera, 17.000 inguru.

> "AEKren bi urteko aurrekontua osatzen dugu Korrikarekin"

> "Gaur egun 180 ikasle ditugu AEK-ko euskaltegian, Arrasaten"

**Finantzazioaren arazoa konpondu ta daukazue Jaurlaritzarekin?**

Azkeneko bi urteotan, Eusko Jaurlaritza aldatu zenetik, geldialdi moduko baten gaude. Aurreko Jaurlaritzan egin zen aurrerapen handia eta langile hitzarmen moduko bat sinatu genuen. Gure asmoa izan da Jaurlaritzarekin akordio marko bat edukitzea, ikastolek-eta eduki dezaketen moduan, ziurtatzeko finantziazioa eta ez egoteko diru-laguntzen mendean. Baina benetako arazoa Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo daukagu.

**AEK-ko euskaltegietara euskara ikastera doan ikasleen profila aldatu egin da azkeneko urteotan?**

Asko aldatu da. 29 urte daroatzat AEKn eta ia-ia nirekin batera aldatu da ikaslearen profila. Hasi nintzenean, nire adinekoak ziren gehienak eta orain ere bai. Beste euskaltegietan ere horrela da.

**Euskararen aurka publikoki agertu den Jon Juaristi Euskararen Aholku Batzordeko kide izateaz ze iritzi?**

Halako batzordeetan beharrezkoa da pluraltasuna, iritzi aniztasuna, e.a. Ados. Baina ez da ulergarria euskararen aurka agertu eta horren iritzi ezkorrak ematen dituena Euskararen Aholku Batzordean egotea, polemika sortzeko ez bada.

# Txotxetik dasta daitekeen sagardo ekologiko bakarra

**Usurbilgo Arratzain sagardotegiari aurten eman diote izendapen horren jabetza** | LANDER MUÑAGORRI

Mendeetan atzera egin behar da Usurbilgo Arratzain sagardotegiaren jatorrira joateko. Orain dela sei gizalditako dokumentuetan, XV. mendekoetan, hain zuzen, Arratzain baserriaren aipamena egiten da, eta sagardotegi moduan funtzionatzen zuela uste da. Gaur egunera salto egin, eta baserri horretan sagardotegiaren negozioak jardunean segitzen du.

Hamar urte igaro dira jatetxe izatetik dolare-sagardotegi izatera pasa zela, eta sagardoa etxean ekoizten hasi ziren. Negozioak garatzen jarraitu, eta orain dela bost urte nekazaritza turismoa ere jarri zuten Arratzain baserrian. Aitor Lizaso arduradunetako baten hitzetan: "Eraikitzeko garaian bezero ezinduak ere kontuan izan genituen, eta, era horretan, ezinduentzat guztiz egokitutako apartamentuak eskaintzen zituen lehen nekazaritza turismo gipuzkoarra izan zen gurea". Orain dela bi urte kalitatearen Q ziurtagiria eskuratu zuten, "oso nekazaritza turismo gutxik daukaten ziurtagiria", Lizasoren hitzetan.

Nekazaritza turismoaren eskaintza zerbitzu osoagoa emateko jarri zutela azaltzen du Lizasok. "Euskal giroan, lagunartean, inolako zarata edo kutsadurarik gabe, naturaz inguraturik otordu goxoa egin ostean patxadan egon eta, nahi izanez gero, lotan ere bertan gera daiteke bezeroa".

Sagardoari dagokionez, produkzio txikia daukate, "baina kalitatezkoa". Arratzaingo sagardoa ez dago denda eta hipermerkatuetan: "Merkatu txikia eta jendearen gertutasuna bilatzen dugu, bitartekorik gabe". Egiten duten sagardoa, gainera, ez da nolanahikoa.



**Aitor Lizaso, sagardo ekologikotik txotx egiten.** | ARRATZAIN

### TXOTX EKOLOGIKOA

Izan ere, sagardoari dagokionez, aitzindariak izan dira Usurbilgo sagardotegian: txotxetik dastatu ahal den lehen sagardo ekologikoa egin dute Arratzaingo baserrian. "Guk beti egin ohi dugun moduan, sagardoa ikuskarien bitartez kontrolatu dugu eta sagardo ekologikoa dela ziurtatzen duen zigilua lortu dugu", azaltzen du Aitor Lizasok, sagardo ekologikoaren arduradunak.

Sagardo ekologikoa egiteko, ezinbestekoa da sagar ekologikoa erabiltzea, eta hori topatzea ez ei da erraza. "Ekoizle gutxi gaude sagardotarako sagar ekologikoa egiten dugunak", dio Lizasok. Lehenbizi, sagastiak ekologikoak direla egiaztatu behar da, eta horretarako pestizidarik ez erabiltzea edo genetikoki aldatutako organismorik ez edukitzea ezinbestekoa da, beste neurri batzuez gain. Sagastiaren hiru hektareak ekologikoak izatea lortu zuten Arratzainen, eta "bigarren pausoa sagardo ekologikoa egitea izan da". Denetara, era horretako 30.000 litro sagardo egin dituzte.

Baina sagardoa egiteko prozeduran, zein alde dago ekologikoaren eta normalaren artean? "Sagardoa egiteko modu bakarra dago, betikoa. Badaude berezitasun batzuk, baina eman beharreko pausoak orokorrak dira: sagar ona lortzea, ekologikoa eta sano-sanoa", azaltzen du Lizasok. Sagarra biltzerakoan, "guri bere momentuan biltzea gustatzen zaigu, lurrekoak eta zuhaitzekoak denak batera bildu beharrean, bi edo hiru saiotan bilduta".

Sagardoa egiteko unean, sagarraren garbiketa pauso garrantzitsua da, eta hor ahalegin handia egiten dute Usurbilgo sagardotegian. "Sagardoa sagarrarekin egin behar da, ez hostoekin, lurrarekin, sagar ustelekin...", dio Aitor Lizasok.

Sagardoa egiteko prozeduran, azkenik, sagarra txikitzearen pausoak ere zeresana du. Lizasoren hitzetan, "sagarra ez da txikitu behar, lehertu egin behar da. Haziak ez dira txikitu behar, eta azala ahalik eta gutxien puskatzea komeni da". Matxakea egin ondoren, prentsa pneumatiko baten sartzen da sagarra bertatik zukua ateratzeko. "Ekologikoa izateak ez du esan nahi modernoa ezin denik izan".

Usurbilgo Arratzain sagardotegian sagardo ekologikoa dastatu ahal izango da txotxetik, baina bestelakoa egin dutela ere adierazi du Lizasok. "Bi motatako sagardoa egitea erabaki dugu aurten: naturala edo konbentzionala eta ekologikoa". Aditzera emandakoaren arabera, sagarra erosten dieten bezero batzuen sagastiak ez daude ekologiko izendatuta. Lizasok dioenez: "Nik behin eta berriro esan diet izena eman dezatela, eta anima daitezela ekologikoaren ziurtagiria lortzeko, baina zaila da". Sagar horiek erosita, egiten duten sagardo horri ezin diote ekologiko deitu. Arratzain sagardotegiko eskaintza, hortaz, ez da ekologikora bakarrik mugatzen.




ARRATZAIN
Nekazaritza-turismoa Sagardotegia
USURBIL
nekatur
CALIDAD TURISTICA
TOLARE SAGARDOTEGIA
ES-ECO-026-VAS
EB Nekazaritza
www.agroturismoarratzain.com
EGIN TXOTX EKOLOGIKOA!
SAGARDO EKOLOGIKOA TXOTXETIK

## DUELA 10 URTE

2001-02-06

### Pedro Puiana euskaltzaina hil zen

Aramaioko Oleta auzoko Kortazarrena baserriko semea zen Aita Pedro Puiana ohorezko euskaltzaina hil zen Bilboko Begoña abade-etxean, 85 urte zituela. Makina bat ekarpen egin zion euskarari; tartean, euskal aditzaren inguruan egindako ikerketak. Angiozarko parrokoa izan zen bederatzi urtez eta Eskoriatzakoa beste pare bat urtez. 1999an, Aramaioko seme kutun izendatu zuten.



Pedro Puiana. | GOIENA

2001-02-09

### Arrasate Hiria I. xake torneoa

Arrasate Hiria I. xake txapelketari hasiera eman zioten Arrasateko udaletxean. San Andres xake taldeak antolatuta, apirila bitartean Euskal Herriko hamar jokalari onenak lehiatu ziren torneo berri hartan; tartean, esandako taldeko kide Luis Angel Ortega, Txema Hernando, Isidro Ruiz eta Josu Tornay. Partidak egubakoitzetan jokatzen zituzten, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

## DUELA 5 URTE

2006-02-10

### Antzuolako toponimia

Galtzear zeuden toponimoak batzen dituen *Antzuolako toponimia* izeneko liburu mardula aurkeztu zuen Kristina Pavo filologo antzuolarrak Olaran etxean. Liburuak 755 orrialde dauzka eta 1.700 leku-izen jasotzen ditu; izenen bilakaerarekin batera baserri, auzo, ermita, iturri eta kaleko 170 argazki ere baditu.

## HERRITARRAK

LEINTZ GATZAGA

**Amaia Olabe** Leintz Gatzagan gustura bizi den aretxabaletarra dugu Amaia Olabe; naturaz gozatzeaz gain, egiten diren ekimenak antolatzea eta parte hartzea gustuko du. | MIRIAN BITERI

# "Herri txikiak, betiko moduan, ahaztuta dituzte, eta bultzada behar dute"



Amaia Olabe, Gaztainuzketan. | MIRIAN BITERI

Leintz Gatzagan aski ezaguna da Amaia Olabe, mila saltsatan dago-eta sartuta. Izatez aretxabaletarra baldin bada ere, 15 urtetik gora daramatza Debagoieneko herri txikienean bizi izaten. Gaur egun Gaztainuzketako egurrezko etxeak ustiatzen ditu eta joan den astean hantxe topatu genuen, lasai-lasai, zeruari eta menditik sartu berria zen eguzkiari begira.

**Nolatan aretxabaletar bat Leintz Gatzagan?**

Garai hartan baserri bat topatzen ari ginen, beste bikote batekin batera. Dorletan aurkitu genuen eta Leintz Gatzagara etorri ginen bizi izatera. Asmoa, dena dela, ez zen baserritik bizi izatea; lantegian lan egin eta baserria bizi izateko gura genuen.

**Ordutik hona 15 urte baino gehiago pasa dira eta Leintz Gatzagan jarraitzen duzu. Zer dauka herri horrek Aretxabaletak ez daukana?**

Oso gustura bizi naiz hemen. Aretxabaletan ez zegoena topatzera etorri ginen hona, bizi izateko beste modu baten bila. Aretxabaletak badauzka gauzak, baina hemen askoz lasaiago nago; eta parranda edo bestelako zerbait gura badut, Aretxabaletara jaisten naiz. Askoz ere lasaiagoa da Leintz Gatzaga.

**Lasaia bai, baina herriko saltsa guztietan zaude sartuta...**

Bai, hala da. Denboraldi baten askoz gehiago sartuta nengoen, baina tira... Ahal dena, behintzat, egiten saiatzen gara herrian. Ekimenak bultzatu behar dira herriari giro apur bat emateko.

**Horren harira, Sorginak emakume elkarteko kide zara, ezta?**

Bai. Asteon, gainera, batzarra izan dugu Martxoren 8aren harira. Zera antolatzen gabiltza: herriko emakume guztiendako bazkaria. Horrez gainera, aurrera begira, irteeratxoren bat edo beste ere egiteko asmoa daukagu, eta hor gabiltza...

**Badakit, bestalde, Aratusteak eta mozorrotzea gustuko dituzula...**

Hala da. Gaur egungo lanbidea dela-eta, azkenengo urteotan ezin izan naiz mozorrotu, baina oso gustuko dut mozorrotzea eta espero dut ohitura horrekin jarraitzea. Lehen, zapatuan, Gatzagan mozorrotzen nintzen, eta domekan, beste mozorro bat gertatuta, Aretxabaletan. Bakoitzean bat erabiltzen nuen.

**1999-2003 agintaldian Kultura zinegotze izan zinen. Zelan gogoratzen dituzu udaletxean pasatako urte haiek?**

Lan asko egin genuen eta oso gogorra izan zen. Denetarik pasa nituen han; poztasun eta disgustu asko. Baina, aldi berean, ikasi ere asko ikasi nuen. Horren harira, datozen hauteskundeei begira, jendea izena ematera animatu gura dut, oso abesgarria delako.

Nik, dena dela, ez nuen agintaldi osoa bete. Zinegotzi nintzela, Labidea denda zabaltzeko aukera sortu zitzaidan Aitziber Gorosabelekin batera. Udalak martxan jarri zuen zerbitzu bat zen, eta, lehiaketara atera zuenean, Aitziberrekin batera aurkeztu nintzen eta lortu egin genuen. Herriari giroa ematen zion tokia zen. Hori, baina, ez zen bateragarria zinegotzi karguarekin, eta, hori dela-eta, 2002ko azaroaren 28an kargua utzi behar izan nuen.

**Kultura arlotik begiratuta, beharren bat badauka?**

Zerbait falta dela iruditzen zait, baina horretarako dirua behar da. Udalean ez dago dirurik kultura mailan noizean behin ekimenen bat antolatu ahal izateko, hala nola antzerkia edo bestelako ekimenen bat. Nire ustez, herriari bizitasuna emango lioke horrek.

**Labidean sei urte eman ondoren, lanbidez aldatu zenuen, Gaztainuzketako egurrezko etxeak ustiatzeko lehiaketa irabazita. Zelan Gaztainuzketan?**

Hemen gaude, negozioa bultzatu guran. Oso gogorra da; astean zehar ez da mugimendurik egoten eta asteburuan ere ez dago handirik. Hor gabiltza, honi buelta zelan eman jakin ezinda. Bultzatu beharreko gunea da eta zerbait egin beharko lukete. Erakundeen zeregina da hori. Herri txikiak, betiko moduan, ahaztuta gaude. Jaurlaritzak edo Diputazioak kostaldeko turismoa bultzatzen dute gehiago; barrualdearekin ahaztuta daude; eta herri txikiek, hain justu, bultzada hori behar dute.

> "Oso gustuko dut mozorrotzea eta espero dut ohitura horrekin jarraitzea"

> "Ekimenak bultzatu behar dira herriari giro apur bat emateko"

## NIRE HERRIAN

**:) INGURUNE EDERRA**

Leintz Gatzagako ingurune ederrak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Gustuko dut menditik ibiltzea eta naturaz gozatzea. Jarindo mendirantz joanda, Pagoeder izeneko ingurunea dut bereziki gustuko. Bestalde, nabarmentzekoa da edateko daukagun ura; kalitatezkoa da.

**:( AUTOAK EDONON APARKATUTA**

Eta herritik gutxien gustatzen zaidana da jendeak gura duen tokian uzten dituela ibilgailuak aparkatuta. Aukera baldin badago, etxetik ahalik eta gertuen uzten dituzte, aparkalekura eraman beharrean. Horrekin lotuta, mezu bat helarazi nahi diet herritarrei: mesedez, behar bezala aparka dezatela autoa.

# HERRIAK

BERGARA

# Telesforo Monzon gogoan

- Hil zela 30 urte beteko diren honetan, hitzaldi zikloa antolatuko dute Olaso Dorrean
- Pantxoa eta Peioren emanaldia ere izango da martxoaren 12an Udal Pilotalekuan

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Martxoaren 9an beteko dira 30 urte Telesforo Monzon hil zela. Haren jaiotetxea izan zen Olaso Dorrea izena daukan fundazioak eta Bergarako Udalak hainbat ekitaldi antolatu nahi dituzte, efemeridea aprobetxatuz, bergarar euskaltzale eta abertzale ospetsuaren irudia goratzeko. Berbaldiak, Pantxoa eta Peioren kantaldia eta argazki erakusketa, besteak beste. Horretaz gain, aurten abuztuan Zuberoako Larrain herrian egingo den pastorala Monzonen gainekoa izango denez, Bergarara ekarri nahiko luke Udalak irailean.



1981eko martxoaren 12a. Maria Josefa Ganuza, Monzonen hilkutxaren aurrean. | BERGARAKO UDAL ARTXIBOA. ROMAN LARRAÑAGA FONDOA.

### Hiru berbaldi

Hiru berbaldi egingo dituzte Olaso Dorrean, 19:00etan hasita, martxoaren 7an, 11n eta 14an. Ludger Mess, Koldo Izagirre eta Iñaki Egaña izango dira hizlari.

Martxoaren 7an, Ludger Mess historialari eta EHUko Euskara errektoreordeak aztertuko ditu Monzon agintaria, Eusko Jaurlaritzako sailburu izan zenekoa, Espainiako II. Errepublika, erbestea... Martxoaren 11n, Koldo Izagirre idazleak Monzon kulturgilea aztertuko du. Iñaki Egaña historialariak, azkenik, azkeneko urteak izango ditu berbagai: ezker abertzalera hurbildu zenekoa, Iparraldea, trantsizioa... Martxoaren 14an izango da hori.

### Omenaldia

Bestalde, martxoaren 9an, Monzon hil zela 30 urte betetzen diren egunean, plaka jarriko diote Telesforo Monzon plazari. Izan ere, Udal Artxiboaren gaineko plazatxoak, Olaso Dorre ondokoak, ez dauka plakarik, Telesforo Monzonen izena eduki arren. Horretaz gain, Olaso Dorrearen ate aurrean aurreskua dantzatu eta lore sorta ipiniko dute. Bergarako Udalak omenalditxoa egin nahi dio horrela.

### Pantxoa eta Peio

Pantxoa eta Peioren emanaldia ere izango da. Udal Pilotalekuan, martxoaren 12an. Iparraldeko bikoteak harreman handia izan zuen Monzonekin eta hark idatzitako testuekin egindako abestiak oso famatuak egin ziren trantsizio garaian batez ere. *Itziarren semea, Batasuna, Lepoan hartu ta segi aurrera*... dira horietako batzuk.

Bestalde, San Martin jaietan, irailean, Monzonen gaineko erakusketa egin nahi dute argazkiekin -eta. Udal Artxiboaren ardura da erakusketa prestatzea.

### Jaurlaritzako sailburu

Telesforo Monzon abenduaren 1ean jaio zen, Bergaran. Familia aberatsekoa, haren aita Bergarako alkate izan zen. Madrilen egin zituen Zuzenbide ikasketak eta han lizentziatu zen. Gaztetan abertzaletasunaren tesiak berenganatu zituen eta 1930ean, Aberri eta Comunionek bat egin —Bergaran egin zen ekitaldian— eta EAJ batu zenean, EAJn sartzea erabaki zuen; 1931n afiliatu zen. 1933an, Espainiako II. Errepublika garaiko Legebiltzarreko diputatu hautatu zuten EAJren izenean. 1936an, Euskadiko Gudarostea antolatzen ibili zen. Urte hartan ezkondu zen, Eskoriatzan, Maria Josefa Ganuzarekin, hura ere familia aberats bateko kide.

Lehen Eusko Jaurlaritzako Gobernazio sailburu izendatu zuen Jose Antonio Agirre lehendakariak 1936an. 1937an, erbestera alde egin behar izan zuen. 1946an, Kultura sailburu izendatu zuten. 1953an, artean erbestean zela, laga egin zuen sailburu kargua Agirre lehendakariarekin ez zelako ondo konpontzen.

### Ezker abertzalerantz

1960an, Agirre lehendakariaren heriotzaren ostean, EAJrengandik urruntzen hasi zen eta Ipar Euskal Herriko errefuxiatuengana hurbiltzen. 1977an, Hego Euskal Herrira itzuli zen eta EAJren Lapurdiko Uri Batzarrak alderditik kanporatu zuen. Urte hartan, abuztuaren 5ean, harrera bero eta jendetsua eskaini zitzaion Bergaran, jaioterrian. 1978an, Herri Batasunaren sorreran parte hartu zuen. 1979an, Espainiako Gorteetako diputatu aukeratu zuten HBren izenean; 1980an, Gasteizko legebiltzarkide (HB).

1981ean Donibane Lohizunen hil zen, martxoaren 9an, 75 urte zituela. Bergarako San Pedro elizan egin ziren hileta elizkizunak, martxoaren 12an. Bergara jendez bete zen. Jaioterrian lurreratu zuten, familiako panteoian.

### 'Monzon' pastorala

Abuztuaren 7an eta 14an eskainiko dute Larrainen (Zuberoa) *Monzon* pastorala. Uda guztietan eskaintzen da Zuberoako herriren baten. Oso noizbehinka eskaintzen da hegoaldean. Hain justu ere, hegoadeko pertsonaiaren baten gainekoa denean. Hori da aurtengo kasua. Bergarako Udalak nahiko luke irailean *Monzon* pastorala Bergaran eskaintzea. Hasierako harremanak izan dituzte, baina erantzuna "larraintarren eskuetan" dago", diote Udaletik.

### HITZALDIAK

**LUDGER MESS, historiagilea**
Martxoaren 7an
Monzon sailburu izan zenekoa

**KOLDO IZAGIRRE, idazlea**
Martxoaren 11n
Monzon kulturgilea

**IÑAKI EGAÑA, historiagilea**
Martxoaren 14an
Iparraldeko errefuxiatuekin harremanak

HITZALDI GUZTIAK, 19:00ETAN, OLASO DORREAN



Ganuzaren eta Monzonen ezkontza. 1936. | JOSUREN MURGIZU.



1934, Azpeitia. Ramiro Maesturekin (eskumakoa). | GIPUZKOA KULTURA



1977, Bergarako udalbatzarekin. | BUA. ROMAN LARRAÑAGA FONDOA.

# 'Baby-boom'-a: 20 urteotako jaiotze kopuru handiena Arrasaten (199)

## Hala ere, bizilagun kopuruak behera egin du iazkoarekin alderatuta

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Azkenaldian uste izan baduzue Arrasateko kale eta parkeetan sekula baino ume gehiago ikusten dela, ondo zabiltzate. Izan ere, *baby-boom* fenomenoa Arrasatera bueltatu dela esan daiteke, 199 ume jaio dira-eta 2010ean; haain zuzen, 2009an baino 24 gehiago eta orain dela bi urte baino 30 gehiago.

**Gutxien, 2000. urtean**

"Jaiotze-kopuru txikiena 2000. urtean gertatu zen: 137 ume besterik ez zen jaio orduan. Azkenaldiko handiena, berriz, 2001ean izan zen: 191 jaiotza izan zen. Baina, ikusten den moduan, 2010ekoa da datu deigarriena; are gehiago, 1990ean ere jaiotze-kopurua oraingoa baino txikiagoa izan zen: 179 ume jaio zen 1990ean. Beraz, urteotako jaiotza kopuru handiena orain izan da. Akaso izango da bukatzear zegoelako 2.500 euroko txekea? Ba akaso bai, nork daki", adierazi du Juanito Barberanek, Hezkuntza Saileko teknikari-buruak.

**Matrikulazioa behera**

Argi dagoena da diruak eragin handia duela umeak ekartzeko edo hezteko orduan. Hala erakusten dute, esaterako, 0-2 urte bitarteko umeen matrikulazio datuek.

Adibidez, udal haur-eskolan, 0-1 urtekoen matrikulazioa nabarmen jaitsi da. "2008-2009an izan zen matrikulazio handiena: %30,76. 2009-2010ean antzera ibili zen: %29,71. Baina 2010-2011n %10en bueltan geratu da. 1-2 urtekoei dagokienez, 2009-2010eko matrikulazioa %63,90 izan zen eta aurten 10 puntu gutxiagoan geratu da, %53,71n. Pentsatzen dugu krisiarengatik izango dela", esan du Barberanek.

Arizmendi ikastolan, berriz, ez dute matrikulazioan jaitsierarik igarri.

**Neskatila gehiago**

Bestalde, jaio diren 199 umeen artean bada datu kurioso bat: neskak gehiago dira, 108; mutikoak, 91. "Erroldan %52 dira gizonak eta %48 emakumeak. Baina bizitzak aurrera egin ahala, eskolaratze sasoian eta adinekoen artean gizonak "desagertu" egiten dira".



Gurasoak ume txikiak eramaten, karrotxoetan. | U.M.

**Hemengo eta hango izenak**

Izenei dagokienez, berriz, "euskaldunek euskal izenak ipintzen dizkiete eta atzerritarrek konposatuak; baina, atzerritarren artean, adibidez, txinatarrek izen txinatarrarekin batera euskal izena ere ipintzen diote umeari", jakinarazi du Jose Mari Balantzategi udal teknikariak.

**JAIOTAKOAK**

| URTEA | JAIOTZAK |
|---|---|
| 2000 | 137 |
| 2001 | 142 |
| 2002 | 191 |
| 2003 | 180 |
| 2004 | 177 |
| 2005 | 180 |
| 2006 | 189 |
| 2007 | 177 |
| 2008 | 169 |
| 2009 | 175 |

**Bizilagun gutxiago aurten**

Kontuak kontu, eta nahiz eta jaiotze-tasak gora egin, 22.011 bizilagun ditu gaur egun Arrasatek. Bestela esanda, iaz baino 53 lagun gutxiago, iaz 22.064 bizilagun zeuden-eta erroldan izena emanda.

Jaitsieraren arrazoiak bi dira: jaio baino pertsona gehiago hil dela eta emigrazioa immigrazioa baino handiagoa dela.

Hala ere, 2010eko jaitsiera ez da lineala; hau da, ez da udalerriaren berezko joera. Orain dela bi urte, adibidez, errolda txikiagoa zen: 21.974 lagunekoa. Gorabeherak izaten ditu, beraz, Arrasaten bizilagun kopuruak, "batez ere atzerritarren joan-etorriak eraginda", adierazi du Balantzategik.

# Otalora kaleko asfalto-lanak bukatuta, Institutu inguruan hasiko dira

**U.M.** | ARRASATE

Hasi eta bukatu dituzte Otalora Lizentziaduna kaleko asfalto-lanak asteon. Maalako biribilgunean hasi eta Muxibarko biribilgunerainokoak, hain justu ere.

Errepidearen zatirik handienean asfalto zaharra jaso eta berria bota dute. Baina beste zati batzuetan (Zarugalde eta Monterron -Muxibar zatian) zuloak konpondu eta zebrabidearen aldapa samurtu dute, "autobusek azpiekin lurra jo ez dezaten".

Lanok egin bitartean, zirkulazioa alde zaharretik eta Garibaitik desbideratu dute.



Asfalto-lanak Otalora kalean, Monterron parean. | U.M.

**Institutu-Santa Marina**

Behin Otalorako lanak bukatuta, datozen egunotan herriko beste zenbait puntutan lan puntualak egingo dituzte. Institutu-kiroldegi inguruan konponketa lanak egitea da asmoa eta gero Santa Marina auzora joko dute, farmazia ingurura. Asfalto-lan guztiak Oiartzungo Orsa enpresak egingo ditu.


*Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua*



Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**Ino Galparsoro** | Arrasateko alkatea

# "Ardura maximoa duten lanpostuetan gizon gehiago dago"

Ekin elkartearen erakusketan parte hartu du alkateak, ibarreko emakume alkateetako bat delako

UBANE MADERA | ARRASATE

Emakume moduan bizi izandakoaren gainean galdetu diogu Ino Galparsoro Arrasateko alkateari:

**Arrasateko alkatea emakumea izateaz gainera, udalbatzarrean ere hamar zaudete; nahikoa da?**

Ia-ia ordezkatzen du populazioaren genero banaketa, eta ez dago gaizki. Baina egia da hainbat urtean alderantzizko portzentajea izan dela, eta beharbada iritsi da momentua horri buelta emateko eta emakumeen presentzia handiagoa izateko, orekatu nahian hainbeste urtean alderantzizko politikaren eragina.

**Udalari dagokionez, zelan dago langile banaketa?**

Seguru aski emakume gehiago dabiltza lanean, baina badaude gabezia batzuk. Badaude lanbide batzuk oso lotuta historikoki emakume izaerarekin eta emakumeek betetzen dituztenak: gizarte laguntzaileak, Iturbide egoitzako hainbat langile... Aldiz, udal brigadan, bakarra ez ezik, beste guztiak gizonezkoak dira, eta Udaltzaingoan gehiengoa gizonak dira; eta ardura maximoa duten lanpostuetan gizon gehiago dago emakumezkoak baino.

**Zein da gabezia?**

Pixka bat denetik: ohiturak; lana familiarekin bateratzean oraindik pentsatzen dugu emakumeok dugula ardura eta horrek konplikatu egiten du dedikazio aldetik gehiago eskatzen duten lanpostuetan egotea... baina badaukat esperantza gazteok buelta emango diozuela, ikusten dudalako emakume gazteak kokatzen direla modu desberdinean bizitzan, eta ondorioa etorriko da lanpostuetara. Eta jakina, emakumeen presentzia handiagoak eragingo du arduretan ere emakumeen presentzia areagotzea.

**Alkateorde ere izan zinen (1995 -1997 eta 1999-2003). Asko aldatu da egoera ordutik hona?**

Noski; udaletxeak eurak handitu egin dira. Hor kokatuko nuke emakumeen presentzia handiagoa. Sasoi hartan apustu egin genuen Berdintasunerako Zerbitzuaren alde, eta horrek bere eragina izan du. Udalbatzarrari dagokionez, kupoaren gaiak eragina izan du, eta, askotan kritikatua izan arren, nik uste dut eragin positiboa izan dela eta horrek eraman gaituela gaur egungo presentziara.

**Udalera etorri aurretik Coprecin ibili zinen. Ze ikusi duzu fabrikan?**

Udalen atzetik doaz enpresak. Aurrerapausoak ematen dabiltza, baina emakumeen presentzia eskasa da botere postuetan.

**Gizonek desberdin tratatu zaituzte emakume izatearren?**

Alkate moduan ez, baina gizonek ematen diguten tratua ez da gizonek euren artean duten tratu bera; susmoa daukat kondeszendienteago ez ote diren emakumeekin.


Ino Galparsoro alkatea, udaletxe aurrean. | UBANE MADERA

**"Gizonek ematen diguten tratua ez da gizonek euren artean duten tratu bera"**

## Atzerritarrendako euskara eskolak abiaraziko dituzte

U.M. | ARRASATE

Urteotan Arrasaten atzerritar kopuruak gora egin duela-eta, Udal Euskaltegiak haiei zuzendutako ikastaroak abiaraziko ditu, 16 urtetik gorakoendako, AISA izenekoak. Izenematea zabalik dago, eta euskaltegikoen asmoa da bi talde sortzea: goizean bata eta arratsaldean bestea. Astean lau ordu eman gura dituzte, 60 ordu bete arte. Ordutegiak eskatzaileen beharren arabera zehaztuko dituzte. Izena emateko Udal Euskaltegira jo beharra dago: Arimazubi plaza (943 79 70 77), Eskola Politeknikoaren ondoan.

## Ludoteka ibiltariak eta mahai-jolasen maratoia asteburuan

Zapatuan 10:30ean zabalduko ditu ateak Musakolako San Antolin ikastetxe ondoko eraikin urdinean Txatxilipurdiren ludoteka ibiltariak.

Bestalde, egun berean, baina 12-17 urtekoendako, mahai-jolasen maratoia egingo du Txatxilipurdik Kulturaten, 17:30ean hasita.



# Ohorezko mailako Durango eta Hernani, nor baino nor gehiago

▶ Durangok etxeko partidua jokatuko du bihar, kopako sailkatze fasean (16:00)

▶ Gero, Euskadiko Liga: Arrasate Kanpazar eta Zarautz lehiatuko dira (17:30)

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Bihar arratsaldean errugbia izango da protagonista Mojategin. Hasteko, ohorezko B mailan jokatzen duten Durangok eta Hernanik Errege Kopako sailkatze faseko bigarren partidua jokatuko dute (16:00). Durangok etxean jokatuko du; izan ere, Arrasatek eta Durangok indarrak batu zituzten denboraldiaren hasieran. Durangokoa lehen taldea da eta Arrasatekoa bigarrena.

**Kopa bera "saria" da**

Kopan B mailan diharduten taldeak lehiatzen dira, hiru taldez osatutako bi multzotan. Sei talde horietatik bi pasako dira hurrengo kanporaketara, A mailako taldeen aurka lehiatzeko. Aukera erakargarria da goi mailako jokalariekin lehiatzeko, baina Durangok kopa "lasai" hartu du aurten. Kopan egotea bera "saria" da, Aratz Gallastegi Durangoko entrenatzailearen ustez: "Kopa oso lasai hartu dugu, mailaz jaisteko lehian ez sartzea saria da guretako. Zelaian probak egiteko aukera ematen digu eta asmo horrekin joango gara Mojategira". Kopan aurrera egitea zaila izango da; izan ere, lehen partidua galdu egin zuten Oviedoren aurka (44-26). Beraz, Durangok Hernaniren aurka irabazi beharko du bihar eta gero Oviedo eta Hernaniren arteko emaitzari itxaron. Koparen osteko lana da garrantzitsuena, Gallastegiren arabera: "Taldeak funtzionatzen jarraitu behar du. Kopatik kanpo geratzen bagara arlo fisikoa landu beharko dugu; hau da, gimnasioan ordu asko egin beharko ditugu. Pisua hartu behar dugu eta gihartak indartu. Beste talde batzuekin konparatuz, arinegiak gara".


Ander Eriz arrasatearra, Durango eta Hernani ligan lehiatu zirenean. | JOXE ELORTZA

**ESANAK**

"Kopatik kanpo geratuz gero, pisua hartzeko egingo dugu lan"
ARATZ GALLASTEGI
DURANGO ILARDUYA TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Aurten ere jende gutxi: egun bat lehenago dakigu zenbat gauden"
UNAI ARANBURU
ARRASATE KANPAZAR TALDEKO KAPITAINA

Bestalde, Arrasate eta Durangoren arteko proiektu bateratua ez da espero bezain ondo atera, Gallastegiren ustez: "Jokalari gehiago egoteak lehia handiagoa ekarriko zuela espero genuen, baina ez da hala izan. Arrasateko jokalari batzuk etorri dira eta pozik gaude eurekin, baina konpromiso eskasa dago bi taldeetan. Alde horretatik ez nago batere pozik".

**Arrasateko taldea, burumakur**

Zarautzen aurka jokatuko du Arrasatek (Mojategi, 17:30). Une txarra bizi du taldeak; azkenak dira Euskadiko Ligan (-3 punturekin) eta jokalari aldetik eskas dabiltza. "Betiko moduan", Unai Aranburu kapitainaren arabera: "Aurten ere ez dago jenderik, egun bat lehenago jakiten dugu zenbat gauden partidurako".

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Portaboleiros-Cipris | 1-2 |
| Lasagabaster-Steaua del Grifo | 12-1 |
| Iriztu-Ekaitz | 2-6 |
| Dribling-Iluntz | 2-1 |
| Fuxxion-McAwenDauen | 3-6 |
| Ekaitz-Portaboleiros | 6-0 |
| Betrayer-Dublin | 2-8 |
| Abokajarro-Fidel & Disc. | 1-0 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Ekaitz | 30 | 12 |
| 2 | Dribling | 29 | 12 |
| 3 | Cipris | 27 | 12 |
| 4 | Lasagabaster | 25 | 12 |
| 5 | Abokajarro | 23 | 12 |
| 6 | McAwenDauen | 23 | 12 |
| 7 | Iriztu | 21 | 12 |
| 8 | Dublin | 20 | 12 |
| 9 | Betrayer | 15 | 12 |
| 10 | Iluntz | 13 | 12 |
| 11 | Portaboleiros | 12 | 12 |
| 12 | Fidel & Disc. | 6 | 12 |
| 13 | Fuxxion | 3 | 12 |
| 14 | Steaua del Grifo | 0 | 12 |

**PARTIDUAK**

OTSAILAK 12, ZAPATUA

| | |
|---|---|
| **10:30** | Lasagabaster-Cipris / **Iriztu** |
| **11:30** | Iriztu-Steaua del Grifo / **Lasaga.** |
| **12:30** | Iluntz-Abokajarro / **S. del Grifo** |
| **16:00** | Fuxxion-Portabo. / **Fidel & Disc.** |
| **17:00** | Fidel & Disc.-Dublin/ **Portabo.** |

OTSAILAK 13, DOMEKA

| | |
|---|---|
| **10:30** | Dribling-Ekaitz / **Betrayer** |
| **11:30** | Betrayer-McAwenDauen. / **Dribling** |

### Betrayer talde mitikoa, zortzi onenetatik kanpo

13. jardunaldia jokatuko da aste bukaeran, liga erregularreko azkena. Bigarren fasera pasako direnak aurreko jardunaldian sailkatu ziren eta nobedade nagusia da Betrayer ez dela txapelketa irabazteko lehian sartuko. Aurten ez dira fin ibili eta kanpoan geratu dira. Hori bai, B ligan jokatu ahalko dute; izan ere, aurten, 8. postutik 14. postura geratu direnei ere aukera eman diete jokatzeko, otsaila goizegi da-eta denboraldia amaitzeko...

Bestalde, Ekaitz da liderra, azken jardunaldiko bi partiduak –atzeratutakoa barne– irabazita. Jokalari berriekin sendotu da taldea eta hori emaitzetan igarri egin da.

# Otsailerako hiru irteera antolatu ditu Besaide mendizale elkarteak

**J.B.** | ARRASATE

Otsaileko egitaraua ekitaldiz lepo dauka Besaide mendizale elkarteak. Hiru irteera antolatu dituzte, eta, hirurek mendia helburu duten arren, askotarikoak izango dira.

Lehena Ondarroa eta Ispaster artekoa izango da. Otsailaren 20an izango da irteera eta izena eman ahalko da otsailaren 14an, 15ean eta 16an, 19:30etik 20:30era. Aste bukaera horretarako ere mendi eskia egiteko irteera antolatu du Besaidek. Candanchura joango dira hilaren 19an eta 20an eta mendi eskia egiten ikasi gura dutenendako ikastaroa izango da. Izena emateko egunak dira hilaren 14a eta 15a, 19:30etik 20:30era.

**Elur-erraketa ikastaroa**

Azkenik, elur-erraketak erabiltzen ikasteko irteera antolatu dute hilaren 26rako. Erraketak erabili ez dutenendako baina baita trebatuta daudenendako zuzenduta dago ikastaroa. Valdezcarayra joango dira eta 60 euro ordaindu beharko da –bazkideek 50 euro.

Izena emateko azken eguna otsailaren 16a da –19:30-20:30–. Hiru irteeretan izena emateko Besaide elkarteak Garibai kalean duen egoitzara joan behar da.

## Sailkapeneko azken taldea hartuko du MUk bihar (Iturripe, 18:00)

Aurreko jardunaldiko azken bost segundoetan Aloña Mendiren kontrako derbia galdu ostean, sailkapeneko azken postuan dagoen Leitzako Promociones Legarza hartuko du bihar MUk.

Gorka Kintana jokalariaren arabera, "irabazi beharreko partidua" da biharkoa: "Ez da partidu erraza izango, baina irabazi egin behar dugu beheko postuetara ez jaisteko. Azkenaldian ez gaude dinamika onean; ondo jokatu arren ez dakigu partiduak *hiltzen* eta hori gero ordaindu egiten dugu". Iturripen izango da norgehiagoka, 18:00etan.

## Irteera zaila lidergoan sendo jarraitzen duen Ford Mugarrirendako

Partidu zaila izango dute bihar Edu Orgazen mutilek. Urdulizen jokatu beharko dute, Urdulizek etxean ia partidu guztiak irabazi dituela jakinda. Kantxa zaila izateaz gain, "arriskutsua" ere bada, Xabier Altzelai jokalariak adierazi duenez: "Pilotaleku bat da eta ez dago egoera onean". Urdulizko taldearen gainean galdetuta honakoa dio Altzelaik: "Talde gogorra da eta esperientzia handia dute". Partiduaren ordua ere ez da aproposena; 20:00etan jokatuko dute. Hala ere, lidergoan sendo jarraitzeko asmoz joango dira arrasatearrak Bizkai aldera.




Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

# Numen taldea agertokietara itzuli da Parisko Moulin Rouge aretoan

Hurrengo kontzertua Durangoko Plateruenan egingo dute otsailaren 26an

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Numen taldeak Parisko Moulin Rouge areto entzutetsuan jo zuen joan den urtarrilaren 23an. Hainbat urte agertokietara igo barik egon ondoren, arrasatearrek *Cernnunos Pagan Festival* aukeratu dute euren itzulerarako.

"Jaialdiko antolatzaileak jarri ziren gurekin harremanetan, hiru bat hilabete lehenago. Jaialdian jotzeko aukera geneukala esan ziguten", azaldu digu Lander Olazabalaga taldekideak.



Jabo, Xabi, Aritz, Eol eta Lander dira taldeko kideak. | NUMEN

**Mundu osoko taldeak**

"Metal pagano jaialdia da *Cernnunos*", azaldu du Olazabalagak. Mundu osoko taldeak aritu ziren Moulin Rouge aretoan: Mael Mordha irlandarrak, Skyforger letoniarrak, Bran Barr frantziarrak, Finterfrost alemaniarrak, Fjed suediarrak, Odroerir alemaniarrak, Ataraxia italiarrak, Skyforger letoniarrak eta Numen arrasatearrak.

Urtarrilaren 23an (domeka) izan zen jaialdia. "Eguerdian hasi zen eta gauera arte iraun zuen. Egia esan, denbora laburra izan genuen gure kontzertua emateko, ordu erdi inguru", azaldu du Olazabalagak Parisko kontzertua gogora ekarrita. Hala ere, Arrasateko taldea "gustura" geratu zen eskainitako kontzertuarekin. "Esperientzia polita izan da, eta taldea berriz ere martxan jartzeko aitzakia itzela", dio.

**Abesti berriak jo zituzten**

Lau urte dira zuzenekorik egiten ez zutena; izan ere, bateria-jotzaile barik geratu ziren arrasatearrak. Hala, bateria-jotzaile profesional bat hartu dute kontzertuetarako: Alfred Berengena kataluniarra. Olazabalagak azaldu digu ondo moldatu zela Berengena Parisen. Batez ere abesti berriak jo zituzten Parisko kontzertuan. Baina, oraingoz, diskoa grabatzeko asmorik ez dutela gaineratu du.

**Hilaren 26an Durangon**

Hurrengo kontzertua hilaren 26an eskainiko dute Durangoko Plateruena Kafe Antzokian, 22:00etan. Landerrek azaldu du oraindik ez dakitela Debagoienean joko duten: "Kontzertuak egin ahal izateko dirua jarri behar dugu gure poltsikotik; hortaz, joko dugu aukera ona dela uste dugun tokietan bakarrik", gaineratu du.

# El Quinteto de la Muerte taldearen funk eta soul doinuak datorren eguenean gaztetxean

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan antolatutako kontzertua izango da eguenekoa

A.E. | ARRASATE

Gasteizko El Quinteto de la Muerte taldeak izango du datorren eguenean gaztetxea girotzeko ardura. Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, *Live in Dublin* diskoa aurkeztuko dute gasteiztarrek. Kontzertua hilaren 17an izango da, 22:00etan, 5 euroren truke.

**Jazz munduan erreferente**

El Quinteto de la Muerte taldea oso ezaguna da jazz munduan. Jazz jaialdi garrantzitsuenetan izan dira zuzenean musika jotzen: Fuerteventura, Gasteiz eta Madrilen, besteak beste. Raul Romo, Gonzalo Fernandez de Larrinoa, Say-Chin Yeoh, Dani Foronda eta Perico Paez dira taldeko kideak.

Zuzeneko emanaldiez gain, hainbat disko ere grabatu dituzte; horietako batzuk, gainera, musikari ezagunekin: Kepa Junkera, Doctor Deseo, Betagarri eta Ortophonk.

Gainera, hainbat filmetako soinu-bandak ere grabatu dituzte gasteiztarrek: *Airbag*, *Di que sí*, *Reinas*... Beraz, hitzordu benetan interesgarria gasteiztar horiekin.

## Cher eta Christina Aguilera protagonista diren 'Burlesque' lana eskainiko dute bihar eta etzi

Amaia antzokiko zinema eskaintzan *Burlesque* eta *Megamind* lanak eskainiko dituzte. Zapatuan 19:30ean eta 20:00etan eta domekan 19:30ean, Steve Antin zuzendariaren *Burlesque* lana eskainiko dute. Cher eta Christina Aguilera dira filmeko protagonistak. Musikala da eta lanak 120 minutuko iraupena dauka. *Megamind*, ostera, haurrendako animaziozko filma da. Tom McGrathek zuzendutako lanak 95 minutuko iraupena dauka. Domekan eskainiko dute, 17:00etan.



## Pilotalekuko igogailua apirilerako martxan

I.G. | BERGARA

Udal Pilotalekuan igogailua jartzeko asmoa du Udalak. Hala, igogailua hornitzeko baldintzak onartu zituen astelehenean ezohiko bilkuran. Esleipena jendaurrean zabaldu gabe eta negoziazio bidez egingo da, udalbatzak aho-batez onartu zuen moduan.

Igogailua jartzeko beharrezko lanak dagoeneko eginda daude –iaz egin zituzten–, baina erostea eta instalatzea falta da. Horrela, horren proiektua egiteko gonbidapena egingo die Udalak hiru enpresari eta otsailaren 16ra bitarteko epea izango dute euren lanak aurkezteko. Proiektura bideratuko den gehienezko kopurua 22.000 euro izango da.

Ibargarai kalean dagoen sarreraren ondoan jarriko da igogailua, atearen ezkerreko aldean, frontisaren atzealdean. Hor dagoen pasabidetxotik frontoira jaisteko aukera izango da, beraz, apiriletik aurrera; izan ere, Udalak aurreikusten du Aste Santu osterako lanak amaituta izatea.

## Kirol tasa gehienek behera egingo dute apiriletik aurrera

Kirol batzordeak hainbat aldaketa proposatu ditu ematen dituen zerbitzuetako tasetan, iaz izandako akatsak zuzentzeko. Hala, apirilaren 1etik aurrera tasa berriak aplikatuko dira. Bi kasutan izan ezik, beste guztietan behera egingo dute tasek, aldaketak oso txikiak diren arren. Tasak igoko diren kasuak dira: 3 eta 13 urte arteko haurren urteko abonu arrunta (orain 33,16 euro da eta apiriletik aurrera 33,66 euro izango da) eta adinez nagusi direnentzako hileko bainuetxeko abonua (orain 10,12 euro; gero 10,20 euro).

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

# 2.809.624 euro bideratuko dituzte inbertsioetarako, iazkoaren bikoitza

### 25.096.809 euroko aurrekontu bateratua onartu du Udalak 2011rako; bozketan EA abstenitu egin da eta EAJ eta PSE-EE kontra azaldu dira

IRATI GOITIA | BERGARA

Udalbatzak 2011ko aurrekontuak onartu zituen astelehenean egindako ezohiko bilkuran. Onartutako udal aurrekontua 21.838.433 euro izan da, aurreko urtekoa baino 408.256 euro handiagoa. Aurrekontuek aurrera egin zuten Gobernu taldearen aldeko botoekin, EAren abstentzioarekin eta EAJren eta PSE-EEren kontrako botoekin.

Bestalde, Udalaren eta haren erakundeen aurrekontu bateratua 25.096.809 euro da –Mizpirualde egoitzara 4.162.128 euro bideratuko dira, Udal Euskaltegira 463.883 euro eta Bergarako Bihargintzara 395.700 euro.



Tuneletik Mayceko biribilgunerainoko bidetxoa konpontzeko 120.000 euroko gastua onartu du Udalak. | IRATI GOITIA

**Inbertsioek gora egin dute**

Inbertsioetara bideratuko den zenbatekoa iazkoa baino handiagoa izango da; nabarmen, gainera (%70,3 gehiago). Aurten 2.809.624 euro izango dituzte inbertsioetarako; iaz 1.650.123 euro izan zituzten. Ogasuneko zinegotzi Aitor Goitik honela azaldu du horren arrazoia: "Gastu arruntak behera egin du (%2,9 jaitsi da) eta horrek inbertsioetara diru gehiago bideratzeko gaitasuna ematen digu".

Horrekin batera, Agurne Barruso alkateak adierazi du aurrekontu zorrotzak direla: "Udalaren egoera ekonomikoa ez da oso ona, eta, beraz, aurreikusten den inbertsio handi bakarra Ibaiondokoa da, gainontzekoak txikiagoak dira".

**Pertsonal gastuak ezbaian**

Pertsonal gastuak sortu du alderdien arteko ika-mika handiena. Izan ere, jeltzaleen eta sozialisten iritziz, pertsonal gastuak handiegiak dira. Horren harira, kale-garbitzaileen zerbitzua Udalak bere gain hartzeak gastuak areagotu egin dituela azaldu zuten osoko bilkuran.

Bada, Aitor Goitik azaldu du pertsonal kostuek pixka bat egin dutela gora, Udalean jende gehiago dagoelako lanean, baina gastu arruntek behera egin dutela kale-garbitzaileen azpikontratazioa kendu dutelako; eta horrela dirua aurreztea lortu dutela inbertsioetarako.

**INBERTSIO AIPAGARRIENAK**

| PROIEKTUA | ZENBATEKOA |
|---|---|
| Ibaiondoko urb. | 516.710 |
| Ur saneamendua | 292.380 |
| Kulturako proiektua (auditoriuma) | 250.000 |
| San Migel eta Galagarra bidea | 200.000 |
| Mayceko areka | 120.000 |
| Mugikortasuna | 120.000 |
| Uberako ur sarea | 110.000 |
| S. Migel aparkalekua | 110.000 |
| Herri zoladura | 75.000 |

ITURRIA: UDALA

**EAJ ez dago konforme**

EAJ kexu azaldu da aurreko urtean bezala aurten ere ez dagoelako inbertsiotarako dirurik: "Udalak aurreko urtetik hasita duen politika da ondo funtzionatzen duten zerbitzuak udaletxeak berak eramatea. Horren adibide da azken lau urteotan 34 pertsona gehiago daudela udaletxean lanean. Guk uste dugu ez gaudela horrelako aldaketak egiteko unean; izan ere, horrek kostu handiagoa eragiten du; eta, ondorioz, gastuak gora doaz eta inbertsioak egiteko dirurik ez da gelditzen". EAJko zinegotzi German Muruamendiaratzek gaineratu du argi dutela etorkizunean "neurri anti-popularrak eta gogorrak" hartu beharko direla.

Bestalde, aurrekontuak testuinguru ezin hobean egin direla ere adierazi dute jeltzaleek: "Aurtengo aurrekontuak egin dira egon daitekeen testuinguru egokienean: alde batetik, langileen soldatak izoztu egin direlako; eta, beste alde batetik, zergak eta tasak igotzea onartu genuelako".

**PSE-EE ere kontra**

PSE-EEk ere uste du gastu arrunta txikitu egin beharko litzatekeela; batez ere, pertsonalarena. Sozialisten iritziz, arlo horretan diru larregi gastatzen da; Mizpirualdeko egoitzan, adibidez.

Bestalde, auzoetan inbertsio gutxi egiten dela ere badiote, eta azken urteetan *Zapatero Plan*-etik etorritako dirurik gabe Udalak lanpostuak sortzeko zer egingo zukeen ere galdetzen dute.

# Udala ez da LABen auzian azalduko

### Udalak langileen soldatak jaisteari errekurtsoa jarri zion sindikatu horrek

I.G. | BERGARA

Asteleheneko ezohiko osoko bilkuran jorratu zuten beste gaietako bat izan zen LAB sindikatuak Udalari jarritako auzi errekurtsoa. Hain zuzen, langileen soldatak jaisteko Udalak 2010eko azaroaren 29an hartutako erabakiaren aurka aurkeztu zuen LABek errekurtsoa. Bada, Udal Gobernuaren, PSE-EEren eta EAren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin, Udala auzian ez agertzea onartu zuten.

**Madrilgo erabakia**

Agurne Barruso alkateak adierazi zuen langileei soldatak jaistearen erabakia Madrildik etorri zen dekretua izan zela eta eurek ados ez egon arren bete egin behar izan dutela: "Ez gentozen bat dekretuarekin eta orain aukera izan dugu dekretu horren defentsarekin aurrera ez egiteko, eta hori proposatu dugu gaurko bilkuran".

Bestalde, PSE-EEren aldeko botoak harritu egin zuela ere aitortu zuen: "Madrildik bultzatutako erabakia izan da. EUDEL ere horren alde agertu da eta Bergaran EAJ abstenitu egin da. Beraz, euren alderdiek erakutsitako jarrerarekin bat ez datozen botoak eman dituzte gaur Bergaran".

EAJk, bestalde, ez du oso ondo ulertu Udala denuntzia horren aurka ez joatea, eta horregatik abstenitu dela dio alderdi jeltzaleak.

# Aste bukaeretan ere zabalduko dute Zabalotegiko txiki-txokoa aurrerantzean

Ordutegia ere handituko dute: ordu erdi lehenago irekiko dute, 16:30ean

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Zabalotegiko txiki-txokoa asteburuetan ere irekitzea erabaki du Udalak, eta aurreko asteburua ezkero halaxe egiten dihardute. Orain arte astelehenetik egubakoitzera egon izan da zabalik, baina, gurasoek hala eskatuta, zerbitzua zapatu eta domeketara zabaltzea erabaki du. Era berean, ordutegian ere bada aldaketa bat: aurrerantzean ordu erdi lehenago irekiko dute Zabalotegiko eskola. Hori horrela, txiki-txokoaren ordutegi berria 16:30etik 20:00etara izango da.

Erabiltzaileek egindako beste eskari bat izan da txiki-txokora iristeko dagoen maldatxoa egokitzea, ez baitago prestatuta umeen aulkitxoendako, besteak beste. Horren harira, udal arduradunek aurreratu dute aintzat hartu dutela eskaria eta egokitzapen hori bideratuko dutela, nahiz eta konponketa lanak egiteko datarik ez duten eman.

Irailean zabaldu zuen Udalak txiki-txokoa Zabalotegiko eskola zaharrean. 0 eta 5 urte arteko umeendako aisialdigunea da eta bi ikasgela ditu: bata oinez dabiltzan umeendako da eta bestea, oraindik katamarka dabiltzanendako. Bestalde, komunak ere baditu, nagusi zein umeendako.

Eguraldi txarra egiten duenean gurasoek umeekin non egon izan dezaten atondu dute eskola zaharra, eta, ekipamendu aldetik gutxienekoa badu ere –psikomotrizitatea lantzeko erabiltzen den materiala: koltxoneta batzuk, kuboak...–, erabiltzaileak pozik daude eta ondo baloratu dute zerbitzua, batik bat negu partean umeekin jolas egiteko gune bat dutelako.



Iazko azokako postu bat. | GOIENA

## Zapore eta artisau feria aste bukaeran

M.B. | BERGARA

Atzo hasi eta domekara arte, zapore eta artisau feria egongo da San Martin plazan, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara. Iaz etorri zen lehenengoz azoka hori herrira, eta aurten berriro antolatu dute. 22 postu egongo dira: Kantabriakoa, Euskal Herrikoa, Extremadurakoa, Gaztela eta Leongoa, Valentziakoa... Eta, askotariko jaki eta artisauekin batera, bitxikeriak ere egongo dira: tamaina handiko gozokiak, olio barik erabil daitezkeen zartaginak... Iaz baino sei postu gehiago egongo dira eta etorriko den berrietako batek taloak salduko ditu, ohi baino merkeago. Eta iazko pulperia ere etorriko da eta ez du eguerdian itxiko. Domekan, 13:30ean, doako babarrun dastatzea egongo da.

## Gurasoek umeekin jolas egiteko DVDa banatuko dute eskoletan

M.B. | BERGARA

Umeen hizkuntza-ikasketak eta familia transmisioak duten garrantzia kontuan hartuta, Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek *Gurasoentzako aholkuen liburuxka eta Kantu eta Jolasen DVDa* banatuko dute. Bergarari dagokionez, eta Udaleko Euskara Zerbitzuak herriko ikastetxeekin egiten duen elkarlanari esker, sorta hori ikastetxeetan banatuko da 4 urteko umeen artean.

DVDaren helburua gurasoei umeekin euskaraz jolasteko aukera eskaintzea da. Normalean, gaur egun, edade horretako umeak dituzten gurasoek, nahiz eta euskaldunak izan, jolas eta abesti gehiago ezagutzen dituzte gaztelaniaz, eta gabezia horri aurre egiteko aukera eskaintzeko egin dute. Gainera, abestiak laburrak direnez, guraso erdaldunek ere ez dute zailtasun handirik izango ikasteko.

Kaxa barruan bi liburuxka daude, DVDaz gain. Liburuxka bat grabazioan jasota dauden jolas eta kantuen gaineko informazioarekin osatu da. Bestea, aldiz, *Biharko euskara gaur-Su futuro euskara desde hoy*, gurasoei zuzendutako liburua da: hizkuntzarekin lotutako aholkuak jaso dira, euskaraz eta gaztelaniaz.




DVDaren azala. | GOIENA

## Juan Mari Landak eroan du saria

**Ubera auzoko Jai batzordeak aditzera eman duenez, San Paulo jaietan egindako zozketaren zenbaki saritua 8.597 izan da eta Juan Mari Landa mendaroarrak eroan du saria: Uberako Anduri landetxean asteburuko egonaldia bi lagunendako eta sei bazkari edo afari Tartufo jatetxean, hain justu ere.**



GOIENA

NIRE USTEZ



ANDRES OSA 'SAKONA'

## Euskal Herria kanposantu

Egun hauetan EHNE Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna sindikatua ozenki mintzatu da, salatu eta aldarrikatu du herri txiki hau letxugak sartzeko lurrik gabe gelditzen ari dela. Politikarien aldetik, entzungor ohi denez.

Abiadura Handiko Trena, autopistak, autobiak, zer ez da egin lur muturtxo honetan. Txoriek habia non egin ez dakitela jarri da. Eta azpiegitura horiek gutxi ez balira, mehatxu larriagoa, etxegintza.

Baserri etxe dotoreak, zaharrak berritu eta berriak jasotzen ari dira lur eremu ederrenetan. Kantabria isuriko Euskal Herriko herrietatik txango bat egitea aski da, etxe ederrik leku onenetan ikusteko. Eskerrak krisi honek, pittin bat ez bada ere, moteldu egin duen kalentura horren kaltea.

Aipatutako eremuan toki erosoenak eraikinez betetzen ari dira. Aste barruan hutsik eta aste bukaeretan noizbehinka atseden leku bihurtu dira. Gainbegiratu batean kanposantuetako panteoiak dirudite. Dotoreak bai, baina hilak. Lurrak berari dagokiona emateko tokirik gabe. Antzuak.

Ama lurra ez hazirik ez landarerik, ez txoririk ez apixarik ezer ez bererik. Eraikin dotorez hornitutako kanposantu bihurtzen ari gara gure lurra. Requiem... atseden, ama lurrarentzat, esker txarreko gizarte boboaren partetik.

**"Herri txiki hau letxugak sartzeko lur barik geratzen ari da"**

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Estella ortopedia
RPS 421/97
ZERBITZU BERRIA

Gurpil-aulkien eta garabien alokairua

Matxiategi 5, Telefonoa: 943 76 19 63
consultas@farmaciaestella.com


Etxeko egur kuttunean jokatuko du Soraluce BKEk. | GOIENA

# Mailako talderik "osoena" hartuko du Soraluce BKEk

## Bergararrek Gasteizko Corazonistas BM taldearen aurka jokatuko dute bihar (Labegaraieta, 17:30)

**JOKIN BEREZIARTUA** | BERGARA

Partidu zaila izango du bihar Soraluce BKE eskubaloi taldeak. Sailkapenean bigarren postuan dagoen Gasteizko Corazonistas BM taldea hartuko dute Labegaraietan (17:30). Josetxo Muniategi talde bergararraren entrenatzaileak adierazi duenez, mailako talderik "osoena" dira: "Oso talde sendoa da, nire ustez, mailako osoena. Onena agian ez, baina bai osoena. Jokalari beteranoak eta gazteak oso ondo bateratu dituzte eta, gainera, jokalari zerrenda luzea dute".

**Partidu borobila egin behar**

Beraz, partidu borobila egitera behartuta daude mahoneroak: "Oso ondo jokatu beharko dugu gasteiztarrei min egiteko. Partidu ona jokatuta ere galdu egin dezakegu. Gakoa izango da azkenaldian egiten ari garen defentsa mantendu eta kontraerasoan bizkor irtetea".

Lehen itzuliko norgehiagokan errepaso galanta jaso zuten bergararrek Gasteizen jokatutako partiduan (34-17). Hala ere, Muniategik dio ez zela ohiko partidua izan: "Garai hartan jokalari gutxi genuen, lesioak eta beste arrazoi batzuk tarteko. Emaitza ez zen erreala izan".

Jipoi galanta izan zenik ezin da ukatu. Hala, errebantxarako aukera paregabea izango du bihar Soraluce BKEk, orduko arantza kentzen saiatuko dira. Gainera, Bergarako taldeak badaki zer den goiko postuetako taldeen aurka emaitza onak lortzea.

**ESANAK**

**"Gakoa izango da azkenaldiko defentsa mantendu eta kontraerasoan bizkor irtetea"**

JOSETXO MUNIATEGI
SORALUCE BKE TALDEKO ENTRENATZAILEA

**Kantxa bera, erabakigarria?**

Azken jardunaldian garaipen garrantzitsua ekarri zuten Hondarribitik (25-31). Behin eta berriz adierazi du Muniategik kanpoan irabaztea asko kostatzen zaiela. Hortaz, Hondarribiko partidutik bi puntu ekartzeaz gain, psikologikoki ere indartu egin da taldea: "Partidu ona egin genuen eta merezimenduz lortu genuen garaipena. Kanpoan irabazteak taldeari psikologikoki ere lagundu dio". Bestalde, kantxaren egoerak taldearen jokoan eragiten duela uste du mahoneroen entrenatzaileak: "Joko onaz gain, kantxaren egoera onak zerikusia izan zuela uste dut. Egur ona duten kantxetan hobeto moldatzen gara, eta Hondarribikoa Labegaraietakoa moduko kantxa da. Pilotalekuetan eta harrizko kantxa gogorretan, berriz, ez dugu horren ondo jokatzen".

# Ariznoa elkarteak presentzia handia izango du Uarkapen

## Joan den zapatuan sute txiki batek arratsaldeko saioak bihar goizera atzeratzea eragin zuen

**J.B.** | BERGARA

Denboraldiko eskolarteko A mailako lehen proba atzeratu egin behar izan zuten joan den zapatuan. Arratsaldeko lehen orduan sute txiki batek kea eragin zuen eta gimnastek ezin zuten ondo arnastu. Segurtasun neurri moduan arratsaldeko saio guztiak bertan behera uztea erabaki zuten antolatzaileek.

Hala, kadete, gazte eta senior mailetako gimnastek ezin izan zuten taldekako saiorik egin. Kadete mailan bakarkako saioak egin ziren. Atzeratutako saio guztiak bihar goizean egingo dira, Arrasateko Uarkape pilotalekuan.

**Ariznoak ordezkaritza zabala**

Ariznoa elkarteak presentzia handia izango du bihar. Taldekako modalitatean, maila bakoitzeko bost gimnasta lehiatuko dira. Kadete mailan, Maider Cabo, Jennifer Pineda, Ane Miren Mugurutza, Uxue Lazkano eta Arantzazu Anpudia; gazte mailan, Kristina Etxeberria, Ane Alberdi, Onintza Legorburu, Izaskun Fernandez eta Maitane Hernandez; eta senior mailan, Maialen Legorburu, Sarai Ruiz, Uxue Arregi, Lide Osinaga eta Ainize Lizarralde. Bakarko modalitatean, berriz, gazte mailan soilik izango dute ordezkaritza, Kristina Etxeberriaren eskutik.

Joan den zapatuko emaitzekin pozik dago Ariznoa elkartea. Taldeka alebinak bigarren sailkatu ziren eta infantilak, berriz, hirugarren. Bakarka, Mariana Nunes alebina bosgarren, Sonia Gonzalez infantila hirugarren eta Jone Olabarria infantila laugarren geratu ziren. Kadeteetan, azkenik, Jenifer Pineda hirugarren, Ane Miren Muguruza laugarren eta Maider Caba hamargarren geratu ziren.

**Otsailaren 19an, B mailakoak**

Gipuzkoa mailako hurrengo probak Bergaran izango dira; B mailakoak, hain zuzen: hilaren 19an, Labegaraietan.


Bergarako Jone Olabarria infantila, joan den zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

# Mendi eski irteerak antolatu ditu Pol-Polek hurrengo asteburuurako

**J.B.** | BERGARA

Otsailaren 18, 19 eta 20rako, askotariko mendi eski irteerak antolatu ditu Pol-Pol mendizale taldeak Bageres inguruan (Frantziako Pirinioak).

Bi irteera antolatu dituzte asteburu horretarako, bat zapaturako eta bestea domekarako. Irteeretako baten, Bedera, Aoube eta Oncet mendien arteko ibilbidea egingo dute. Beste irteeran, berriz, Crampettes eta Lurtet gailurren arteko ibilbidea egitea da hasierako asmoa. Hala ere, antolatzaileek aditzera eman dute irteeren ibilbideak eguraldiaren arabera alda daitezkeela.

**Izenematea, hilaren 15era arte**

Izena emateko azken eguna otsailaren 15a da; hau da, datorren martitzenean itxiko dute izenematea. Izenematearen gaineko argibide gehiago jasotzeko, deitu 943 76 48 51 telefonora.

Bestalde, izenematea itxiko den egun berean, hau da, otsailaren 15ean, batzarra egingo dute Pol-Pol mendizale taldearen egoitzan. Batzar horren helburua izango da irteeraren nondik-norakoak azaltzea.

# Idiazabalen bolada txarra aprobetxatuz, hiru puntuak Bergarara ekartzeko asmoa

**J.B.** | BERGARA

"Partidu guztiak dira zailak; aurrekoan, lehenak azkenaren etxean galdu egin zuen. Hala ere, Idiazabalen bolada txarra aprobetxatu eta hiru puntuak Bergarara ekartzeko asmoz joango gara". Oskar Maiztegi Bergarako futbol taldearen entrenatzaileak biharkoa (Arizkorreta, 17:00) "partidu zaila" izango dela uste du: "Atera dituzten 19 puntuetatik 16 etxean batu dituzte; belar artifizial zaharra daukate eta baloiak bote handiak ematen ditu. Beraz, joko gutxiko eta kontaktu handiko lehia izango da". Hiru puntuak lortzeko gakoa erritmo azkarra jarriz hasi eta idiazabaldarrei zalantzak sortzea izango dela uste du Maiztegik.

# Orain dela 100 urte ere Aratusteak ospatzen zirela erakutsiko dute

▸ Aratuste-kontzertua martxoaren 4an egingo dute, 22:30ean

▸ Batutako dirua Magali Muruamendiaratzi laguntzeko izango da

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Orain dela 100 urteko Aratusteak irudikatu nahi dituzte aurtengo Aratusteetako kontzertuan. Erakutsi nahi dutena da Aratusteak ez direla gaur egun asmatutako jaiak, orain dela 100 urte ere Bergaran ospatzen zirela. Horretarako, Masterreka kalea irudikatuko dute, eta orain dela 100 urteko itxura emango diote.

**Kaletarrak eta baserritarrak**

"Jai batzordeak erabaki zuen Aratusteetako gaia orain dela 100 urteko Aratusteak izatea", azaldu du Maider Osak, Kultura teknikariak. Horretarako, XX. mende hasierako Bergarara bidaia egingo dute. "Orduko klase sozialak eta ohiturak irudikatuz eta, batez ere, orduko Inauterietara gerturatuz. Sasoi hartako musika oinarri hartuta, gaur egungoarekin alderatuta oso bestelakoa den jai giroan murgilduko gara", adierazi dute antolatzaileek.

**EGITARAUA**

| | |
|---|---|
| **1. ZATIA** | |
| **Bergarako Udal Musika Banda** | |
| *Euskal festara* | J.M. Usandizaga |
| *Procession of the Sorcerers* | R. Buckley |
| *Pinocchio* (fantasia) | A. Poelman |
| **Bergarako orkestra sinfonikoa** | |
| *La italiana en Argel* (obertura) | G. Rossini |
| *La vida es bella* (soinu banda) | N. Piovani |
| **2. ZATIA** | |
| **Afizionatuen musikak** | |
| *Orain dela 100 urte* | |

Alfredo Gonzalez Chirlaque Udal Musika Bandako zuzendariak azaldu du musikariak garaiko erara jantziko direla, eta protagonistak "baserritarrak eta kaletarrak" izango direla. "Jakin dugu orain dela 100 urte Masterrekan, orain Pertxa elkartea dagoen tokian, sagardotegi bat zegoela", gaineratu du Gonzalez Chirlaquek. Hala, dekorazioa sagardotegietan oinarritua egongo da. Bergarako Pilpira taldekoak dabiltza dekorazioa egiten Aratuste-kontzerturako. Beti bezala, kontzertua Aratusteetako egubakoitzean izango da, 22:30ean, pilotalekuan.

**Sarrera, Magalirendako**

Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengo zatian, Udal Musika Bandak hiru pieza joko ditu: Euskal festara, Procession of the Sorcerers eta Pinocchio. Ondoren, Bergarako orkestra sinfonikoak La italiana en Argel eta La vida es bella lanak eskainiko ditu. Bigarren zatia sorpresa izango dela azaldu du Gonzalez Chirlaque zuzendariak.

Beti bezala, kontzertuan jasotako dirua gai sozialetara bideratuko dute. Aurten, Magali Muruamendiaratz 5 urteko neskatilari laguntzeko izango da dirua. Magali Galizian dago, Foltra izeneko osasun zentroan tratamendua jasotzen.

## Javier Aiestaren erakusketa Aroztegi aretoan dago ikusgai

Beasaingo artistak joan den egubakoitzean zabaldu zuen *Bide batez* margo erakusketa. Erliebe eta material uztarketak egin ditu Aiestak Zabalotegiko erakusketan. Pinturaren esparruan bururatutako esperimentazio plastikoa da erakusketaren ezaugarri nagusia. Kalean aurkitzen dituen gauzei zentzu estetikoa hartu eta margolanetara gehitzen dituela azaldu du artistak. Otsailaren 20ra arte egongo da erakusketa zabalik Zabalotegi aretoan.

## Ikusle guztien gustuko zinema eskaintza aste bukaera honetan

Zabalotegiko aretoan *Fantastico Sr. Fox* animaziozko komedia eskainiko dute domekan, 17:00etan. Eta 19:30ean, eguena, Borja Cobeaga zuzendari den eta Gorka Otxoa protagonista duen *Pagafantas* komedia eskainiko dute. 7 urtetik gorakoendako filma da.

Gaztetxeko zineklubean *American hardcore* musika dokumentala eskainiko dute, domekan, 18:00etan. Eguaztenean, Zabalotegin, *Nothing personal* filma eskainiko dute.

## Color Humano taldeak 'Madibá' lana aurkeztuko du Tartufon

A.E. | BERGARA

Bartzelonatik Bergarara ekarriko dute Color Humano taldekoek euren musika. Tartufon izango da kontzertua, gaur, egubakoitza, 23:30ean.

Fusio, latindar eta rock doinuak egiten dituzte katalanek. 1995ean sortu zuen taldea Jose Capelek, taldeko buruak. Adituek diote teknika bikaina duen taldea dela eta horri esker euren estiloa sortu dutela.

**Gizarte gaiak lantzen dituzte**

Color Humano taldeak azken lana aurkeztuko du Bergaran: *Madibá*. Euren laugarren lana da. 1996an *Moskowa libre* argitaratu zuten; 1997an *Hombre de vida*; eta 1999an *Burundanga*. 2003an taldea desegin egin zen, eta 2009an berriro ere elkartu ziren taldekideak.

**Dark Code bergararrak**

Zapatuan, ostera, heavy kontzertua izango dute Tartufon. Albaceteko Angelus Apatrida eta Bergarako Dark Code taldeek eskainiko dute kontzertua. 23:45ean hasiko da eta sarrera izango da: 12 euro aurrez eta 15 leihatilan.

Angelus Apatrida heavy munduan erreferente bilakatzen dabilen taldea da.




*Madibá* laneko kartela. | GOIENA

## Musika eskolak antzerki tailerra antolatu du datozen hilabeteetarako

Aitziber Garmendia aktoreak emango ditu eskolak zapatu goizetan

A.E. | BERGARA

Antzerki tailerra egingo dute Musika Eskolan martxoaren 12tik apirilaren 2ra. Zapatu goizetan izango dira eskolak, 10:00etatik 13:00etara. Aitziber Garmendia aktore ezaguna izango da tailerreko irakaslea.

Musika Eskolak esperientzia handia du musika formatuan eta era horretako antzezlanetan. Oraingoan, aurrera begirako proiektuetarako eta lan eremu berri bat sortzeko asmoz egin dute apustua.

**15 urtetik gorakoendako**

Antzerki tailerra 15 urtetik gorakoendako izango da. Izena emateko azken eguna martxoaren 4a da. Interesatuek 943 76 57 80 telefonora deitu edo *idazkaritza@bme.e.telefonica.net* helbidera idatzi behar dute.

Kuota 35 euro izango da eskolako ikasle eta bazkideendako; gainerakoendako, 50 euro.



Aitziber Garmendia aktoreak emango du ikastaroa. | GOIENA

**Aitziber Garmendia irakaslea**

Oinarrizko baliabide eta teknikak erakusteaz Aitziber Garmendia aktorea arduratuko da. Aktore gazte baina esperientzia handiko da zaldibiarra. 13 urterekin hasi zen Beasaingo antzerki taldean. Hainbat antzerki lanetan parte hartu du, eta baita hain ospetsuan den ETB1eko *Martin* telesaioan eta *Sukalde kontuak* filmean ere.

**Musika moderno lehiaketa**

Bestalde, musika moderno lehiaketan parte hartu gura dutenek martxoaren 11ra arte dute izena emateko. Apirilaren 10ean izango da.

# Xakea protagonista izango da hilaren 18tik 20ra gaztelekuan

**M.B.** | OÑATI

Xakea protagonista izango da hilaren 18an, 19an eta 20an. Izan ere, xake aste bukaera antolatu dute gaztelekuan. Zale asko ditu xakeak gurean, urtero Gabonetan antolatzen den xake txapelketak erakusten duen moduan. Oraingoan, haratago joan dira antolatzaileak, eta aste bukaera eskainiko diote kirol horri. Bi saio egingo dituzte: hilaren 18an, topalekuan, txapelketa egingo dute, 18:30ean. Jokalariek izena eman beharko dute proba hasi aurretik. Bestalde, hilaren 19an eta 20an gaztetxoenek izango dute aukera txapelketa egiteko, kuboan. Bi egunetan, 17:00etan hasiko dira lehian. Izena egun berean eman ahalko da.



2009ko Gabonetako xake txapelketako parte-hartzaileak. | GOIENA

## Arrano tabernaren otsaileko egitaraua hasteko Arranoaitz eguna ospatuko dute domekan

Arrano tabernako otsaileko egitaraua gertu dute, eta lehen ekitaldia domekan egingo dute: Arranoaitz eguna ospatuko dute. 09:30ean etxafuegoak botako dituzte. Salda eta txorizoa egongo da guztiendako. Gainera, beste bi ekitaldi egingo dituzte otsailean zehar: alde batetik, hilaren 25an –otsaileko azken egubakoitza– Mahaster River taldeak kontzertua egingo du Oñatiko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta. Beste alde batetik, hilaren 27an, haurrendako mozorro tailerra egingo dute.

## Garapen bidean dauden herriendako laguntza eskaera egin daiteke Udalean

**M.B.** | OÑATI

Garapen bidean dauden herriendako dirulaguntza gura dutenek eskaera egin dezakete udal bulegoetan. Deialdia otsailaren 7ko Gipuzkoako Aldizkarian publikatu zuten. Hori horrela, eskaerak egin daitezke martxoaren 9ra arte.

Udalak guztira, ia 129.300 euro onartu ditu 2011rako. Dirulaguntza hori lau ataletan banatuko dute: partidaren %40 (51.712 euro) garapen bidean dauden herrietako bizilagunen osasun baldintzak hobetzera bideratuko dute; %36 (46.540 euro pasa) gizarte izaerako anaikidetasun proiektuetara; %20 (ia 25.856 euro) larrialdietarako; eta %4 (5.172 euro) herriko sentsibilizazio arloko ekintzetarako.

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 27 79 99
ANTZUOLA / BERGARA

## Torturaren kontrako eguna ospatuko dute domekan, hilaren 13an

Oñatiko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak torturaren kontrako eguna antolatu du domekarako *Torturaren kontra kalera aterako gara!* lelopean. Ekintzetan parte hartu gura duten guztiak 14:30ean Arrano tabernan elkartuko dira bazkaltzeko. 19:30ean giza-katea egingo dute Foru plazatik irtenda.

# Energia lantzen dihardute Eskolako Agenda 21en

### Herritarren artean informazioa banatzeko kanpaina egingo dute, eta maiatzaren 21ean aurkeztu

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Herriko ikastetxe guztietako ikasleek energia lantzen dihardute bigarren urtez Eskolako Agenda 21en barruan. Guztira, 1.512 neska-mutiko dabiltza gaia lantzen: Elkar Heziko 513, Txantxiku ikastolako 713, Errekalde herri eskolako 176 eta Zuazola-Larraña institutuko 110.

Iaz, euren ikastetxeetako eta herriko energia kontsumoaren eta erabileraren gaineko diagnosia egin zuten, eta ateratako ondorioen berri eman zieten udal arduradunei osoko bilkura berezi baten.

Bada, oraingo ikasturtean energiaren gaineko kanpaina abiarazi gura dute. Herritarrek energiaren gainean duten informazioa batuko dute; besteak beste, eraginkortasun energetikoaren gainean duten informazioa eta teknologia berriei buruz eta energia berriztagarriei buruz dakitena. "Informazioa zabalduko dute oñatiarren artean eta inkestak egingo dituzte herritarren artean", diote Artelatzekoek. Kanpainaren aurkezpen ekitaldia maiatzaren 11n egingo dute. Lourdes Idoiaga alkatearekin hitzordua egin dute. Era berean, osoko bilkura berean aurkeztuko dituzte ikasturtean landu dituzten gaiak.



Ikasleak udal arduradunei euren ondorioak kontatzen, iazko osokoan. | GOIENA

**Irailean hasi ziren lanean**

Eskola Agenda 21en plangintzak hiru arlo ditu: lehenengo arloan ikastetxe bakoitzaren curriculuma aztertzen dute. Hau da, esku artean darabilten gaia, kasu honetan energia, nola eta zenbat lantzen duten eskola orduetan. Era berean, gai horrekiko lehentasunak zehazten dituzte.

Bigarren arloan, kudeaketa egiten dute. Ikastetxearen diagnosia egin eta ekintza plana zehazten dute. Eta hirugarren eta azken arloan, herri mailako diagnosia egiten dute. Arlo horretan izaten dute Artelatz Ingurumen Zerbitzuak enpresakoen laguntza. "Udalek kontratatzen gaituzte, eta arlo horretan laguntza ematen diegu ikastetxeei. Eurekin biltzen gara eta euren ekintzak aurrera eramateko behar duten laguntza ematen diegu", dio Artelatzeko Arantza Oriak.

Eskolako Agenda 21en dihardute neska-mutikoak irailean hasi ziren lanean. Lehen hiruhilekoan ikastetxe barruko diagnosia eta lana egin dute. Orain, otsailean, herri mailako diagnosia hasi dute, eta martxan jarri gura duten kanpainaren oinarriak lantzen hasiko dira datozen egunotan.

**Dirulaguntza**

Bestalde, Udalak ia 4.200 euroko laguntza jasoko du Eusko Jaurlaritzatik ingurumenarekin lotuta ekintzetarako. Laguntza hori erabiliko dute Artelatz Ingurumen Zerbitzuak kontratatzeko.

**DATUA**

**1.512**
IKASLE

Horiek dira Eskolako Agenda 21ean dihardUten neska-mutikoak.

**ESANAK**

**"Energiaren gaineko inkestak egingo dituzte herrian"**

ARANTZA ORIA | ARTELATZ




KORRIKA

## Herriko Korrika Batzordea lanean hasi da

Oñatiko Korrika Batzordea osatu dute. Lehen batzarra egin ondoren, kultura taldeen artean ahozko deialdia egitea erabaki dute. Gainera, zehaztu dute hurrengo bilera hilaren 16an egingo dutela: 18:30ean kultura etxean; eta Korrika Txikia apirilaren 13an, 14:30etik 16:30era arte. Aurrerantzean, Korrika gurera heldu aurretik antolatuko dituzten ekitaldiak lotzen ahaleginduko dira.

# Mendi irteera bat hilero, abuztuan eta irailean izan ezik

M.B. | OÑATI

Aloña Mendi mendi sailak prest dauka 2011rako mendi irteeren egutegia. Hilero bat egingo dute, abuztuan eta irailean izan ezik. Lehena Toloñora egin zuten urtarrilean. Otsailekoa bailaran hasiko dute: Bergara-Gorla-Irukurutzeta (899 m)-Karakate -Elgoibar izango da. Hilaren 20an egingo dute: 5-6 ordukoa izango da eta 18 kilometro egingo dituzte, 630 metroko desnibelarekin. Interesatuek izena eman dezakete hilaren 17a baino lehen Aloña tabernan. Bazkideek bederatzi euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 12 euro.

## Mendi-eskia

Bestalde, urtean zehar hainbat aste bukaeratan egingo dituzte irteerak Pirinioetara. Horietako lehena hilaren 19-20an egingo dute –Aloñak aurreikusita zuen otsailaren 26-27rako–. Hastapeneko irteera izango da. Lehen etapa –Belagua-Lapakitza (2.108 m)-Lintza– 14 kilometrokoa izango da. Bigarren etapak 16 kilometro eta 1.100 metroko desnibela ditu eta Lintza-Acherito-Selva de Oza izango da.

## Pirinioetara gehiago

2011rako beste hainbat irteera aurreikusi dituzte: apirilaren 9-10ean aste bukaerako beste bat egingo dute. Era berean, abuztuko oporren aurretik eta ondoren Pirinioetara joango dira berriro ere. Dena den, informazio gehiago gura duenak *www.alona-mendi.com* helbidean kontsulta dezake.

### 2011KO MENDI IRTEEREN ZERRENDA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Otsaila 20** | Bergara-Gorla-Elgoibar | **Ekainak 19** | San Millan |
| **Otsailak 19-20** | Mendiko eski irteera | **Uztailak 16-17** | Mendi irteera Pirinioetara |
| **Martxoak 20** | Gorbeiara Sarriatik | **Urriak 16-17** | Belagua-Linza- Selva de Oza |
| **Apirilak 9-10** | Mendiko eski irteera | **Azaroak 20** | Picos de las Nieves |
| **Apirilak 17** | Basaburua-Ultzama | **Abenduak 18** | Ormaiztegi-Izazpi-Zumarraga |
| **Maiatzak 15** | Bakaiko-San Adrian-Zunbeltz | | |

*ITURRIA: ALOÑA MENDI MENDI TALDEA



CCC627 taldeko kideak: *Pollu*, Zubia eta *Txebi*. | CCC627

# Atez atekoaren aldeko ekimenak Zero Zabor taldekoekin gaur

## Gaztetxean egingo dituzte hainbat ekimen

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Zero Zabor taldeak askotariko ekintzak antolatu ditu gaurko, egubakoitza; ikus-entzunezkoak eta musika, besteak beste. Eta bietan ere, atez atekoaren bilketaren aldeko apustua berretsiko dute. *Bosgarren edukiontzirik ez!* eta *Errraustegirik ez!* lelopean hainbat ekintza egingo dituzte aste bukaeran. Gaur, esate baterako, zaborrak egiten duen ibilbidearen gaineko ikus-entzunezkoa erakutsiko dute gaztetxean, 18:00etan. Jarraian, 19:00etan, *La historia de las cosas* delako dokumentala eskainiko dute. Aldarrikapena bukatzeko, 22:00etan kontzertua egingo dute CCC627 oñatiarrek eta Arrasateko Never Surrender taldeak. Sarrerak hiru eurotan salduko dituzte.

Gaurko ekitaldiak iragartzeko kalean ipini dituzten kartele-tan, atez atekoaren aldeko "apustua" egiten du Zero Zabor taldeak. Atez atekoaren eta bosgarren edukiontziaren arteko konparazioa egiten dute. Diote atez atekoarekin %80 birzikla daitekeela eta bosgarren edukiontziarekin, %35 bakarrik. "Atez ateko bilketak edukiontzi bidezko bilketaren antzeko kostua du, eta bosgarren edukiontzia baino merkeagoa da", jarri dute karteletan.

Bestalde, erraustegien gainean diote Gipuzkoakoak "betetzear" daudela, eta horietan 213.000 tona hondakin erre gura dituztela urtero.

## CCC627-ren kontzertuak

CCC627 oñatiarrek kontzertua egingo dute atez atekoaren aldeko ekintzen barruan. Bada, aurretik, 18:00etan, beste zuzeneko bat egingo dute Aretxabaletako Urbeltz tabernan Interprete Desconocido taldearekin.

Bestalde, hilaren 26an, Elgoibarko gaztetxean egingo du zuzenekoa CCC627 taldeak, *Holidays in Bardulia* jaialdian.



PROIEKTUA ETA AURREKONTUA DOAN

Behar duzun OBRA EDO ERREFORMA DENBORA ERREKORREAN egingo dizugu.

ZELAIA OÑATI
www.zelaia.net

41 urte elkarrekin 1970-2011

SUKALDE ETA BAINUAK
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

ALTZARIAK
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99

# Herria gehiegi argiztatuta dago gauetan

## Hainbat gunetan farolen potentzia erregulatzen hasiko da Udala, proba moduan

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Gauetan herrian dagoen argiztapena egokia den jakiteko azterketa lana egitea erabaki zuen Udalak orain dela hilabete batzuk. Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bat erabilita, Consultoria Luminica enpresak egin du ikerketa hori, eta herriko gune gehienetan gehiegizko argiztapena dagoela ondorioztatu du: herriaren %89an, hain zuzen.

### Plazan eta Belorrietan egokia

Ikerketa horren arabera, Herriko Plaza eta Belorrieta auzunea dira argiztapen egokiak dituzten gune bakarrak, herriaren %3. Bestalde, industrialde inguruan, Gipuzkoa eta Gernika plazetan eta Loramendi kalean dagoen argiztapena ez da nahikoa: herriaren %8. Eta herriko gainerako kale eta guneetan argi gehiegi dago. Hala, bada, herriaren %89an gehiegizko argiztapena dago energia eraginkortasunaren gaineko araudi berriaren arabera.

Herriko argiteria publikoa osatzen duten osagai guztiak aztertu dituzte, eta hau ondorioztatu: egungo argiteria publikoa ez dela eraginkorra eta %40 eta %45 artean bakarrik aurrezteko potentziala duela; argindarra erregulatzen duten tresnek, koadroek, farolek eta argindar lineak mantentze-lanak behar dituztela; eta eraginkortasun energetikoa ahalbidetuko duen sistema jarri beharra dagoela, %60 baino energia gehiago aurrezteko.



Aretxabaletako kale nagusiak, gau partean, argiztatuta. | JOSETXO ARANTZABAL

Ikerketa egin duen Consultoria Luminica enpresak jakinarazi dio Udalari proposatutako aldaketak egin eta neurriak hartuz gero, egun 107,69 kilowatt kontsumitzetik biztanleko, 62,61 kilowattera jaitsiko litzatekeela Aretxabaletan. Eta hori Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundeak (IDAE) ezarritakoaren azpitik egongo litzateke; hau da, 2012an 75 kilowatt kontsumitzea biztanleko.

> **DATUA**
>
> **%89**
>
> Herriaren %89 gehiegi argiztatuta dago eta %8 gutxiegi. Belorrieta eta plaza dira argiztapen egokia duten bakarrak: %3.

### Intentsitate murrizketa

Ingurumen zinegotzi Joxe Anjel Antxiak argitu du arrazoi bi egon direla ikerketa hori egiteko: "Batetik, arrazoi ekonomikoa, dirua aurrezteko neurriak har ditzakegun jakiteko. Eta bestetik, iraunkortasunari dagokion arrazoia dago, eraginkortasuna handitu eta energia kontsumoa murrizteko". Hala, bada, herriko argiteria publikoan azken urteotan egindako egokitzapenak hori lortu guran egin dituzte: "Batetik, farolak egokitu dira, ematen duten argi guztia aprobetxatzeko, zerurantz bota beharrean. Eta bestetik, argindarraren tentsioa erregulatzeko herrian ditugun koadroak egokitu ditugu. Lan horien guztien kostua handia izan da, baina gerora aurrezteko asmoarekin egin dira", esan du Antxiak.

Aretxabaletan 27 koadro daude herriko hainbat gunetan banatuta argiteria publikoa erregulatzeko. Azken egokitzapen horiek eginda, tentsioa egonkortzeko eta korrontea murrizteko aukera daukate. Tentsioa egonkortuta farolen lanparak eraginkorragoak dira eta bonbillen bizitza luzeagoa. Korrontearen erregulatzaileak, ostera, argiaren potentzia murrizteko aukera ematen du gura den ordu eta guneetan.

Udalaren asmoa da hainbat gunetan proba egitea potentzia hori jaitsita. Herrian dauden 27 koadro horietatik bostetan hasiko dira, hain zuzen, proba egiten: herriko iparraldeko eta hegoaldeko sarrera inguruetan: Aretxabaleta-Arrasate eta Aretxabaleta-Eskoriatza artean dauden ibilbideetan. Gero, potentzia murrizketa horrek dakartzan ondorioak eta aurrezpenak aztertuko dituzte.

Herritarrak kontzientziatu beharra ikusi dute adituek; izan ere, Europako herri askotan gurean dagoenaren aldean argi gutxi izaten dela gauetan diote.

# Herriko bigarren ibilbidea aurkezteko irteera bihar

## Txakolin eta ardo dastatzea gaur, Loramendirekin

**M.A.** | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak antolatuta txakolina eta ardoa dastatzeko aukera izango da gaur (18:30) Pagaldaixenako lokalean. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako ardo eta txakolinak eskainiko dituzte.

### Bertso afarirako txartelak

Bihar, zapatua, Aretxabaleta inguruko bigarren ibilbide historikoa aurkeztuko du Loramendik: Aretxabaleta-Izurieta-Galartza-Apotzagaetxebarri-Aretxabaleta. Irteera eginda (Herriko Plaza, 09:00) aurkeztuko dute, eta ibilbide hori gertatzen ibili diren toponimia taldeko kideak izango dira bidelagun eta gidari. Azken asteotan bazterrak txukuntzen ibili dira –karobia, uretz iturriak...– eta herritarrei erakusteko gogoz daude.

Otsailaren 25ean, ostera, bertso afaria egingo dute Hibai Gain gastronomia elkartean. Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi izango dituzte afalostea girotzen, bertsoak lagun. Txartelak dagoeneko salgai dituzte Loramendin –udaletxe zaharra, 16:00-20:00– eta Gurea tabernan. Bazkideek 15 euro ordaindu behar dituzte eta gainerakoek, 18 euro.

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39



KURTZEBARRI ESKOLA

# Mendibitzu baserrira bisita

Kurtzebarri eskolako ikasleak Arkarazo auzoko Mendibitzu baserrian izan dira bisitan, *Esnea eta esnekiak* izeneko proiektua bukatzeko. "Ardiak jezten eta gazta egiten ikasi dugu eta bildotsei biberoia eman diegu", azaldu dute neska-mutikoek. Eta hamarretako goxoa janda itzuli dira: etxeko gazta, menbrilloa eta zukua. "Horregatik guztiagatik eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotz-bihotzez, Mendibitzukoei".

## OHARRAK

**LUDOTEKARAKO LAGUNA**
Loramendi elkarteak lagun bat behar du ludotekarako. Arratsaldez izango du lan jarduna (16:00-20:00). Interesatuek lehenbailehen bidal ditzatela curriculumak Loramendira: *loramendielkartea@gmail.com*. Argibide gehiago gura dituenak bertara dei egin dezala: 943 77 09 70.

**IPUIN KONTAKETA**
Zurrumurru taldeak *Zomorroak* ikuskizuna eskainiko die 3 urtetik aurrerako umeei bihar liburutegian (11:30). Debalde da.

**LIP DUB LEHIAKETA**
Etzi, domeka, lip dub lehiaketa egingo dute ludotekan 8 eta 12 urte artekoek (17:00-19:30). Ez dago bazkide izan beharrik parte hartzeko.

**KINTOEN DANTZA SAIOA**
1992an jaiotako neska-mutilek, 60 inguru, dantza saioa egingo dute etzi, domeka, plazan (19:00). Aratuste-domekara bitartean domeka guztietan egingo dute dantzan.

# Zaborraren gaineko argibideak emango dituzte domeketan plazan

Aretxabaleta Zero Zabor talde sortu berriko kideak egongo dira (18:30)

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Sortu berri den Aretxabaleta Zero Zabor taldeak zaborraren gaineko sentsibilizazio eta hausnarketa kanpaina jarri gura du abian gurean. Horren haritik, datozen hiru domeketan zaborraren gaineko argibideak emango dituzte Herriko Plazan. Hala, bada, etzi, hilak 13, sortzen dugun zaborraren konposaketa zein den eta nola biltzen den erakutsiko dute, besteak beste. Gainera, hara joaten diren herritarrei erronka botako diete: "Aretxabaletan sortzen dugun zaborrarekin Iturrigorri pilotalekua lepo betetzeko zenbat denbora beharko genukeen galdetuko diegu".



Pilotalekua zaborrez beteta adierazten duen muntaia. | ARETXABALETA ZERO ZABOR

### Herriko Plazan argibideak

Iaz azaroan Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduak egindako *Hondakinek badute irtenbidea* hitzaldiaren ondoren elkartu dira hainbat herritar Aretxabaletan, eta Zero Zabor taldea sortu. "Hondakinen kudeaketa gero eta konplexuagoa dela ikusten dugu, gero eta material desberdin gehiago erabiltzen dugulako eta, batez ere, gero eta zabor gehiago sortzen dugulako", diote. Gainera, birziklatzen dela esan arren, gaika hiri hondakinen %23 bakarrik biltzen direla diote, "%85 inguru denean birziklagarria".

Zero Zabor mugimenduaren helburua zein den argitu dute: "Lurra eta ingurumena zaintzea eta osasuna ez kaltetzea helburu duten praktikak sustatuko dituzten politika aurrerakoiak gauzatzea, herritarrok ardatz hartuta, hondakinak ahalik eta gutxien sortzeko konpromisoak lehenetsiz, eta murrizketa, berrerabilpena, birziklapena aplikatuz, azken tratamendurako zero zabor gelditzeko".

Horren guztiaren berri eman eta herritarrak hausnarketara bultzatuko dituzte datozen asteotan, domeka arratsaldeetan (18:30). "Zaborraren nolakotasuna –kopuruak, birziklatzen den portzentajea…–, sortzen dugun zaborrak non bukatzen duen eta zabor hori kudeatzeko moduaren inguruan informazioa emango dugu". Gainera, bi horma-irudi jarriko dituzte plazan.

### Antzuolarekin bat

Ildo horretatik, Debagoieneko Mankomunitateak zaborraren kudeaketaren gainean hartutako erabakia begi onez ikusten dutela jakinarazi dute: "Antzuolan egin bezala, Aretxabaletako Udalak ere erronka horri eutsiko diola espero eta nahi dugu".

Argibide gehiago gura duenak edo taldearekin harremanetan jarri, Facebooken dauka aukera *Aretxabaleta Zero Zabor* bilatuta. Eta posta elektronikoa ere badute: *aretxabaletazerozabor@gmail.com*.

# Herritarren iritziekin osatu gura du programa Ezker Abertzaleak

Galdetegia banatuko du etxeetan egunotan

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Ezker Abertzalea maiatzeko udal hauteskundeak gertatzen dabil eta herri programa zehazteko egingo duen herriaren azterketa aretxabaletarrekin osatu gura du. Hala, *Zure ahotsa, gure hitza!* leloarekin ekimen bi egingo ditu datozen asteotan.

20 galderako galdetegia jasoko dute herritarrek etxean datorren astean. Horren helburua da herritarren behar eta kezkei molde abertzale eta ezkertiarretik irtenbideak proposatzea gero. Galdetegi hori Urbaltz tabernan eta elkartean eta udaletxe zaharrean jarritako postontzietan utzi beharko da. Gainera, hilaren 23an, eguaztena, Mitarte kalean izango dira Ezker Abertzaleko kideak otsaileko ekimenen berri eman, galdetegiak jaso eta edozein eratako zalantzak argitzen.

### Urkulu, kirola eta kultura

Bestalde, otsailaren 26an, zapatua, *Boteprontoan*. *Aretxabaletaren gaineko sentipenetatik, herriaren gaineko azterketa osatzera* ekimena egingo dute. Aretxabaletarrak herriaren gainean dituzten sentipenak konpartitzera gonbidatu gura dituzte, eta Urkulu, kirola eta kultura izango dira landuko dituzten gaiak. Arkupen elkartuko dira (11:00), lehenengo talde txikitan eta gero, elkartutako guztien artean iritziak trukatu eta ondorioak aterako dituzte. Herriaren azterketaren berri, ostera, martxoan emango du Ezker Abertzaleak.

# Gernikako Akordioa herritarrei aurkeztuko diete hilaren 18an

M.A. | ARETXABALETA

Gernikako Akordioaren berri ematen dabiltza azken hilabeteotan herriko hainbat eragile eta alderditako ordezkariak, tartean Eusko Alkartasuneko, Ezker Abertzaleko, Aralarko eta Alternatibako ordezkariak. Herriko hainbat elkarte eta taldetako ordezkariekin egin zuten bilera orain dela aste batzuk, eta, akordioaren berri emateaz gain, ekarpenak egiteko aukera eskaini zieten. Kalean ere hainbat egunean ibili dira argibideak eman eta zalantzak argitzen.

Orain, herritarren aurrean aurkeztu gura dute bake bidean sortutako ekimen hori, eta ekitaldia otsailaren 18an, egubakoitza, izango da, Arkupe kultura etxean (19:00).

### Sinadurak jasotzen

*Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa* izenarekin abian jarritako ekimenak zer dioen argitzen dabiltza azarotik hona gurean, eta azken pausoa herriko elkarteetako ordezkarien atxikimenduak jasotzea izan da. Aretxabaletarrek ere badute aukera Gernikako Akordioari babesa emateko. Hala, bada, sinadurak jasotzen dabiltza, eta, beste toki batzuen artean, Arkupe kultura etxeko harreran eta Belar Meta jantzi-dendan dituzte sinatzeko paperak.



ODILO VAZQUEZ

## Vazquez hirugarren Gipuzkoan

Gipuzkoako karate txapelketa jokatu dute Lasarten eta Odei Vazquez hirugarrena izan da senior mailako –67 kiloz azpikoak– kumite modalitatean (argazkian, Bergarako Joseba Izurrategirekin).

Otsailean beste bi txapelketatan hartuko du parte UDAko karatekak: hilaren 19an autonomia erkidegoen arteko ligan eta hilaren 27an Euskadiko txapelketan. Biak Gasteizen jokatuko dituzte.

PIENSOS UNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

# Aizkorri-Aratzek kezkatuta ditu baserritarrak

Parke naturaleko zuzendariak hitzaldia egingo du hilaren 17an, horren gaineko azalpenak emateko

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Aizkorri-Aratz parke naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planarekin eta Natura Baliabideak Antolatzeko Planarekin arduratuta daude udalerriko baserritarrak. Gai horren gainean dagoen "informazio falta" salatu dute, eta azalpenak emateko eta azal daitezkeen zalantzak argitzeko hitzaldia dago eguenean, hilak 17, kultura etxean, 19:00etan. Parkeko zuzendari Iraitz Zubeldiak parte hartuko du horretan.

Eskoriatzarrek hitzorduaren berri izan dezaten gonbidapena banatuko dute, egunotan, parkeak eragina izango duen elizate eta auzoetako baserrietan; araudiaren barruan sartuta dauden Aretxabaletako auzoetan ere banatuko da, zalantzak izanez gero hitzaldira joan daitezen. Lurjabe, artzain, ehiztari, mendizale, mendi bizikletazale edo, besterik gabe, interesatuta daudenak daude gonbidatuta.

**Mugak zehaztu barik**

Araudi berriaren gainean dagoen kezkaz berba egin dugu Mendiola eta Bolibar elizateetako alkate Iñaki Madinabeitia eta Iñaki Kortazarrekin, hurrenez hurren, eta Lete auzoko alkate Bernabe Aperribairekin. Kortazarrek horren gainean dagoen "informazio falta" salatu duen neurrian, Madinabeitiak gaineratu du plan horietan ez direla "guztiz" zehazten zer-nolako mugak ezarriko diren.

Hainbat zalantza jarri dituzte mahai gainean hirurek. Orain arte etxerako egurra egiteko mendian jausita zegoen zuhaitza baimen barik hartu izan dute eskoriatzarrek. Hemendik aurrera zelakoa izango den ez dakite. Horrez gain, parke natural barruan sartuta dauden bideen mantentze-lanak orain arte herritarren ardura izan direla gogorarazi dute. Horren harira, galdetu dute osterantzean ere euren esku egongo ote den zeregin hori, bide horietan edonor ibiliko bada ere. Bestalde, landatu ahal izango diren zuhaitz eta mendian eduki ahal izango diren animalia moten harira ere kezkatuta daude; baita ehizatzeko eta arrantza egiteko mugekin ere.



Ezkerretik, Iñaki Madinabeitia, Bernabe Aperribai eta Iñaki Kortazar. | M.B.

**ESANAK**

**"Parkea doanik ez dakiten baserritar asko daude"**

**IÑAKI KORTAZAR** | BOLIBARKO ALKATEA

**Alegazio epea pasatuta**

Kortazar eta Aperribairen esanetan, "parkea doanik eta hori nondik nora doan ez dakiten baserritar asko daude oraindik; baina ondorioak etorri, etorri egingo dira". Horren harira, Madinabeitiak gogorarazi du plan horiei alegazioak aurkezteko epea aspaldi pasa zela eta gutxi enteratu zirela: "Araudiak argitaratuta egon dira eta alegazioak egiteko epea egon da. Baina Interneten edo Aldizkari Ofizialean agertuta baserritarrak ez doaz hori irakurtzera".

Parkeko zuzendari Iraitz Zubeldiarekin harremanetan jarri gara, eta, haren esanetan, "asmoa da araudia labur azaltzea eta gero, ahal den moduan, euren dudak argitzea".

---

**NIRE USTEZ**

**TXOMIN AZPITARTE**



## Agurra Olazar elkartetik

Lerro hauen bitartez Olazar erretiratuen elkartea eskoriatzarrak mugiarazteko dagoela gogorarazi nahi dut, eta horiek dituzten interesekin arduratu. Gazte eta bestelako arloak, gainera, ez ditugu ahazten, eta eurekin elkarlanean badihardugu.

Hau esan ostean, erretiratuta dauden herritar guztiak gonbidatu nahi ditut elkartetik gertatzen diren askotariko ekimenetan parte har dezaten. Baina, parte hartzeaz gain, gustura hartuko genituzke aipamenak eta iritziak, egunerokotasuneko zeregina hobetze aldera. Oharkabean ez pasatzea bilatzen du horrek, gizarte honetan garrantzitsuak gara-eta. Azkenaldiko gertaerek, behintzat, hori erakusten dute; horren harira, pentsionistei ematen ari dieten protagonismoa baino ez da aipatu behar.

Aisialdirako denbora asko daukagu; guk ustiatzen dugu hori eta horren harira, ezinbestekoa da jardunean egotea, hala nola paseatzen, baratzean egonda, igerilekura joanda, bestelako elkarteekin kolaboratzen edo bidaiatzen. Horretarako, bidegorriak, mendiak edo parkeak ditugu. Baina horiek modu onean egon behar dute.

Askotan kexu gara hiri-altzaria ez dagoela modu onean; horregatik, gure Udalari egoera txarrean dauden guneak edo aparatuak konpon eta manten ditzatela eskatu nahiko nioke. Horrekin, guztiondako erosoagoa eta politagoa den Eskoriatza lortuko genuke.

---

## Aratusteetako karrozak egiteko lokala gertatu dute

**M.B.** | ESKORIATZA

Udalak eta Debagoieneko Industrialdeak utzita, Aratusteetarako karrozak gertatzen joateko pabiloi industriala jarri dute herriko koadrilen esku. Udalak jakinarazi duenez, Torrebason dago hori, eta hainbat karroza gordetzeko lekua du.

**60 euroko fidantza**

Interesa dutenek kultura etxera jo behar dute lagatze hitzarmena sinatzeko eta 60 euroko bermea jartzeko. Epea amaitzen denean eta lokala egoera onean dagoela ikusitakoan, bermea itzuliko zaie. Horren gaineko informazio gehiago eskuratu gura dutenek 943 71 46 88 telefono zenbakira dei dezakete.

---




MIRIAN BITERI

## Ibarraundiko sarrera, ederragoa

Itxura berria du Ibarraundi museoko sarrerak. Asteon erreka ondoko bide bazterrean harri handiak jartzen ibili dira. Hormatxo horren bidez, museoko sarrera txukundu egin nahi izan dute, AP-1 autobideko irteera eta biribilgune artean zegoen zubiaren harriekin. Ingurune horretan obrak egin zirenean, hortik kendutako harriak gorde egin zituen Udalak, eta, esan bezala, asteon ibili dira horiekin hormatxoa egiten.




---

**OHARRAK**

**UMEENDAKO ZINEMA ETZI**

Etzi, domeka, umeendako zinema egongo da Ibarraundi museoan. *Axterix joko olinpikoetan* izeneko filma ikusi ahalko dute umeek, euro baten truke. Proiekzioa 17:30ean hasiko da, euskaraz izango da eta bi ordu inguru iraungo du.

**GAZTELEKUKO EKIMENAK**

Bihar, zapatua, kandelagintza ikastaroa egingo dute gaztelekuan; etzi, berriz, zinema foruma izango dute toki berean.

**UR ETA ESTOLDERIA TASA**

Iazko laugarren hiruhilekoari dagokion estolderia eta ur hornikuntzen tasa ordaintzeko aukera dago martxoaren 10era arte.

**IBILBAILUEN ZERGA**

Dagoeneko zabalik dago trakzio mekanikoko ibilgailuen 2011ko zerga ordaintzeko epea. Borondatez ordaintzeko epea atzo hasi zen eta apirilaren 10era arte izango da.

**ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK**

Ohikoa den moduan, kirol hitzorduak ditugu aste bukaeran Intxaurtxuetan. Bihar, zapatua, 16:00etan, ohorezko ligako areto-futbola dago, Eskoriatza eta Izarobe artean. 18:00etan, saskibaloiko lehia egongo da seniorretan; etxekoek Krafft hartuko dute.

# Armarria aldatzeko ideia lehiaketa deituko du Udalak

Eskolako patioaren erabilera araudia ere onartu zuten ohiko osoko bilkuran

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Nabarralde elkarteak 2009ko urtarrilean eskaera aurkeztu zion Antzuolako Udalari herriko armarrian agertzen diren Belateko kanoien gainean hausnarketa egin eta armarritik ken zitzan. Kanoi horiek 1512ko gaztelarren konkistaren adierazle direla zioten Nabarraldekoek. Eskaera hori egin ondoren herrian hitzaldiak egin ziren eta ondoren, Udalak Aldundiarekin elkarlanean parte-hartze prozesua bultzatu zuen. Parte-hartze prozesu horren ondorioa izan zen armarrian jasotzen diren irudiak egungo balioekin bat ez datozela eta armarria aldatu egin beharko litzatekeela.


Udaletxearen fatxadan dagoen harrizko armarria ez da aldatuko. | USOA AGIRRE

Armarria aldatzeko lehen pausoa eguaztenean eman zuen udalbatzak, ohiko osoko bilkuran. Bertan, 1979an Gipuzkoako Batzar Nagusiek aho batez onartutako mozioa aurkeztu zuen Udal Gobernuak. Mozio harekin, Gipuzkoako armarritik Belateko kanoiak kentzea onartu zuten Batzar Nagusiek. Hala, mozioaren irakurketaren ondoren, Antzuolako udalbatzak aho batez onartu zuen armarriko kanoiak kentzea onestea. Adierazpen hori egin ondoren, armarriaren aldaketa prozedura onartu zuten, aldeko bederatzi botorekin eta abstentzio batekin (Basili Ormazabal, EAJ).

**Ideia lehiaketa**

Udalbatzak onartutako prozeduraren arabera, ideia lehiaketa deituko du Udalak, Antzuolako armarria eta irudi korporatiboa aldatzeko. Ideia lehiaketa horren oinarrietan jasoko dira parte-hartze prozesuan lehenetsi zituzten balioak: euskara eta herri euskara; antzuolartasuna; alardea; herri sentimendua; elkartasuna herri mailan; eta boluntariotza. Egun batzuk barru deituko dute lehiaketa.

Behin lehiaketako epeak bukatuta, proposamen egokienak udalari helaraziko zaizkio. Udal ordezkariek jasotako proposamenen balorazioa egin eta hurrengo pausoak definituko dituzte.

## Patio estalia: kirolerako eta jolaserako

Eguazteneko bilkuran eskolako patioaren erabilerari buruzko araudia ere onartu zuten, aho batez. Araudian oreka mantendu nahi izan dute jolasgune eta kirolgunearen artean.

Eskola orduetan eskolaren erabilerarako izango da patioa; 19:00ak arte lehentasuna izango dute 12 urtetik beherakoek; eta 19:00etatik 22:00etara erreserbatzeko aukera egongo da.

# 'Antzuolako aditza' liburuxka: nola idatzi eta nola esan jakiteko

U.A. | ANTZUOLA

Badihardugu euskara elkarteak *Antzuolako aditza* izeneko lana argitaratu du. Lan hori proiektu baten zati da: 2005ean Oñati eta Eibarko aditz-taulak liburuxka banatan kaleratu zituzten, eta ordutik hona Deba ibarreko beste sei argitaratu dira: 2006an Bergara eta Elgoibarkoak; 2007an Elgetakoa eta Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagakoa; eta 2008 eta 2009 urteetan Soraluze eta Mallabikoak.

Proiektuaren asmoa da bailara osoko 17 herrietako aditz-taulak osatu eta zabaltzea. Orain, *Antzuolako aditza* argitaratu da. Bertan, ahoz gehien entzuten diren formak jaso dira, eta aditz forma horiek idazteko orduan erabiltzeko ere badira. Jone Larrañagak idatzitako *Antzuolako hizkera* liburua izan da lanaren iturria, eta Maripi Laskurain eta Badihardugu euskara elkartea izan dira koordinatzaileak.

**Paperean eta Interneten**

Aditz-taula biltzen duen liburuxka paperean argitaratuta dago, eta nahi duenak eskuragarri izango du udaletxera edo liburutegira joanez gero. Bestetik, Internetetik ere eskura daiteke lana, PDF formatuan: *www.antzuola.com* eta *www.badihardugu.com* webguneetatik jaits daiteke.

# Aratuste-domekan plazan dantza egiteko entseguak martitzenetan

U.A, | ANTZUOLA

Aurten Aratusteak martxoaren 6an, domekan, ospatuko ditugu Antzuolan. Urtero moduan, goizean, batetik, sorgin-dantza egingo dute; eta, bestetik, nahi duten herritar guztiek parte hartzeko dantza egingo da. Dantza horretan parte hartzeko entseguak datorren astean hasiko dituzte.

Aurten inoiz baino dantza errazagoa izango dela adierazi dute Oinarin dantza taldekoek; jai giroan egin ohi diren dantza herrikoiak aukeratu dituzte. Martitzenean egin zuten lehen bilera eta Patxi eta Konpainia taldearen bideo batzuk ikusi zituzten. Hortik aukeratutako dantza batzuk egingo dituzte, bi edo hiru.

**20:15ean Torresoroan**

Dantza entseguak martitzenetan izango dira, martxoaren 6ra bitarteko martitzen guztietan. Torresoroako aretoan izango dira entseguak, 20:15ean hasita. Oinarinekoen esanetan, dantza erraza izanik nahiko denbora dago entseatzeko eta herritar guztiak animatu nahi dituzte entseguetara joan eta Aratuste-domekan plazan dantza egin dezaten.

## OHARRAK

**ODOL EMAILEAK**

Joan den astean odol ematea egin zen Olaranen. 78 lagunek eman zuten odola eta horietatik hiru berriak izan ziren. Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete odola eman zuten guztiei. Hurrengo odol ematea: maiatzak 19.

**KZGUNEKO IKASTAROAK**

Otsailaren 8an, 15ean eta 22an egongo da tutorea KZgunean, 09:00etatik 13:00etara. Interneten gaineko ikastaro asko egin ahal izango dituzte 16 urtetik gorakoek.

**FUTBOLA**

Antzuolak Intxurreren kontra jokatuko du zapatuan, 16:00etan, Eztalan. Antzuola bosgarren dago sailkapenean eta Intxurre, berriz, hamabosgarren.

**PILOTA**

Gaur, egubakoitza, 20:00etan, larruzko paleta partidua jokatuko dute Olaldekoek Oiartzungo Txost 1en kontra. Zapatuan Gipuzkoako eskolarteko txapelketa jokatuko da, 16:00etan hasita.

# Pilatesa ezagutzeko doako ikastaroak egingo dituzte, astelehenean hasita

U.A. | ANTZUOLA

Hilaren 14an, 16an, 21ean eta 23an, astelehen eta eguaztenetan, eta 15ean, 17an, 22an eta 24an, martitzen eta eguenetan, pilatesa ezagutzeko doako hastapen ikastaroak eskainiko dituzte Antzuolako gimnasioan. Astelehen eta eguaztenetan goizez, 11:15ean hasita; eta martitzen eta eguenetan, berriz, arratsaldez, 17:30ean.

**Pilatesaren onurak**

Giharrak indartu, malgutasuna hobetu, bizkarrezurra gogortu, gorputz-jarrerak hobetu eta giharren desorekak zuzentzen ditu pilatesak, gimnasioko arduradunen arabera.

# Batzordea osatu dute herrian, aurten egingo den Korrikarako ekintzak lotzeko

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Dagoeneko bi batzar egin ditu herrian Korrika Batzordeak. Azkena asteon egin dute, martitzenean. Bileretan lantzen dira kilometro salmentaren nondik norakoak, diru-bilketa, ekintzak, parte-hartzea, egitaraua... Azken batzarrean, adibidez, Korrika Kulturaleko egitaraua lotzen aritu dira. Beraz, oraindik ere herritarrak garaiz daude proposamenak egiteko. Herriko elkarte, lantegi eta norbanakoei zuzenduta dago batzordea.

Batzordearen hurrengo bilerarako datarik ez zuten jarri. Apirilaren 14an pasako da Korrika Antzuolatik.

**Arin Jatetxea**

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta
(zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**Aitor Larrañaga** | Aramaio Baserri Barri ekimenaren dinamizatzailea

# "Salmenta zuzenerako bideak irekitzea da gure helburuetako bat"

- Kontsumo taldea koordinatzen dihardu Larrañagak
- Saskian bestelako jakiak sartzea da apustua orain




Aitor Larrañaga, ABBren etorkizuneko eraikina atzean duela. | JOKIN BEREZIARTUA

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Udalak deituta, Aramaio Baserri Barriren dinamizatzaile lanetan dihardu Aitor Larrañagak (Azkoitia, 1977). Egun, Aramaioko kontsumo taldea bultzatzen.

**Nola sortu zen Aramaion kontsumo taldea?**

Sorrera Aramaio Baserri Barri ekimenaren barruan kokatzen da. 2010eko urrian sortu zen eta lehen helburua izan zen Aramaioko barazkiak kontsumitzen hastea. Hileroko kuota bat ordainduz [60 euro] astero saski bat jasotzea zen hasierako asmoa. Bost ortu bisitatu genituen eta baserritar bat berehala hasi zen hamar lagunendako barazki-otzarak prestatzen. Beste bi baserritarrak landaketak egiten hasita daude udaberrian banatzen hasteko. Kontsumo taldearen harira sortutako baratzezainen taldeak udaberrirako 25 otzara banatzen hasteko helburua hartu du eta horretarako ortuak antolatzen hasiak dira talde-lana oinarri hartuta. Egungoez gain, kontsumitzaile berriak sartuko direla espero dugu.

**Pozik dira kontsumitzaileak?**

Hori eurei galdetu beharko diegu, baina gustura nabari dira. Arrasateko Santamas egunean barazkien ekoizpen arloan lehen saria jaso zuen ekoizlea dute hornitzaile, beraz... Talde moduan elikadura osasuntsuaren inguruko hausnarketaren lehen seinaleak eman ditu taldeak. Sukaldaritza ikastaro bat jaso zuten duela bi aste dietista baten eskutik. Otzaran jasoko duten barazkiekin egiteko sei errezeta egiten ikasi zuten.

**Eta orain barazkietatik haratago joateko urratsak hasi zarete ematen.**

Hilabete eta erdi daramate barazkiak jasotzen –sei otzara– eta dagoeneko kontsumitzaileak hasi dira bestelako jakiak eskatzen: arrautzak, esnekiak, haragia... Orain ABBren apustua, beste batzuen artean, hori guztia antolatzea da. Esnezaleen eta kontsumo taldearen lehen harremana ireki da. ABBren eraikinean esnea eraldatzeko linea bat egin nahi da eta garrantzitsua da kontsumituko den produktua definitzea linea diseinatzen hasi aurretik. Kontsumo taldearen eta esnezaleen arteko elkarlana ezinbestekoa da prozesu horretan. Bestelako produktuekin ere harreman zuzena bilatuko da.

**Epe luzerako proiektua da, beraz.**

Egun, barazkiak kontsumitzen dituzte, baina edozein produktutara zabal daiteke. Asmoa da Aramaion kontsumi ditzaketen jakiak Aramaiotik kontsumitzea. Mota ezberdinetako produktuak daude. Batetik, lehengaiak daude, eraldaketarik behar ez dutenak: barazkiak edo esnea... Bestetik, produktu eraldatuak daude: kontserbak, sagardoa, zukua, jogurra, gazta... Eta, azkenik, beste produktu mota bat bereizten dugu: Aramaion ez dagoena; adibidez, olioa, dilistak (lentejak)...

**Zeintzuk dira kontsumo talde bateko kide izatearen abantailak?**

Kontsumitzailearen eta ekoizlearen harreman eta ezagutza zuzenean oinarritutako elkartruke bat den heinean, kontsumitzaileak konfiantza guztia jartzen du produktuan. Ekoizlearendako, bestalde, bitartekari barik saltzeak etekin garbia dakar. Gainera, ekoizpena antolatzen laguntzen diete, ez da soberakinik sortzen.

Garrantzitsuena da salmenta zuzenerako bideak irekitzea eta hori da gure helburuetako bat.

**"Buru barik ekoiztu baino, kontsumo arduratsua sustatu gura dugu"**

**"Hilabete eta erdi honetan harremana zuzena da oso; oraingoz ondo doa"**

## Eraikina, bigarren dirulaguntzen zain

ABBren eraikineko lehen fasea amaituta dago. Bigarren fasea hasteko dirulaguntzen zain daude, eta bitartean eraikina nola antolatu zehazten dihardute: bi solairu izango ditu, 300 metro koadrokoa bakoitza. Lehenean hiru eraldaketa linea jarriko dituzte: fruta zuku, barazkiak kontserba eta esnea gazta edo jogurt bihurtzekoa, hain zuzen. Goian baserritarren formakuntzarako gunea egokituko dute.



ABBren etorkizuneko eraikina, asteon. | J.B.

### "Ilusioz" ekingo diote 2011ko Arabako bertsolari txapelketari; bihar hasiko da, Laudion

Laudion izango da lehen kanporaketa, Basalarrina elkartean (20:30). Inoiz egin den txapelketarik luzeena izango da: bost kanporaketa, hiru finalaurreko eta final handia –Gasteizko Printzipal antzokian, apirilaren 2an–. 30 bertsolarik hartuko dute parte, eta horietatik lau dira aramaioarrak: Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Xabi Igoa eta Iker Agirre. Zazpi epaileak arabarrak dira eta gai-jartzaile taldea sendotu egin da, zortzi kiderekin. Beraz, antolatzaileek "ilusioz" ekingo diote 2011ko txapelketari.

### Etorkizuneko Arabako pilotariek hitzordua dute bihar, 2010-2011ko eskolarteko pilota txapelketan

Eskolarteko pilota txapelketako beste jardunaldi bat jokatuko da bihar Aramaion. Benjamin, alebin eta infantil mailetako pilotariak batuko dira, Arabako txoko ezberdinetatik etorrita. 09:30ean hasiko da txapelketa, eta, Aramaioko bikoteei dagokienez, hauexek dira jokatuko dituzten partiduak: alebin eta infantil mailetan Zaramagako bikoteen aurka lehiatuko dira Ibabe-Herrarte eta Arregi-Bideburu, hurrenez hurren. Alebin B mailan, berriz, Gerrero eta Ganboak Armentiako bikotearen aurka jokatuko dute.



MERTXE MONDRAGON

### 563 euro batu zituzten Vicente Goikoetxea abesbatzakoek

Aramaion ere ohitura dago Santa Ageda bezpera ospatzeko, Ibarran zein gainerako auzoetan. Ibarra auzokoen artean daude Vicente Goikoetxea abesbatzako kideak. 14:00etatik 22:00etara aritu ziren kantuan –talde argazkia 18:00etan atera zuten Arragan, mokadutxoa egin ostean–. Aurten 563 euro batu dituzte: erdia Aramaioko Caritasendako eta beste erdia abesbatzarendako izango da; gastuei aurre egiteko erabiliko dute.

ELGETA

# Askotariko ekarpenak 'Elgeta 2020' prozesu parte-hartzailean

Premia nagusien artean, garraio publikoa eta osasun zerbitzuak zabaltzea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurreko astean, eguenean, izan genuen *Elgeta 2020* hausnarketa prozesu parte-hartzaileak emandako ondorio nagusien berri. Herritarrekin lau lan bilera ireki egin dira azken hilabeteotan, baita hainbat bilera sektorial ere. Bilera horietan, herri eskolako, Maala guraso elkarteko, gaztelekuko, gaztetxeko, Xalbadorpe erretiratu elkarteko, osasun zerbitzuetako eta herriko dendariek hartu dute parte.

Askotariko ekarpenak jaso dira, eta herriak dituen lehentasunezko premien artean nabarmendu dira garraio publikoa eta osasun zerbitzuak zabaltzea.



Bilborako autobusa Elgetan eguazten arratsaldean. | L.Z.

**Garraio publikoa**

Garraio publikoa bultzatzeko apustu handia egin beharra dagoela azpimarratu dute herritarrek. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin garraio sarearen baldintzak negoziatu eta hobetu beharra dagoela argi geratu da.

Garraioarekin lotutako beste ekarpenen artean aipa daitezke Elgetatik Debagoieneko eskualde ospitalera joateko zerbitzu baten beharra eta inguruko herriekin loturak sendotzeko premia. Industrialdeko enpresekin akordioetara iristeko aukerak aztertzeko proposamena ere mahai gainean dago; izan ere, industrialderako garraio zerbitzuek bat egin dezakete herritarren premiekin. Autoak elkarrekin erabiltzeko zerbitzua martxan jartzeko proposamena ere jaso da. Zerbitzu hori Udaletik kudeatzeko aukera aipatu zen; hau da, eskaintzarekin udaletxean zerrenda bat sortzea. Gazteek, bestalde, *mozkor busa* Elgetatik pasatzea eskatu dute.

**Osasun zerbitzuak**

Herrian dauden osasun zerbitzuak mantentzea eta zabaltzea da gai honetan eskaera nagusia. Bestalde, beharra ikusten da bakarrik bizi diren adineko pertsonek eguneko zentroan bazkaltzeko aukera izateko, hartzeko pilulak antolatzeko sistema pertsonalizatuaren erabilera sustatzeko eta laguntza premia duten adinekoendako boluntarioen dinamika sustatzeko. Adin guztietako herritarrak kirol praktikara erakartzea egindako beste ekarpen bat da.

## Garden eta Asmo Txarrak taldeek kontzertua egingo dute gaur, barikua, gaztetxean

Asmo Txarrak taldeko hirukotea Elgetako gaztetxean izango da gaur, barikua. 70eko hamarkadako hard rockean oinarritzen da egiten duten musika, baina badituzte beste estilo batzuetako kantuak ere; pop rocka, funka, rhythm and bluesa, bluesa... Garden taldea ere Elgetan izango da. Musika esperimentala egiten dute. Emanaldia 22:30ean hasiko da. Sarrera hiru euro da.

## Korrika Batzordeak bigarren bilera deitu du; eguaztenean elkartuko dira kultura etxean

Apirilaren 14an Elgetara iritsiko den Korrika 17 prestatzeko elgetarren parte-hartzea eskatu dute Korrikaren bultzatzaileek. Datorren asterako, hilaren 15erako, deitu dute bigarren bilera. Korrika Batzordea kultura etxean elkartuko da, 19:00etan. Ibilbidea zehaztu behar da, kilometroak saldu behar dira, Korrika laguntzaile kanpaina zabaldu behar da...

## Hurrengo aste bukaeran Andoaingo piano jaialdia eta erretiratuendako dantzaldia izango dira

Zortzi elgetar izango dira aurten hilaren 19an eta 20an egingo den Andoaingo piano jaialdian: Maialen Alkorta, Mikele Arkarazo, Egoitz Mañarikua, Aitziber Monterroso, Unai Andres, Ibane Zubiaurre, Maria Sarasua eta Maitena Mañarikua. Erretiratuen urteroko dantzaldia, berriz, hilaren 19an izango da. Gardokiren musika izango da 18:00etatik 20:00etara Espaloian.

## Elgetako Athleticen lagunarteak aurkezpen ekitaldia prestatzen dihardu martxoaren 23rako

Duela hiru urte sortu zuten Intxortako Lehoiak lagunartea. "Denbora luze honetan astia izan dugu gure lagunarteari merezi duen aurkezpen ofiziala prestatzeko", esan dute. Aurkezpen ekitaldia frontoian egingo dute, 19:00etan hasita, eta publiko guztiari zabaldua izango da. "Jokalariak eta zuzendaritza batzordeko kideak etorriko dira, baina oraindik ez dakigu nor".

III. FRONTENIS TXAPELKETA

## Bi norgehiagoka aste bukaeran

Bi norgehiagokak gizonezkoen txapelketakoak izango dira. Gainerako bikoteek atseden hartuko dute.

| AZKEN PARTIDUETAKO EMAITZAK | |
|---|---|
| Eneko Maguregi-Andoni Elortza/Adrian Gorostiza-Asier Osoro | 25-12 |
| Anartz Agirre-Maider Osa/Mikel Arkarazo-Rebeka Ubera | 25-24 |
| Xabier Ubera-Iban Retolaza/Ander Gorosabel-Mikel Arkarazo | 25-10 |
| Haritz Gallastegi-Eñaut Arantzeta/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna | 25-16 |
| Idoia Serna-Mikeldi Garmendia/Olaia Jimenez-Aitzol Jimenez | 25-18 |

**BIHAR, ZAPATUA, 17:30EAN**

Iban Retolaza-Xabier Ubera/Eneko Maguregi-Andoni Elortza

**ETZI, DOMEKA, 10:30EAN**

Adrian Gorostiza-Asier Osoro/Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga

NIRE USTEZ

SEBASTIAN ARANTZABAL



# Agintariak gure aurka

Beti elkarri mokoka dabiltzan horiek bat egiten dute herritarron aurkako erabakiak hartzeko orduan: CEOE, UGT, CCOO, PSOE, PP edo PNV. Hala, merkatuek eta kapitalak sortutako krisiaren eragina langileok ordaindu beharko dugu. Ez dira errege etxearen edo ejertzitoaren gastuekin sartu, ezta banketxeekin ere. Laguntzak eman zizkieten denon dirutik eta orain irabazi handiak dituztenean, hor konpon!

Pentsioei edo gizarte gastuei aurre egiteko badago bestelako neurriak hartzerik; iruzur fiskalari aurre egin, irabazi handiei eta enpresei zergak igo... ETB, Osakidetza eta Ertzaintza moduan pentsioak ere zergetatik jasotako diruarekin ordaindu daitezke.

Madrilen azkenaldian hartu diren neurriak –lan erreforma, hitzarmen kolektibo estatalak, pentsioen erreforma– euskaldunontzako zama astuna bihurtzen ari dira, herri moduan gure etorkizuna baldintzatuko dutenak. Egoera honen aurrean, Euskal Herriak beharra dauka lehenbailehen bere buruaren jabe izateko; gure ekonomia eta baliabideak pertsonen onurari begira antolatzeko eta ez kapital finantzarioen mesedetan egiten diren politiken menpe egoteko.

Hemen ere gizartearen gehiengoa langileak gara. Nola liteke gehiengo politikoa gure aurkako neurriak hartzen dituzten agintarien eskuetan egotea? Langileok noiz jabetuko gara elkartuta dugun indarraz? Ezin dugu gure babesa gure aurkako legeak onartzen dituzten alderdiei edo sindikatuei ematen jarraitu.

Bada garaia herritar xumeok osatzen dugun gehiengo soziala, gehiengo politiko bihurtzeko. Eraiki dezagun euskal ezkertiarron indar metaketaz gizarte eredu honen alternatiba.

LEINTZ GATZAGA

# Emakumeen Egunari begira kartel lehiaketa deitu du Bideberrik

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Antzuola, Elgeta eta Gatzagak osatutako Bideberri mankomunitateak kartel lehiaketa deitu du Martxoaren 8ari begira. Lanak aurkezteko epea otsailaren 21ean, astelehena, bukatuko da (13:00ak baino lehen) eta Gatzagako udaletxean jasoko dituzte (baita Antzuolan eta Elgetan ere).

**Saria, 500 euro**

Gizarte Zerbitzuak bideratzeko sortutako Bideberri mankomunitateak lehenengoz antolatu du kartel lehiaketa Emakumeen Nazioarteko Eguna gai hartuta. Lanek derrigorrez testu bat izan beharko dute euskaraz (librea), eta, horrez gain, honako leloa ere izan beharko dute: *Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna 2011;* eta Bideberriko logotipoa sartzeko lekua. Edozein teknika erabilita egin daitezke kartelok, eta gehienez ere 50x70 zentimetroko neurria izatea eskatu dute antolatzaileek. Argibide gehiago jaso gura dituenak Gizarte Zerbitzuetara jo dezala: *ongizatea@leintzgatzaga.com*.

Irabazleak 500 euro jasoko ditu saritzat, eta antolatzaileek egoki ikusiz gero erakusketa antolatuko dute aurkeztutako lan guztiekin.

## KZgunean izango da dinamizatzailea astelehenean

Pilar kalean dagoen KZgunean izango da Aitor Madrid dinamizatzailea datorren astelehenean, hilak 14. Goizean egongo da (09:00-13:00), eta 16 urtetik gorakoek hainbat ikastaro egiteko aukera izango dute: sare sozialen gainekoak, wi-fi sistemaren berri ematen duena, Google tresnen gaineko argibideak…

## Zaborraren tasa ordaintzeko epea zabaldu dute

2011ko lehenengo sei hilabeteari dagokion zabor bilketa, garraio eta tratamendu zerbitzuaren tasa ordaintzeko dei egin du Udalak.

Ordainagiria helbideratu gabe dutenek martxoaren 10a bitartean pasatu behar dute udaletxeko zerga-bilketa bulegotik ordaintzera; gainerakoei kontutik pasatuko diete.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

URTARRILEKO IRABAZLEAK

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

IRABAZLEA
LIBURU SORTA BAT
Pamiela etxearen libutu sorta bat
PAMIELA
Joxe Mari Muxika Arrieta
Arrasate

IRABAZLEA
UMEENTZAKO PUZZLEA
Umeentzako puzzlea
Ikastolen Elkartea
Karmele Korta Mendiguren
Arrasate

IRABAZLEA
REALEKO MATERIALA
Realeko motxila eta bufanda bat
Izar Ijurra Goñi
Arrasate

IRABAZLEA
ERREMEIXUAK DVD-A
Erremeixuen DVD-a.
kutxa
goiena
Bergarako Udala
Aitziber Astola Elortza
Arrasate

IRABAZLEA
EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Euskal Selekzioko zira bat
EKFB
Josune Lopez de Bergara
Arrasate

AZAROA-URTARRILA
SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATU DA
26 HAZBETEKO TELEBISTA
Eusebio Errasti Amozarrain
Arrasate
EROSKI

ATLETISMOA

**Jonathan Perez** | Pertika jauzilaria

# "4,95 metroko jauzia egitea espero dut Valentziarako"

- Pista estaliko Gipuzkoako urrezko domina lortu du aurten, hamabigarrenez
- Domekan Euskadiko txapelketa eta hurrengoan Espainiakoa, Valentzian

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Gipuzkoan ez du parekorik eta orain Espainiako txapelketara begira dago Jonathan Perez (Arrasate, 1981). Valentzian izango da proba, hurrengo asteburuan. Aurretik, baina, Euskadiko txapelketa izango du domekan, Anoetako belodromoan.

**Hamabigarrenez lortu duzu Gipuzkoako onena izatea. Noiz arte Jonathan Perezen agintaldia?**

12 urte dira Gipuzkoan pertikarekin jauzirik handiena egiten dudana. Poztasuna ematen du oraindik; hori bai, lehen urteetan bereziagoa zela ezin dut ukatu. Hamargarren domina lortu nuenean helburu moduan jarri nuen 15 dominaren bila joatea, zenbaki borobilak lortzeko. Oraindik Gipuzkoa mailan aurkari handirik ez izan arren, adinean ere aurrera noa eta gero eta zailagoa da maila mantentzea. Azken asteetan asko zaindu naiz, nire pisua ahalik eta gehien jaisteko. Izan ere, zenbat eta pisu txikiagoa, orduan eta hobeto.

**Dieta bat jarraitu duzu orduan.**

Ahalegin berezia egin dut gorputza zaintzeko. Asteotan nire entrenatzaileari esan izan diot olinpiadetara doazenak ere ez direla horrenbeste zaintzen. Momentu bat heltzen da, ezin duzu gehiago. Gainera, gero eta zailagoa egiten zait kiloak kentzea: 25 urte nituenean bi kilo kendu behar banituen segituan kentzen nituen. Orain nekezagoa da...

**4,91 metro. Ez da marka makala.**

Sorpresa izan da niretako ere. Aurten ere belauneko minarekin egon naiz eta Euskadiko kopan 4,50 metroko jauzia egin nuen. Gipuzkoako txapelketarako pertikak aldatu nituen eta kopako marka hobetzea espero arren –4,85 metro-edo–, ez nuen 4,91ko markarik espero. Gainera, oso ondo gainditu nuen.

**Orain Euskadiko eta Espainiako txapelketa geratzen zaizkizu.**

Bai. Espainiako onenen artean aritzeko 4,95 metroko marka izatea eskatzen dute. Baina hamabi pertsonak ez badute marka hori egiten, rankinga hartzen da aintzat. Hamargarren nago, eta, beraz, Valentzian egongo naiz, seguru.

Hala ere, 4,95ko marka gainditzea espero dut, Valentziara beste ideia batekin joateko.

**Valentziako probaren ostean amaituko da lehia, baina horrek ez du deskantsua esan nahi, ezta?**

Bi aste barru izango da eta orduan amaituko dut pista estaliko denboraldia. Hala ere, entrenatzen jarraituko dut, eta, noski, nire neskekin ere segiko dut lanean.

Malen Ruiz de Azua nirekin etorriko da Valentziara. Maialen



Perez, Mojategiko *kajetina*-ren ondoan, Gipuzkoako dominekin. | JOKIN BEREZIARTUA

## "4,91 metroko marka sorpresa izan da, ez nuen hain marka onik espero"

Axpek ez etortzea erabaki du azterketak dituelako. Entrenatzen jarraituko du, martxoaren 5ean dauka-eta Espainiako txapelketa: bigarrena da rankingean, baina lehena bost zentimetrora dauka. Oraindik badu zer hobetu. Malenek, berriz, Zaragozan du hurrengoa, martxoaren 15ean. Lehena da rankingean eta orain teknika ari gara lantzen. Zaragozara ez goaz markaren bila, beraz.

> **DATUA**
> **5,10**
> METRO, MARKARIK ONENA
> Perezek pista estalian 5 metroko marka dauka; aire zabalean, berriz, 5,10 metro. Biak 2006an lortu zituen.

## "Neguan ez dugu non entrenatu eta kanpora joan behar izaten dugu"

**Aurten ere arazoak izan dituzue entrenatzeko.**

Aire zabaleko denboraldia prestatzeko ez dugu arazorik izaten. Neguan, baina, ez dugu non entrenatu: pista beti dago bustita, hotz handia egiten du eta pertikarekin jauziak egiteko erabat desegokia da.

Negua heldu aurretik Udalari eskatu genion frontoia egokitzeko, baina bertan berrikuntzak egin behar zituztela esan ziguten. Beraz, kanpora jo behar izan dugu baldintza onetan entrenatzeko, Donostiara eta Ermura, esaterako. Datorren urtean, gainera, junior mailako munduko kopa jokatuko da eta espero dut Maialen eta Malen han egotea. Han egoteko beharrezkoa da entrenatzeko gutxieneko baldintzak izatea.

Diru aldetik ere eskas gabiltza: pentsa, Maialenek eta Malenek atletismoko klub ezberdinekin fitxatu zuten iaz eta dirua pertikak erosteko erabili dute.

DUATLOIA

# Espainiako onenekin lehiatuko da Arnaitz domekan, Madrilen

## Denboraldia Valentzian hasi zuen hirugarren eginda; sasoiko dagoela erakutsi du beste behin

JOKIN BEREZIARTUA | ARETXABALETA

Podiumaren altuerarik baxuenean, baina podiumean. Halaxe hasi du denboraldia Beñat Arnaitz Lagunak Saltoki taldeko duatloilari aretxabaletarrak. Joan den asteburuan izan zen proba, Valentziako Manises herrian.

Hurrengo hitzordua domeka honetan bertan dauka, Madrilen, Espainiako Kopan sailkatzeko balio duen proban –domekakoa koparako baliogarriak diren proben artean lehena izango da–. Arnaitzek jakinarazi duenez, duatloilari onenak "ahalik eta lasterren" sailkatzen saiatuko dira. Lehen 25en artean geratu beharra dago eta, Arnaitzen arabera, lehen 10 edo 15ak profesionalak dira. Ez da hori aretxabaletarraren kasua. Izan ere, astean zehar egunero zortzi ordu lan egin ostean aste bukaeretan hartzen du parte probetan.

**Tripetako arazoak gaindituta**

Valentziako probarekin "pozik" dago Arnaitz: "Tripetako arazoekin egon naiz azkenaldian, ospitaleratuta ere egon nintzen, eta horregatik lehen proban ez nekien nola egongo nintzen". Lasterketa gutxigatik ez zuen irabazi: "Korrikan egin beharreko lehen bost kilometro bizien ostean, bizikletarekin talde burua atzean uzten saiatu nintzen baina ez nuen lortu, ezin izan nuen ihesaldia gauzatu. Ez zidaten erreleborik eman eta korrikan egin beharreko azken txanpan igarri nuen bizikletaren gainean egindako ahalegina".

Azken txanpan, beraz, nekea nabaritu zuen duatloilari aretxabaletarrak eta erritmoa zertxobait jaitsi zuen. Edozelan ere, bigarrenarengandik 30 segundo eskasera heldu zen.

**"Gakoa lehen tartea izango da"**

Gaur bertan Iruñean egingo du lo eta bihar arratsaldean hartuko du Madrilerako bidea: "Probako gakoa lehen zatian egongo da, korrikan egin beharreko lehen bost kilometroetan". Gero, bizikletan egin beharko ditu 25 kilometro eta azkenik bi kilometro eta erdi egin beharko ditu korrika.

Esandako moduan, Espainiako duatloilari onenak elkartuko dira Madrilen. 25 onenak sailkatzen dira eta horretarako lau edo bost proba izango dituzte: "Zaila izango 25 onenen artean sartzea, maila oso altua delako, baina domekan behintzat lasterketa ona egitea espero dut".

ESANAK

> "Gakoa lehen zatian egongo da, lehen bost kilometroetan"
>
> BEÑAT ARNAITZ | DUATLOILARIA




Beñat Arnaitz joan den asteburuan, haren aurretik sartu ziren bi lasterkariekin, Valentziako Manises hirian. | GOIENA

FUTBOLA

# Sailkapenean gertu dituzten taldeen aurka jokatuko dute Mondrak eta UDAk

## Arrasatearrek Berio hartuko dute (zapatua, 16:30), eta UDAk Tolosa izango du aurkari (domeka, 16:30)

J.B. | ARRASATE

Etxean jokatuko dutela eta sailkapenean oso gertutik jarraitzen dituzten taldeak direla jakinda, irabazi beharreko partiduak jokatuko dute aste bukaeran Mondrak (25) eta Aretxabaletak (34). Berio (24) eta Tolosaren (32) aurka, hurrenez hurren. Arrasatearrendako etxeko bigarren partidua izango da jarraian eta Real Unionen aurka galdu ostean (1-2), "bai ala bai" irabazi behar dute, Iban Rodriguez entrenatzaileak esan duenez: "Lesioetatik hasi gara irteten pixkanaka eta zigorrekin ere nahiko ondo gabiltza. Lehen itzulian 0-2 irabazi genien eta ez genuen jokalari nabarmenik ikusi, baina azkenaldian oso ondo ari dira etxetik kanpo...". Hala ere, Mondrak duen taldea ikusita, maila mantentzeko ezin dutela sufritu uste du Rodriguezek.




Ilart Etxebarria Mondrako atzelaria, Real Unionen aurkako partiduan. | GOIENA

**UDA, bolada ona eustera**

Azken bost partiduetatik hiru irabazi eta bi berdindu ditu UDAk. Bolada onean daude eta horri eutsi gura diote domekan Tolosaren aurka. Ez da erraza izango, Tolosa behetik gora datorren taldea delako; hori uste du Igor Arenazak: "Entrenatzailea aldatu zutenetik asko hobetu dute eta orain bai direla hasieratik espero genuen talde sendoa eta gogorra. Irabazteko intentsitatez jokatzea izango da gakoa".

IGERIKETA

# Gipuzkoako txapelketa jokatuko da Tolosan

J.B. | OÑATI

Oñatiko igerilari taldeak parte hartuko du zapatu eta domekan Tolosako Usabal kiroldegian jokatuko den Gipuzkoako txapelketan. Goiz eta arratsaldez izango dira saioak eta taldeka zein bakarka lehiatuko dira.

Debagoiena Oñatiko taldeak ordezkatuko du beste behin. Zazpi mutil –bost oñatiar eta bergarar bi– eta 12 neska –legazpiar bat, arrasatear bat eta hamar oñatiar– joango dira. Infantil, junior eta senior mailan izango dira probak, tximeleta, bizkar, bular eta krol estiloetan.

TXIRRINDULARITZA

### Dorletako Ama taldearen aurkezpena bihar, Leintz Gatzagako elkartean

Dorletako Ama txirrindulari taldeak 2011 denboraldiari dagokion aurkezpena egingo du bihar Leintz Gatzagako elkarte gastronomikoan (11:30). Infantil, kadete eta gazte mailan arituko diren txirrindulariak jakinaraziko dituzte. Aurretik Ama Birjinari eskaintza egingo dute eta aurkezpenaren ostean luncha egongo da bertaratutako guztiendako.

PILOTA

### Martxan da Debarroako pilota txapelketa; finala, Antzuolan

Aurten Antzuolako Olalde pilota elkarteari egokitu zaio Debarroako pilota txapelketa antolatzea; Antzuolan jokatuko da final handia. Asteon hasi dira partiduak, senior mailan: Elgetan, Oskarbi I taldeak 22-9 irabazi dio Oskarbi IIri. Eibarren, bestalde, 22-10 galdu zuen Arrasatek Eibarren kontra.

ARETO FUTBOLA

### Irabazi beharreko partidua jokatuko du Eskoriatzak zapatuan

Eskoriatzako taldeak sailkapenean 17 puntutara berdinduta dagoen Sasikoa B Durangoko taldearen aurka jokatuko du bihar, Durangon (17:15). Talde gaztea da, nazional mailan diharduen Sasikoaren bigarren taldea. Denboraldi amaieran lasai ibili gura badute irabazi beharreko partidua da eskoriatzarrendako.

PILOTA

### Arrasateko taldearen bixiguek eta angula kiloak badute jabea

Aurten ere goiz agertu dira Arrasate Pilota Taldeak eta Eguren arrandegiak antolatutako zozketaren sarituak. Gabonetan txartelak saldu ostean agertu dira bi bixiguen eta angula kiloaren jabeak: Kepa Urra eta Lourdes Mugika dira. Sari banaketa gaur egingo dute, Eguren arrandegian (19:00).

ESKUBALOIA

### Eskubaloia izango da protagonista Zubikoan, zapatu eta domekan

Oñatiko Zubikoa kiroldegian eskubaloia izango da protagonista beste behin. Emakumezkoen artean senior mailako Aloña Mendik Jauja Akilape taldearen kontra jokatuko du (zapatua, 16:30). Gizonezkoei dagokienez, berriz, senior mailako taldeak Ordiziako taldea hartuko du (domeka, 12:00).

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
- Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 17 80 46

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
*http://merkatua.net/argiplastik*

**ION LEIHOAK**
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
F: 943 773 120
*http://www.ventaion.com*

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA

# Leihoaren atzean ezkutatzen den istorioa da amodiozko gutunik onena

▸ Idoia Galan santurtziarrak irabazi du Jardun euskara elkarteak antolatutako lehiaketa

▸ Sari banaketa datorren astelehenean izango da, 19:00etan, Bergarako kultura etxean

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Originaltasuna eta euskara erabiltzeko modu dotorea izan du kontuan epaimahaiak amodiozko gutunen lehiaketako sari nagusia ematerakoan. Santurtziko Idoia Galanek eroan du lehenengo saria, 500 euro. Psikologia ikaslea da, Deustuan.

*Ene ametsetako Aviva* da gutunaren izenburua. "Gizon batek emakume bati idazten dion gutuna da", azaldu du Galanek. "Estereotipoak gidatuta, Aviva herrialde arabiar baten, leiho baten atzean bizi den emakumea dela pentsatzen dugu", dio idazleak. "Baina, gutuna aurrera joan ahala, konturako gara Amsterdango *auzo gorrian* erakusleiho baten atzean bizi den emakumea dela Aviva", gaineratu du.

Hain zuzen, originaltasuna eta irakurleari eragiten dion inpaktua nabarmendu du epaimahaiak saria ematerakoan. "Bukaera arte ez da jakiten zela amaituko den gutuna", azaldu du Maitane Arizabaletak, Jardun euskara elkarteko kultura koordinatzaileak. Epaimahaia osatu dute: Ines Osinaga Goseko abeslariak, Itsaso Paia bertsolariak, Gari Berasaluze idazleak eta Juan Mari Agirreurreta iazko irabazleak.

**XIX. edizioa da aurtengoa**

Aurtengoa XIX. edizioa da. Antolatzaileak gustura geratu dira lehiaketak eman duenarekin. "Balorazio positiboa" egin du Arizabalagak, Jardun euskara elkarteko kideak, eta gaineratu du dagoeneko datorren urtekoa prestatzeko "animoz" daudela.

Aurten, 56 gutun aurkeztu dituzte; 43 gutun emakumezkoenak izan dira eta gainerako 13ak gizonezkoek idatzitakoak. Esan behar da saridun guztiak emakumezkoak izan direla.

Bigarren saria Alaine Agirre bermeotarrak irabazi du, 250 euro. Letraz letra irakurri beharreko gutuna da; izan ere, letrekin jokatzen du bermeotarrak. Eta, hain zuzen, letra joko original hori da epaimahaiak baloratu duena saria ematerakoan. "Egunon, printzesa" esanez hasten da gutuna. Alaitzek Itziarri idazten dion gutuna da Agirrek lehiaketara aurkeztu duena.



Itsaso Paia, Juan Mari Agirreurreta, Gari Berasaluze, Maitane Arizabaleta, Ines Osinaga eta Migel Anguel Elkoroberezibar. | JARDUN

## SARITUAK

| SARIA | IZENA | HERRIA |
|---|---|---|
| **Lehenengo saria** | Idoia Galan | Santurtzi |
| **Bigarren saria** | Alaine Agirre | Bermeo |
| **Bergarako onenaren saria** | Elene Etxaniz | Bergara |
| **Gazteen saria** | Deiane Lage | Arrasate |
| **Beteranoen saria** | Jaione Isazelaia | Bergara |

## Ene ametsetako Aviva

IDOIA GALAN
**Lehenengo saria**

*Ezagutu zintudanetik askotan galdetu diot neure buruari nola ikusten ote duzun mundua kristal horren atzetik. Esaidazu, arren, nolakoak dira koloreak hor atzean? Eta geure aurpegiak? Ba al dakizu begiratzen zaitugunik bederen?.... Ezagutzen zaitudanetik askotan pentsatu dut, zure leiho aurretik pasatzen naizenean, sekula ikusi ote nauzun, aditu ote didazun ezpainetatik irten nahian isilik daramadan hitza...*

*.... Zure leihoa munduko gartzela ororen isla da Aviva.*

**(gutunaren zatia)**

**Bergarako euskaran idatzia**

Bergarako gutun onena aukeratzerakoan, Bergarako euskaran idatzita egotea baloratu du epaimahaiak. Elene Etxaniz osintxuarra izan da herriko onena, eta 150 euroko saria irabazi du. Tomaxek Mariri idazten dion gutuna da, eta egunero irakurtzen diona. Izan ere, zahartzaroak alzheimerra ekarri dio Mariri.

**Sari berria: 50 urtetik gorakoa**

Aurtengo nobedadea 50 urtetik gorakoen saria da. Hiru gutun aurkeztu dituzte. Sariduna Jaione Isazelaia izan da, *Aberri maitea* gutunarekin –100 euro–. 26 urtetik beherakoen sailean, ostera, Arrasateko Deiane Lagek eroan du 100 euroko saria.

Sari banaketa datorren astelehenean izango da, otsailaren 14an, Bergarako kultura etxean. Saridun guztiak han egongo dira eta euren gutunak irakurriko dituzte. Ondoren, luncha egongo da ekitaldira joaten diren guztiendako.



GOIENA

**IDOIA GALAN**
IRABAZLEA

## "Ez nuen espero lehiaketa irabaztea"

Oñatiko lagun batek animatuta aurkeztu zuen Idoia Galanek gutuna lehiaketara. Saria sorpresaz hartu duela onartu du santurtziarrak.

**Zorionak!**

Mila esker. Ez nuen espero lehiaketa irabaztea; ezin nuen sinistu Jardunetik deitu zidatenean.

**Ezagutzen zenuen Bergarako lehiaketa?**

Ez, ez nuen ezagutzen. Lagun batek animatuta aurkeztu nuen gutuna lehiaketara.

**Noiztik duzu idazteko zaletasuna?**

Txikitatik idatzi izan dut. Santurtziko Olentzero gutunen lehiaketa bost bider irabazi dut; eta Gurutzetako maitasun lehiaketa ere irabazi nuen behin. Istorio motzak edo gutunak dira idazten ditudanak.



GOIENA

**ELENE ETXANIZ**
BERGARAR ONENA

## "Euskalkian idaztea erabaki dut oraingoan"

Osintxuarrez idatzi du gutuna Elene Etxanizek; eta, hain zuzen, hori baloratu du epaimahaiak. Azkeneko urteetan ere aurkeztu izan da lehiaketara.

**Bertakoa izanda, ezagutuko zenuen lehiaketa.**

Bai, orain dela bi urte lagun batekin batera aurkeztu nuen gutuna eta iaz ere parte hartu nuen.

**Eta euskalkian idatzi duzu.**

Osintxuarrez idatzi dut. Normalean batuan idatzi ohi dut, baina oraingoan euskalkia erabili dut. Gutuna idatzi ondoren aitari erakutsi nion, akatsak zuzen zitzan.

**Espero zenuen lehiaketa irabaztea?**

Ez, ez nuen espero. Esan beharra daukat sorpresa izan dela saria.



Luis Javier Ugarte, Rosa Abal, David Latxaga, Amaia Ibañez eta Pio Ortiz de Pinedo –Eskenako presidentea. | ESKENA

# Produkzio eszenikoen elkarteak 15 urte bete ditu

## Euskadiko elkartean 24 antzerki konpainia daude sartuta; tartean, Bergarako Taun-taun taldea

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Euskadiko produkzio eszenikoen enpresa elkartuak –Eskena– 15 urte bete ditu. Urteurrena ospatzeko, eguaztenean ekitaldia egin zuten Amorebieta-Etxanoko Zelaieta aretoan.

Eskenaren zeregin nagusia ikuskizunen mundua egituratu eta agertokiko sorkuntza garatzeko baldintzarik onenak bilatzea da. 24 antzerki konpainia eta ekoizle batzen ditu elkarteak; tartean, Bergarako Taun-taun antzerki taldea.

### Lan harremanak hobetzeko

Karlos Odriozola Taun-taun antzerki taldeko kidearekin izan gara urte hauetako balorazioa egiteko. "Eskena sortu eta bi urtera sartu ginen gu elkartean", azaldu du Odriozolak. Urte hauetan, batez ere, administrazioarekin harremanak hobetu dituztela azaldu du Odriozolak: "Lan munduko harremanak konpontzeko balio du elkarteak".

Gaineratu du antzerki aretoekin harreman zuzena izaten dutela taldeek: "Antzerki sarearen bitartez harreman zuzena izaten dugu antzerki aretoekin".

### Ez ziren ekitaldian egon

Taun-taun antzerki taldekoak hainbat ikuskizun prestatzen dabiltza, eta horregatik ezin izan zuten eguazteneko ekitaldian egon. Hala ere, kultura munduko hainbat eragile izan ziren han.

### Antzokien arteko sarea

Jon Garai Arrasateko Kultura Saileko kideak adierazi du udaletako kultura sailek harreman oso txikia dutela Eskenarekin: "Eskenan dauden antzerki taldeekin izaten dugu harremana". Sektore profesionaleko elkarte bat izanda, Garaik gaineratu du baliabide egokia dela administrazioarekin tratatzeko.

Bestalde, aretoek Sarea izeneko Euskadiko antzokien sarea dute: "Edukiak konpartitzeko eta katalogo bat sortzeko balio digu antzokien arteko sareak", azaldu du Garaik.






# Agirreazaldegi eta Labaien Beterriko bertsolari finalean

**A.E.** | BERGARA

Beterriko bertsolari finalak debagoiendar kutsua izango du. Izan ere, finalera iritsi diren bi taldeetan ibarreko ordezkariak daude. Alde batetik, Ainhoa Agirreazaldegi bergararra dago Donelutxi taldean; eta, bestetik, Jokin Labaien arrasatearra Donelontxo taldean.

### Finala Villabonan izango da

Finala bihar, zapatua, Villabonako Behar-zana elkartean izango da, 20:30ean. Bertso afaria izango da, eta afarirako txartelak salgai daude 20 euroren truke Andoainen, Villabonan, Asteasun eta Urnietan. Informazio gehiago nahi izanez gero: 656 78 25 21.

### Laugarren edizioa

Manuel Larramendi kultura bazkunak antolatzen du Beterriko bertsolari txapelketa, bertsolari gazteei plaza berriak eta jendaurrean jarduteko eta trebatzeko aukera eskaintzeko. Aurtengoa laugarren edizioa izango da. Esan behar da bertso txapelketa taldeka jokatzen dela.

Lehenengo kanporaketa urtarrilaren 21ean jokatu zuten. Ainhoa Agirreazaldegi, Uxue Alberdi eta Onintza Enbeitaren taldeak lortu zuen finalerako txartela. Bigarren kanporaketan Ander Lizarraldek, Jokin Labaienek eta Unai Muñoak irabazi zuten bihar jokatuko den finalerako txartela.



Agirreazaldegi. | GOIENA



Labaien. | GOIENA

## 'Amodioak eta eza' gai hartuta Jerardo Elortza izango da bihar 'Idazleak irakurle' mintegian

Idazle Eskolak abian duen *Idazleak irakurle* mintegian, Jerardo Elortzak Txomin Agirreren *Garoa* eta *Kresala* lanen gaineko hausnarketa egingo du bihar, zapatua. Mintegia Bergarako UNEDen izango da, 11:30etik 13:30era. *Amodioak eta eza* da aurtengo mintegirako aukeratu duten gaia; hala, euskal testuetan aukeratu dituzte zazpi irakurgai gai hori aintzat hartuta. Hurrengo hitzorduak martxoaren 12an –Yurre Ugarte– eta apirilaren 9an –Miren Agur Meabe– izango dira.



A.E.

## Israelgo gizartearen errealitatea

*El judio errado* liburua aurkeztu zuen martitzenean Alberto Pradillak. Azken bi urteotan hainbat hilabetez izan da Israelen bizi izaten Pradilla idazle eta *freelance* kazetaria; hala, hango gizartearen errealitatea jasotzen saiatu da liburuan. Aurkezpenean, Martxelo Diaz *Gara*-ko kazetaria izan zuen alboan; aurkezpen lana, ostera, Ane Irazabal kazetari arrasatearrak egin zuen.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**Mireia Ignacio** | Ile-apaintzailea

# "Penelope Cruzi apainduko nioke ilea, orrazkera oso klasikoak eramaten baititu"




Mireia, bere lan-tresna eskuan duela.

ANDER MONEDERO

**ANDER MONEDERO** | ARETXABALETA

20 urteko aretxabaletarra da Mireia Ignacio. Goizez Gasteizko Molinuevo estetika eskolan ile-apainketako heziketa-zikloa ikasten ari da eta astean bi arratsaldez Eskoriatzako ile-apaindegi baten egiten du lan. Ikasketak egiten ari den eskolako ordezkari moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko beste ile-apainketa ikasle batzuekin Euskoskills izeneko lehiaketan parte hartu eta irabazi egin zuen. Apirilean, Madrilen Espainiako erkidego bakoitzeko ordezkariekin lehiatuko da.

**Zer da Euskoskills txapelketa?**
Euskal Autonomia Erkidegoko heziketa-zikloetako ikasleen arteko olinpiada da. Ni ile-apainketa ikasle moduan joan nintzen, Gasteizko Molinuevo eskolako ordezkari moduan. Gasteizko, Zarauzko eta Barakaldoko eskoletako sei ordezkari izan ginen, eta, nahiz eta ez espero, nik irabazi nuen.

**Nolako proba egin zenuten?**
Ba, fantasiazko ile-biltze bat egin behar genuen. Tira, hasieran ez nekien zer egin eta ideiak hartzeko aldizkari batzuk begiratu nituen, baina ez nuen ezer argirik buruan. Zerbait deigarria egin nahi nuen eta ondo irten zen, manikiari egindako orrazkera oso ondo geratu zitzaion-eta.

**Denbora luzea behar izan zenuen orrazkera egiteko?**
Orrazkera egiteko hiru ordu eman zizkiguten, ile-apainketa on bat egiteko nahikoa.

**Zer dakar Euskoskills moduko txapelketa bat irabazteak?**
Ikasle batentzat motibazio handia da, erkideko ikasleen ordezkaria izango bainaiz apirilean Madrilen egingo den Spainskills olinpiadetan.

**Horrelako lehiaketa bat egiten den lehenengo aldia da?**
Ez da lehenengo aldia Espainian txapelketa hau egiten dena, baina bai Euskadik erkidego moduan lehiaketa honetan parte hartzen duen lehengoa. Espainiako hemeretzi lehiakide izango gara eta zazpi egunean ile-apainketako probak egingo ditugu.

**Zer-nolako probak egingo dituzue?**
Zazpi proba izango ditugu: ileari kolorea eman, gizon eta emakumeen ile mozketa klasiko eta modernoa, bizarra moztea eta ile-biltzeak.

**Zein da probarik zailena?**
Gizon eta emakumeen mozketak dira probarik zailenak. Epaimahaiak bi argazki emango dizkigu eta argazkietan agertzen den ile-mozketa bera egin beharko dugu. Proba hasten denean emango dizkigute argazkiak, eta, hori lehendik prestatzeko aukerarik ez dagoenez, probarik zailena izango dela uste dut.

**Zerbait berezia prestatzen ari zara?**
Bai, baina zein kolore erabili behar dudan bakarrik erabaki dut. Zerbait deigarria egin nahi dut eta lortu arte lanean jarraituko dut.

**Irabazteko esperantzarik baduzu?**
Ez dakit, ikusi egin beharko da zer-nolako maila dagoen txapelketan, baina niretzako saria da horrelako lehiaketa baten egotea.

**Eta irabaziz gero, zer?**
Ez dut uste Espainiako txapelketa irabaziko dudanik, baina nork daki, Euskadikoa irabaztea sorpresa izan baitzen. Spainskill txapelketa irabazten duenak Ingalaterran Worldskills Europen parte hartuko du eta hori irabazten duenak munduko ikasle olinpiada jokatuko du. Baina hori, niretzat, utopia da.

**Zer da ile-apainketan gehien gustatzen zaizuna?**
Egia esan, dena dut gustuko, baina zerbait aukeratzekotan, kolorea ematea gustatzen zait. Koloreak alaitasuna ematen dio aurpegiari.

**Nori apainduko zenioke ilea?**
Penelope Cruzi.

**Zergatik?**
Ile oso luzea duelako eta, nire ustez, orrazkera klasikoegiak erabiltzen dituelako. Nik ilea apainduko banio, orrazkera nabarmen eta ausarta egingo nioke.

### MARRA AZKARREZ

**Ikasketak:** Ile-apainketa ikasketak egiten ari naiz orain.
**Zaletasun bat:** Musika entzutea.
**Bizi izateko leku bat:** Gasteiz.
**Bidaiatzeko leku bat:** Andaluzia.
**Orrazkera mota bat:** Deigarria den edozein orrazkera.
**Amets bat:** Nire ile-apaindegia izatea.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua. Interesatuok deitu zenbaki hauetara:620 59 86 55 edo 658 72 52 70

**Aretxabaleta.** Duplex atikoa. 125 metro koadrokoa. 60 metroko terraza eta 30 metroko garajea. Egongela handia, hiru logela eta atikora arteko igogailua. zoru erradiatzaile bidezko berokuntza. Ate irristagarriak sukalde, egongela eta terrazarako leihoan. Oso argitsua. Beste etxebizitza bat onar dezakegu ordainketarako. Deitu 670 37 64 01 zenbakira.

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Martoko kalean. Hiru logela, sukalde-egongela eta bainugela. Berritzeko. Merke.Deitu 678 53 40 43telefonora.

**Bergara.** Ibargarain etxebizitza salgai. 88 metro koadro. Leku onean. Hiru logela, egongela, bi komun eta sukaldea. Egoera oso onean. Garajeak aukeran. Deitu 652 76 95 09 telefonora

**Bergara.** Martzial Agirre kalean 105 metro koadroko etxebizitza salgai. Laugarren solairuan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi bainugela. 30 metroko garajea eta 11 metroko ganbararekin. 608 15 45 25

**Elgeta.** 95 metro koadro. Lau logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bi garaje, bina kotxe sartzeko bakoitzean. Ortua. Berritzeko. Merke.Deitu 678 53 40 43 telefonora.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Kalebarrian. 80 metro koadro. 9 urte. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handia. Igogailua. Altzariz hornitua. Garajea aukeran.622 42 83 18

**Oñati..** 84 metroko etxebizitza ederra salgai. 3 gela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Gainera 32metroko loratегia dauka, garaje itxia eta ganbara. Leku aproposean dago, denda eta ikastetxea ondoan baitauzka. Ingurune lasaia eta erdigunea 5 minutura dago.678 71 36 97

**Oñati.** 85 metro koadroko etxebizitza salgai Obispo Otaduy kaleko 13.ean, 2. solairuan. Sukaldea, hiru logela, komuna eta egongela. Dena jantzia eta oso eguzkitsua. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. 169.000 euro.659 05 11 57 edo 630 52 17 89

**Oñati.** 60 metroko etxebizitza salgai San Loretzo auzoan. Bi logela, komun bat eta sukalde -egongela. Jantzia eta berritua. 192.000 euro negoziagarri. Deitu 20:00ak eta 22:00ak bitartean.699 78 47 49

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Eguzki dorrean.647 22 09 38

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldea, bainugela, egongela eta trastelekua. 616 92 55 06

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea.650 56 62 06

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko.695 72 79 55

**Bergara.** Familia batek etxebizitza behar du errentan. Deitu 650 62 12 94 edo 943 08 22 60 telefono zenbakira

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 648 86 05 49 telefono zenbakira.

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Ibargarai kalean. Interesatuok deitu zenbaki honetara:679 74 00 61

### 204. ERRENTAN HARTU

**Eskoriatza.** Erdialdean, hala bada, garajea hartuko genuke errentan.943 79 01 07 (Arantxa) edo 669 90 73 77 (Fran)

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**ARRASATE**
Taberna salgai alde zaharrean. Txikiteo zonan.
666 40 65 19

**ARRASATE**
Erdialdean dagoen taberna salgai. Prezio interesgarria.
671 42 54 32

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lokala ematen da errentan San Andres auzoan. Musika taldeek entseatzeko egokia. 690 95 45 47

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko.669 70 89 36

**ARETXABALETA**
Tabernarako pertsona bat behar da. Euskara baloratuko da.
943 03 66 61
650 22 74 51

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume arduratsua edozein lan mota egiteko gertu, asteburu zein astean zehar. 943 79 60 89

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko prest, esperientziaduna. 618 41 24 79

**Arrasate.** Orduka lan egingo nuke astegun, asteburu zein jaiegunetan. Presazkoa da. Garbiketak, ume edo nagusiak zaintzen, atariak... 682 31 97 37

**Bergara edo Arrasate.** gertu garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko, 15:30etik 21:30era. 677 81 10 00

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. 665 75 41 32

**Bergara.** Orduka lan egingo nuke. Geriatria titulua daukat. Esperientziaduna. Deitu 650 62 12 94 edo 943 08 22 60 telefono zenbakietara.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:**

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 20,5 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

**Bergara.** Igeltsero lanetan edo mendia garbitzeko lanetan aritzeko gertu egongo nintzateke. 663 34 11 55

**Bergara.** Mutil gaztea edozein lanerako gertu. Auto dut. 654 24 13 27

**Debagoiena.** Esperientziadun igeltseroa prest edozein lanetarako, baita garbiketa lanak zein konponketa txikiak egiteko ere. Esperientzia daukat; elektrizitate, estaldura, iturgintzan.. Lan esperientzia daukat baserri eta baso lanetan. Albaro. 648 90 16 47.

**Debagoiena.** Neska lanerako prest: nagusiak eta umeak zaintzeko zein garbiketa egiteko. Lan egin dezaket etxean bertan biziz, orduka edo asteburutan. Gauez ere bai. Erreferentzia onak. Momentuan lanean hasteko prest. 638 93 11 48

**Debagoiena.** Emakume arduratsua edozein lan egiteko eskaintzen da. Lyda. 696 63 97 52

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko prest egongo nintzateke. Beste lan batzuk ere egiteko prest. Auto propioa daukat. Gilberto. 654241327

**Debagoiena.** 26 urteko neska arrasatearrak orduka lan egingo luke, garbiketak, taberna, baserri, edota pertsonak zaintzen. 606 74 42 37

**Debagoiena.** Edozein ordutan eta edozein animalia zaintzeko edota pasiuan ateratzeko prest, jaiegunetan barne. Arrasateko 21 urteko neska gazte eta arduratsua, albaitari ikastaroak egindakoa. Konfiantzazkoa eta animaliazale amorratua.Deitu 679 24 43 42 edo 943 79 78 38 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua gertu edozein lan egiteko. 669 64 76 28

**Debagoiena.** Neska gertu denetariko lanetarako: dendan, arrandegi zein okindegian, jatetxe, taberna, umeak zaintzen, garbitzen. Deitu 605 54 45 34 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen zein sukalde laguntzaile lanetarako. 661 00 46 55

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen zein sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. Baita okindegian ere. 600 81 99 34

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa lanetan jarduteko. Eskarmentuduna. 689 88 80 23.

**Debagoiena.** Emakume sukaldaria gertu gauetan eta asteburuetan lan egiteko. Eskarmentuduna. 619 78 63 41,

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanetarako. Eskarmentuduna. Autoa daukat. 679 04 42 68.

**Debagoiena.** Tabernan zerbitzari edo sukaldari laguntzaile lanetan lan egingo nuke. Autoa daukat. 680 92 59 14

**Debagoiena.** Emakumea gertu asteburu edo gauetan nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Elkarteak ere bai. 699 09 46 26

**Debagoiena.** Emakumea umeak zaindu zein nagusiak zaintzeko gertu, orduka ere bai. 663 65 78 43

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukalde laguntzaile, etxez -etxeko laguntza edo garbiketa lanetarako. 664 50 66 57

**Debagoiena.** Esperientziadun dendari euskalduna arropa denda zein bestelakoetan lan egiteko prest. Telefonoa. 650 13 74 93

**Margoketak.** Etxeak, lokalak eta lantokiak margotzen dituen 3 urteko esperientziadun mutila naiz. Lan ona, azkarra eta merkea egiten dut, deitu galdetzeko lasai asko. Paretak, garbitu, masa heman eta margotzen ditut. Deitu 648 68 24 30 edo 648 68 24 30 zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest pertsona nagusiak zaintzeko. Gainera, klinika laguntzaile titulua daukat. Deitu 646 38 46 81 telefono zenbakira eta Itxasorengatik galdetu.

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. Deitu 647 06 09 97 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua garbiketa lanak eta nagusi edo ume zaintzarako eskaintzen da. Gloria. Deitu 630 26 13 28 edo 943 79 13 88 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila gertu sukaldari, sukalde laguntzaile, menuak prestatzen eta abar jarduteko. Deitu 666 21 88 95 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsona arduratsua nagusien zaintzarako edota etxeak garbitzeko. 688 80 32 03 edo 943 53 37 00

**Emakume gazte** esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu; Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Oñatin edota Bergaran egingo luke lan. 679 59 33 65

**Umeak zaindu eta etxeko-lanak.** 60 urteko emakumea naiz, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Arduratsua naiz, ordenatua eta garbia, eta euskaldun zaharra. Oñatin jaioa. Deitu 945 22 79 48 telefono zenbakira.

**Deba Garaia Inmobiliaria**
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m2, garajearekin.
- Aranerreka, 80 m2, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m2, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m2, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m2, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 m2, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m2, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m2, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m2.
- Martoko, 87 m2, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m2, ondo.
- Ibargarai, 80 m2 oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m2 oso ondo.
- Zabalotegi 80 m2, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m2, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m2, berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m2, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m2, oso ondo.
- Zubieta, 125 m2, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m2, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m2.
- San Antonio, 65 m2, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m2, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m2. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Arrizuri, 90 m2. Terrazarekin. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m2, berria.
- Sagarerreka, 58 m2, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Martoko. 70 m2. Igogailuarekin.
- Basarte. 68m2. Terrenoarekin.
- Artekale 40 m2. Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m2. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m2. Oso ondo
- Mekolalde 110 m2. 90.000 .
- Osintxu. 84 m2. Igogailuarekin. 153.258 .
- Ibargarai 54 m2. Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m2. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m2. Prezio ona.
- Matxiategi 65 m2. Igogailuarekin.
- Ibarra 47 m2. 146.888 .
- Bolu 96 m2. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m2. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m2. 154.761 .
- Aranerreka 80 m2. 189.319 .
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Herri Lagunak 52 m2. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artzamendi. 75 m2. Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m2. Oso etxe ona.

**Elgeta:**
- **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK**: 249.210 tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Ingeleseko ahozkotasuna lantzeko esperientziadun irakasle baten bila nabil. Astean bizpahiru ordu, arratsaldez. Lehenbailehen hasteko. Deitu 665 72 79 38zenbakira.

**Bergara.** Goi mailako sarrera froga egiteko matematika eskola partikularrak emateko prest dagoen pertsona euskalduna behar dut. Deitu 685 75 91 72 telefonora.

**Oñati.** 3.DBHko eskola partikularrak jasoko nituzke. Deitu 617 35 63 53 telefonora.

### 502. EMAN

**Arrasate.** 5. mailako ingenieritza ikaslea Arrasaten eskola partikularrak emateko prest. Deitu 625 74 91 50 telefono zenbakira.

**Bergara.** DBH eta Batxiler mailetan eskola partikularrak emateko neska eskaintzen da.Deitu 630 83 67 19 telefono zenbakira.

**Bergara.** Goizez etxera joanda ingeleseko eskolak ematen ditut. Gurasoei zuzendutako eskolak, ohiko maila lortzeko. Pazientzia handia daukat.Deitu 679 74 00 61 telefono zenbakira.

**Bergara.** Eskola partikularrak emango nituzke. Haur, lehen hezkuntza eta ingelesa. Deitu 645 72 01 50 zenbakira.

**Oñati.** Eskola partikularrak emateko prest Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Deitu 667 52 83 29 telefonora.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Asto arra.** Hiru urteko asto arra, beltza, salgai. Deitu 688 67 84 74 telefono zenbakira

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak.** Dekorazio aldaketagatik salgai: bi plazako sofa -ohea, Ikeako mahaia eta Philips telebista, 19 hazbetekoa, DVD eta guzti. Gazte lokaletarako paregabeak. Oso merke eta egoera onean. Deitu 17:30etik aurrera zenbaki honetara:619 81 70 72

**Bizikletarako kaskoa.** Giro "Encinal Sport" modeloa. Estreinatzeke. Gorria eta beltza. Eguzkitako biserarekin. Erosoa, arina, doigarria. Dendan 71 euro balio du eta nik 55 euroan saltzen dut.639 29 40 11

**Kafe makina.** Nespresso kafe makina. "Essenza Delonghi automatica" modeloa.  Beltza eta zilar kolorekoa. Berria. Abendura arteko bermearekin. Dendan 149 euro balio du eta nik 90 euroan saltzen dut.639 29 40 11

**MP3a.** Samsung YP-Q2 JAB. Erabili gabea. Beltza. Samsungen bermea indarrean. 50 euro.639 29 40 11

**Retroproiektorea.** 42 hazbeteko retroproiektorea saltzen dut, 250 euroan. Egoera oso onean.658 72 09 87

**Sehaskak.** Etxerako sehaska, koltxoi eta guzti, eta bidaiatzeko sehaska salgai. 75 euroan biak. Komun musikala opari.652 74 85 82

**Umeendako kapazoa.** Oso egoera onean dagoen umeendako kapazoa eta aulkia. Arrue Derby modeloa. 180 euro. Zakua opari.652 74 85 82

### 805. TRUKATU

**Bizikleta.** Neurri handiko 2002ko MTB bat (1,90 metro inguruko pertsona) aldatu nahi dut errepideko bizikleta bategatik (neurri handia). Conor WRC 2 , aurreko suspentsioa, pedal automatikoak, nahiko erabilia baina kubiertak, bielak eta koroak berriak dauzka. Erabiltzeko moduan. Dagoeneko maila ertaineko errepideko bizikleta baten bila nabil.648 70 02 07

### 806. GALDU

**Belarritakoa Arrasaten.** Urtarrilaren 28an belarritakoa galdu nuen Portaloia eta Zaldibar artean. Harri beltza eta harritxo zuridun loturarekin. Aurkitu baduzu, deituidazu mesedez.629 40 64 99

**Perla zuri bat duen.** urrezko eraztuna galdu nuen igandean, otsailaren 6an, Arrasateko erdialdean, eguerdi aldean. Bilatu duenak, mesedez dei egin dezala.943 79 29 20

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Gitarrista baten bila.** La Madriguera (Rock -urbano) taldeak gitarrista serio bila. Behar dugun gitarrista denbora izan behar du entseiu eta kontzertuak emateko. Harremanetarako begiratu Myspace orria: *www.myspace.com/losmadriguera* edo deitu zenbaki hauetara:680 48 94 38 (Andoni) edo 646 61 63 29 (Juantxu)

**Sagardotegira irteera.** Martxoaren 12an sagardotegira joateko autobusa betetzeko jende bila gabiltza Debagoienean. Dagoeneko 15 pertsona gaude. Bazkaltzeko joan eta arratsaldean Hernanin egon ondoren gau aldean etxera buelta.686 28 76 80 edo 943 76 59 21

## ASTEA GOIENAN


ELVOCEROUS.COM

### 'Segoviako ihesa' filma ikusgai eguaztenean

Datorren asteko *Tertulia* saioan zinemari buruz hitz egingo dute hiru kolaboratzailek Txomin Madinaren gidaritzapean. Solasaldiaren ostean, Imanol Uribek (argazkian) zuzendutako *Segoviako ihesa* filma eskainiko dugu.

**'Tertulia'**
Eguaztena, 20:45


GOIENA

### Antzuolarren irteera Usurbilgo atez atekora

Antzuolarrek irteera egingo dute zapatuan Usurbilera, bertan atez atekoak nola funtzionatzen duen ikustera. Geu ere bertara joango gara antzuolarrekin batera, eta atez atekoaren nondik norakoak jasoko ditugu.

**'Magazinea'**
Astelehena, 19:45

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 11**

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Ur eta lur
**15:45** Kulturzulo
**16:00** Leku txiki bat
**16:10** Danbaka
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:45** Gipuzkoa kultura
**18:15** Ipupomamua
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Gipuzkoa kultura
**21:15** Goiena Magazinea
**22:15** Danbaka
**23:45** Goiena Magazinea

**ZAPATUA, 12**

**08:00** Marrazki bizidunak
**09:30** 28.Klip
**10:00** Ipupomamua
**10:30** Leku txiki bat
**10:45** Goiena Magazinea
**11:45** Ur eta lur
**12:15** Onein
**12:45** Berriak
**13:00** Kantari
**14:00** Leku txiki bat
**14:15** Marrazki bizidunak
**15:45** Esatea libre
**16:45** Gipuzkoa kultura
**17:15** Kulturzulo
**17:30** Tertulia
**18:30** Ikusmira
**18:45** Danbaka
**19:45** Berriak
**20:00** Goiena Magazinea
**21:00** Nire Herria
**21:30** Gipuzkoa kultura
**22:00** Bi tartean
**22:45** Berriak
**23:00** Danbaka
**23:40** Bertso saioa

**DOMEKA, 13**

**08:00** Klik
**08:35** Leku txiki bat
**08:55** Ipupomamua
**09:20** Marrazki bizidunak
**10:45** Kantari
**11:15** Bertso saioa
**11:45** Iragana gogoratuz
**12:15** Berbetan
**12:55** Ur eta lur
**13:30** Tertulia
**14:30** Onein
**15:00** Berriak
**15:15** Ipupomamua
**15:45** Goiena Magazinea
**16:45** Bi tartean
**17:30** Ikusmira
**17:50** Esatea libre
**18:50** Klik
**19:20** Marrazki bizidunak
**20:15** Danbaka
**21:15** Goiena Magazinea
**22:15** Nire Herria
**22:45** Gipuzkoa kultura
**23:15** Berbetan
**23:55** Esatea libre

**ASTELEHENA, 14**

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:35** Kantari
**14:15** Berbetan
**14:45** Berriak
**15:15** Ikusten
**15:45** Ikusmira
**16:15** Gipuzkoa kultura
**16:45** Berriak
**17:10** Marrazki bizidunak
**17:45** Klik
**18:15** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Harmailatik
**21:30** Goiena Magazinea
**22:30** Harmailatik
**23:15** Gipuzkoa kultura
**23:45** Goiena Magazinea

**MARTITZENA, 15**

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Harmailatik
**16:00** Kulturzulo
**16:15** 28.Klip
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:45** Harmailatik
**18:25** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Danbaka
**21:30** Goiena Magazinea
**22:30** Iragana gogoratuz
**23:00** Goiena Magazinea

**EGUAZTENA, 16**

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:35** Kantari
**14:00** Harmailatik
**14:45** Berriak
**15:15** Onein
**15:40** Bi tartean
**16:30** Leku txiki bat
**16:45** Berriak
**17:10** Marrazki bizidunak
**17:30** 28.Klip
**18:30** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Tertulia
**21:45** Goiena Magazinea
**22:45** Tertulia
**23:45** Ikusten

**EGUENA, 17**

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:10** Nire Herria
**15:35** Bi tartean
**16:10** Ikusmira
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:45** Ipupomamua
**18:15** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Iragana gogoratuz
**21:15** Goiena Magazinea
**22:15** Gipuzkoa kultura
**22:45** Danbaka
**23:45** Goiena Magazinea

## ARRASATE IRRATIA

### El Quinteto de la Muerte entzuteko sarrerak, zozketan

Otsailaren 17an, eguenean, kontzertua eskainiko du El Quinteto de la Muerte taldeak, Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan. Bertara joateko sarrerak ditugu 107.7an. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com*-era.

### Asteari gainbegiratua, asteburuan

Adibidez, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak argitaratu duen liburuaren berri emango du eta Jon Garaik, Kultura teknikariak, kulturgintza arloko elkarlanei buruz hitz egingo du. Hori eta gehiago, zapatuan eta domekan 10:00etan.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 12** | ALBERTO AZCOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Domeka, 13** | M. FCA. AZCOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| **Astelehena, 14** | ANA FDEZ. CORCUERA | Aranbarri plaza, 1 | 943 79 22 26 |
| **Martitzena, 15** | JUAN ANTONIO IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Eguaztena, 16** | LOURDES AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Eguena, 17** | ANA ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Egubakoitza, 18** | AURORA RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 12** | A. URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Domeka, 13** | A. URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Astelehena, 14** | IÑIGO ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Martitzena, 15** | MERCEDES GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Eguaztena, 16** | E. JAVIER ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguena, 17** | L. ALVAREZ-M. MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| **Egubakoitza, 18** | A. URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 12** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Domeka, 13** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Astelehena, 14** | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Martitzena, 15** | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguaztena, 16** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguena, 17** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Egubakoitza, 18** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 12** | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| **Domeka, 13** | DOLORES AGIRRE | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| **Astelehena, 14** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| **Martitzena, 15** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| **Eguaztena, 16** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| **Eguena, 17** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| **Egubakoitza, 18** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2010 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



Max. 16º
Min. 0º



Max. 18º
Min. 1º

**ZAPATUA, 12**
Tenperaturak behera egiten jarraituko du. Egun hodeitsua izango da orokorrean eta euria egin lezake.

**DOMEKA, 13**
Eurirік ez du egingo eta tenperaturak igo egingo dira. Zapatuan baino eguraldi hobea izango dugu.

### EUSKAL HERRIA


Zerua hodeiekin estalita egon arren, eguzki ostarteak ere izango ditugu. Tenperaturak gora egingo du..

## GAZTE INFORMAZIOA

### LANA

**Irurako Udalerako hainbat postu.** Dinamizatzaile soziokulturala, euskara teknikaria, gizarte laguntzailea eta kultura laguntzaileetarako postuak. Epea: otsailak 21.

### LEHIAKETAK

**EH Zuzenean.** EHZk (Euskal Herria Zuzenean) musika lehiaketa antolatu du: Euskal Herria Zuzenean: EHrZ!! Euskal Herriko musika talde guztiei irekitako musika lehiaketa. Epea: otsailak 23.

**Maketak.** Gaztearen XX. maketa lehiaketa. Bakarlari nahiz taldeak. Gutxienez 3 eta gehienez 5 kantu aurkeztu behar dira. Epea: martxoak 7.

**Arteen EMYAN on line lehiaketa.** EMYAN Europako artista gazteen sareak antolatuta, 15-30 urte bitartekoentzat. Epea: martxoak 15.

### BEKAK

**La Caixa bekak.** Obra Social La Caixak 225 beka deitu ditu, Espainian (100), Europan (65), Ameriketako Estatu Batuetan (45), Kanadan (5) eta Asian (10), graduondoko ikasketak egiteko. Hainbat epemuga dago, martxoaren 20a eta irailaren 5a bitartean.

**Artea.** Bilbaoeszenan 2011. urtean artistak egoitzan bekak. Bilboko Udala. Baldintzak: 18 urtetik gorako artistek euren kabuz edo taldean arte eszeniko garaikidearen sorkuntza edo ikerketako lan prozesuetako proiektuak. Proiektu bakoitzerako diru-kopurua gutxienez 1.500 euro eta gehienez 5.000 euro. Epea: martxoak 20.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

## HILDAKOAK

**Aintzane Alberdi Ezpeleta.** Villamartín de Sotoscuevan (Burgos), hilaren 2an. 51 urte.
**Francisca Ignacia Ormazabal Beristain.** Oñatin, otsailaren 3an. 92 urte.
**Jose Luis Azkarate Isasi.** Elgetan. 62 urte.
**Jose Encalado Bartulo.** Arrasaten, otsailaren 5ean. 80 urte.
**Monika Garay Lazpiur.** Elgetan, otsailaren 5ean. 88 urte.
**Narciso Quiros Prieto.** Arrasaten, otsailaren 5ean, 73 urte.
**Alberto Fernandez-Matamoros Vicente.** Arrasaten, otsailaren 6an. 75 urte.
**Jabier Larrañaga Odriozola.** Bergaran, otsailaren 6an. 76 urte.
**Carmen Carbonell Gil.** Arrasaten, otsailaren 7an. 95 urte.
**Manuel Cordero Fernandez.** Aretxabaletan, otsailaren 8an, 92 urte.
**Alberto Altuna Ondarza.** Oñatin, otsailaren 9an. 94 urte.

ESKER ONA

## Jose Encalado Bartulo



Arrasaten hil zen 2011ko otsailaren 5ean, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Arrasaten, 2011ko otsailaren 11n.**

OROIGARRIA

## Aintzane Alberdi Ezpeleta



2011ko otsailaren 2an hil zen, 51 urte zituela.

*Naturarekin bat izateko urrutira joan zinen*
*handik ez bueltatzeko.*
*Hala ere, garrastazunaren gainetik,*
*oroimen "eztitsuek" gugan iraunduko dute.*

**Zure lagunak.**
**Bergaran, 2011ko otsailaren 11n.**

ESKER ONA

## Jesus Antonio Urmeneta Ganbra



'Xolonpo'

Gasteizen hil zen 2011ko urtarrilaren 25ean, 73 urte zituela.

Azken agurrean,
gure artean izan zaretenoi
mila esker sendikoen izenean.

**Bergaran, 2011ko otsailaren 11n.**

ESKER ONA

## Alejandro Anduaga Letamendi



Guadalupe Kortabarriaren alarguna

Oñatin hil zen 2011ko urtarrilaren 31n.

*Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu*
*bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta*
*elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.*
–
Adierazi, ondra meza bihar zapatua,
19:30ean, Oñatiko Agustinoetan ospatuko dugula.

**Alejandroren sendiak.**
**Oñatin, 2011ko otsailaren 11n.**

OROIGARRIA

## M. Carmen Iglesias Lajas



Miguel Angel Iglesias lankidearen arreba

Donostian hil zen, 62 urte zituela.

*Une zail eta gogor hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.*

Arizmendi

**Arizmendi ikastolako langileak.**
**Leintz bailaran, 2011ko otsailaren 11n.**

URTEURRENA

## Aitor Agirre Inza



2010eko urtarrilaren 31n hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 13an,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.
–
*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,*
*ez zaitugu inoiz galduko,*
*gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.*

**Elizkizunera joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

URTEURRENA

## Ismael Garasa Melero



2001eko otsailaren 10ean hil zen.

*Zure oroimena beti izango da gurekin.*

**Zure koadrilla.**
**Arrasaten, 2011ko otsailaren 11n.**

OROIGARRIA

## Lorentxo Perurena Apezetxea



Marian Perurena lankidearen aita

Leitzan hil zen 2011ko otsailaren 5ean, 93 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.*

Arizmendi

**Arizmendi ikastolako langileak.**
**Leintz bailaran, 2011ko otsailaren 11n.**

URTEURRENA

## Eulogio Aristimuño Kortabarria



Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 13an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina
parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

URTEURRENA

## Angel Izuskiza Zubizarreta



Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 13an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina
parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

URTEURRENA

## Eugenio Garay Lazkano



Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 13an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina
parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

URTEURRENA

## Jesus Guridi Iñurritegi



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, otsailaren 12an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren
parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

**Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99**
**e-posta: *euskalduna@harrespil.net***

**ARRASATE Atzoko eta gaurko emakumeen bizimodua argazkitan**

Ekin Emakumeak elkarteak antolatu du Debagoieneko emakumeen lehengo eta oraingo bizimodua jasotzen duten argazkiz osatutako erakusketa. Ia 200 argazki ikus daitezke erakusketan, 1890. urtetik hona ateratakoak.

Otsailaren 25era arte, Kulturateko klaustroan.



EKIN EMAKUMEAK ELKARTEA



COLOR HUMANO

**BERGARA Color Humanoren kontzertua**

1995ean sortutako Bartzelonako taldeak kontzertua eskainiko du Bergarako Tartufon. Estilo propioa duen taldea da, funk, doinu latindar eta rock ukituekin. 2010ean argitaratu zuten *Madibá* izeneko diskoa aurkeztuko dute Bergaran.

Gaur, egubakoitza, Tartufon, 20:00etan.

# NON-ZER

OTSAILA 11
OTSAILA 17

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## MUSIKA

**ARRASATE Magnificent III**

Pascal Briggs, Sean Wheeler eta Zander Schlossek osatutako hirukoteak bi kontzertu akustiko eskainiko dituzte aste bukaeran Arrasaten. Lehenengoa gaur izango da, gaztetxean. Hirukotearen aurretik Sala, Ibi eta Amaiak osatutako taldea arituko dira, eta The Clashen abestiak akustikoan eskaini. Gaur 22:30ean izango da emanaldia, gaztetxean. Domekan, berriz, Magnificent III hirukotea Gure Leku tabernan arituko da, Sala, Ibi eta Iagok osatutako taldea telonero moduan dituztela. Domekako saioa 19:00etan hasiko da.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, gaztetxean; eta domekan, 19:00etan, Gure Lekun.

**OÑATI CC627 eta Never Surrender**

Oñati Zero Zabor taldeak antolatutako ekintzen barruan egingo dute kontzertua.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

**ELGETA Garden eta Asmo Txarrak**

Kontzertua eskainiko dute bi taldeek Elgetako gaztetxean.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

**BERGARA Angelus Apatrida eta Dark Code**

Metal estiloa jorratzen duten Angelus Apatrida eta Dark Code taldeek emanaldia egingo dute; gitarra zorrotz eta erritmo pisutsuak. Sarrera: aurrez 12 euro; bertan 15.

Bihar, zapatua, Tartufo tabernan, 23:45ean.

**OÑATI Musika Bandaren kontzertua**

Iñaxio Ibarrondok zuzentzen duen Oñatiko Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan Santa Ana antzokian. Pasodoblea, suitea, zarzuela eta *La vida es bella* filmeko soinu-banda entzuteko aukera izango da, besteak beste.

Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 12:45ean.

**ANTZUOLA Txistularien diana**

Domekeroko diana egingo dute herriko txistulariek.

Domekan, 10:00etan.

**ARRASATE El Quinteto de la Muerte**

Jazz, funky, groove, boogaloo, blues eta latindar musika entsalada beroa eta dantzagarria eskaintzen du. Gaztetxean izango dira eguenean, Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan.

Eguena, otsailak 17, gaztetxean, 22:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**OÑATI Arrano Eguna**

Arrano Eguna ospatuko dute, Arrano elkarteko batzordeak antolatuta. 09:30ean etxafuegoa botako dute eta Santa Marina plazatik Arranoaitz mendira joango dira oinez. 11:30ean, mendi gainean omenaldi txiki bat egingo diete lehengo eta oraingo gudariei. Ondoren, bertako txabolan salda eta txorizoa denentzat. 14:30ean baba-jana egingo dute eta 19:30ean giza-katea, plazan hasita.

Etzi, domeka, Arranoaitzen.

## BESTELAKOAK

**ARETXABALETA Txakolin eta ardo dastatzea**

Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko txakolina eta ardoa dastatzeko aukera egongo da, Loramendi elkarteak antolatuta.

Gaur, egubakoitza, Pagaldaixenien, 18:30ean hasita.

**BERGARA Zaporeen eta artisauen feria**

Domekara arte zapore eta artisau feria egongo da San Martin plazan, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara. Iaz etorri zen lehenengoz azoka hori herrira, eta aurten errepikatu egin dute. 22 postu egongo dira ferian: Kantabriakoa, Euskal Herrikoa, Extremadurakoa, Gaztela eta Leongoa, Valentziakoa... Eta askotariko jaki eta artisauekin batera bitxikeriak ere egongo dira: tamaina handiko gozokiak, olio barik erabil daitezkeen zartaginak... Domekan babarrun dastatzea egingo dute, 13:30ean, doan.

Aste bukaera osoan, San Martin plazan.

**OÑATI Oñati Zero Zaborren ekintzak**

Ekintza ezberdinak egingo dituzte San Martinen: diaporama eta bideo emanaldiak, eta kontzertua, CC627 eta Never Surrender taldeekin.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 18:00etan hasita.

**ARETXABALETA Ibilbide historikoa**

Bigarren ibilbide historikoa egingo dute, Loramendi elkarteak antolatuta. 09:00etan irtengo dira plazatik eta herriko hainbat auzotako txokoak, leku-izenak, historiak eta istorioak ezagutuko dituzte.

Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 09:00etan.

**ARETXABALETA Aretxabaleta Zero Zaborren kanpaina**

Sortzen dugun zaborraren gaineko hausnarketa bultzatzeko argibideak emango dituzte Aretxabaleta Zero Zabor taldeko kideek domeka arratsaldean.

Otsailaren 13an, domeka, Herriko Plazan, 18:30ean.

## GAZTETXOAK

**ARRASATE Mahai jolasen maratoia**

Txatxilipurdi elkarteak antolatuta, 12-17 urte bitarteko gazteendako. Mahai-jolas ezberdinetan jolasteko aukera izango da: Blokus, Ubongo, Davinci, Pit, Lobo77, Jungle Speed, Perudo, Bamboleo, Compatibility... eta beste hainbat mahai-jolas izango dira, denak ere oso dibertigarriak.

Bihar, zapatua, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean.

**BERGARA DJ jaialdia DBHko ikasleendako**

DJ Teresarekin izango da gaztetxoendako jaialdia.

Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan, 18:30ean.

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria Musakolan**

Txatxilipurdik antolatuta, San Antolin ikastetxe ondoko eraikin urdinean. 10:30etik 12:30era, 3-12 urte bitarteko umeendako. 12:30etik 13:30era, 1-8 urte bitarteko haurrek heldu baten laguntza beharko dute. Bigarren astebururu honetan, natura izango da gaia eta naturako elementuekin eskulanak eta jolasak egingo dituzte gaztetxoek. "Gerturatzen diren guztiei, naturatik jasotako edozein elementu ekartzeko gon-

## BONOFOTOA



Garmendia Ardoak

ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak.
943 76 98 51

**GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA***

**ZOTZ EGINGO DUGU, GALDERA ZUZEN ERANTZUN DUZUENON ARTEAN:**

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Lerchago kriantza: botila bat.

ERANTZUNA:
IZEN-DEITURAK:
HERRIA: TELEFONOA:

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzatara

**Zein da Bergarako Bidekurutzeta kalearen amaieran dagoen XVII. mendeko etxe horren izena?**

**Argazkia eta galdera:** Miguel Angel Elkoroberezibar

Zorionak aurreko zenbakiko irabazleari:
**Jokin Elkoro (Bergara)**
Erantzun zuzena:
**Santa Agueda bezperan, otsailak 4.**



ZURRUMURRU ANTZERKI TALDEA

**ARETXABALETA Haurrentzako ikuskizuna**
Zurrumurru antzerki taldeak *Zomorroak* izeneko ipuin-kontaketa ikuskizuna egingo du. Zomorro eta animaliak protagonista dituen ipuina abiapuntutzat hartuz, bizikidetzarako ezagutza nabarmenduko dute kontakizunean.
Bihar, zapatua, Arkupeko liburutegian, 11:30ean.

bitea egin nahi diegu; harriak, egurrak, hostoak, pinaburuak, hondartzako area, txirlak, txorien lumak... ondoren, ekintza desberdinak egin ahal izateko. Loreak landatuko dituzte lorontzi luzexka batean edo bitan eta ondorengo asteburuetan zaindu ostean, Musakola auzoko azken asteburuan, otsailaren 26an, ludoteka ibiltarian parte hartu dutenen artean zozketatuko da edo dira", adierazi dute Txatxilipurditik.
Bihar, zapatua, Musakola auzoan, 10:30ean.

## ERAKUSKETAK

**ARETXABALETA 'Hijos de las nubes' erakusketa**
Sahara mendebaleko giza eskubideen egoeraren berri ematen du erakusketak, bertako bizimoduaren beste aurpegi bat erakutsi nahi du. Ordutegia: egubakoitzean, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuan, 11:00-13:00; eta domekan itxita.
Otsailaren 28ra arte, Arkupen.

**BERGARA Juan Aiestaren pintura erakusketa**
Juan Aiesta beasaindarraren *Bide batez* pintura erakusketa Aroztegin. Naturak, materialekin esperimentazioak eta koloreak garrantzi handia dute Aiestaren margolanetan. Erakusketa zabalik egongo da otsailaren 20ra arte.
Otsailaren 20ra bitartean, Aroztegi aretoan.

## HITZALDIAK

**OÑATI Izan Proposamenaren gaineko hitzaldia**
Nola hezi neure burua eta besteak pertsona izaten? Erronka horri erantzun nahi dio hezkuntza-proposamen horrek. Geure burua eta besteak pertsona izaten hezteko baliabide teorikoak eta praktikoak eskaintzea da haren helburua. Jonan Fernandez Baketikeko koordinatzaileak egingo du hitzaldia. Guraso guztiei zuzenduta dago. Informazio gehiago: *www.izanproposamena.org*.
Otsailaren 15ean, martitzena, Txantxiku ikastolako aretoan.

**ESKORIATZA Aizkorri-Aratz parke naturalari buruz**
Hizlaria Iraitz Zubeldia izango da, Aizkorri-Aratz parke naturaleko zuzendaria. Hitzaldian, besteak beste, Aizkorri-Aratz parkea arautuko duen araudiaren berri eman eta parkeko lurrak lurraldea babesteko prozesu bati lotuta egoteak zer dakarren azalduko digu.
Eguenean, hilaren 17an, kultura etxean, 19:00etan.

## LITERATURA

**ARRASATE Literatura solasaldia: 'Nada que temer', Julian Barnes**
Gaztelaniaz. Ordua: 18:30 - 20:30. Informazio gehiago: *www.arrasatekoudalbiblioteka.blogspot.com*
Otsailaren 15ean, martitzena, Kulturaten, 18:30ean.

## DEIA

**ELGETA Korrika Batzordea**
Bigarren batzarra deitu dute Elgetan Korrika17ko antolatzaileek. Herritar guztiei zabaldutako batzarra da.
Otsailaren 15ean, martitzena, kultura etxean, 19:00etan.

**LEINTZ GATZAGA Korrika Batzordea**
Korrika Batzordeak bigarren bilera egingo du.
Otsailaren 14an, astelehena, kultura etxean, 18:30ean.

**ARETXABALETA Ludotekarako lagun baten beharra**
Loramendi elkarteak lagun bat behar du ludotekan egoteko (16:00 -20:00). Curriculumak posta elektroniko bidez bidali: *loramendielkartea@gmail.com*
Gaur, egubakoitza, azken eguna.

## LEHIAKETAK

**BERGARA Koldo Eleizalde lehiaketak**
Genero hauetan hartu ahal izango da parte: ipuin idatzia, bertsoak, komiki-tira, ipuin-kontaketa edo antzerkia, txiste eta umorezko pasadizoak, eta eskola-irratia. Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea maiatzaren 6an bukatuko da eta sariak ekainaren 18an banatuko dira. Oinarriak Bergarako udaletxean eskura ditzakezue.
Maiatzaren 6a, lanak aurkezteko azken eguna.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Burlesque**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.

**Megamind**
Domeka: 17:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Fantástico sr. Fox**
Domeka:17:00.

**Pagafantas**
Domeka: 19:30.

**GAZTETXEA**

**American hardcore**
Domeka: 18:00.

### OÑATI

**KULTUR ETXEA**

**The tourist**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Zigortzaileak (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Oceanos**
Eguena: 20:00.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**La leyenda de los guardianes**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Los próximos tres días**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Soul kitchen**
Eguena: 19:30.

### ARAMAIO

**KULTUR ETXEA**

**Fievel eta mundu berria**
Domeka: 17:00.

### ELGETA

**ESPALOIA**

**Los dos lados de la cama**
Eguaztena: 21:30.

### EIBAR

**COLISEO ANTZOKIA**

**Enredados (3D emanaldiak)**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**El santuario (3D emanaldiak)**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.

**COLISEO 1**

**Amor y otras drogas**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 2**

**También la lluvia**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**FLORIDA GURIDI**

**Winter's bone**
17:30, 20:00, 22:30.

**Enredados**
17:30.

**El demonio bajo la piel**
20:00, 22:30.

**Territorio prohibido (euskaraz)**
17:30, 22:30.

**Camino a la libertad**
20:00.

**El discurso del rey**
17:30, 20:00, 22:30.

**También la lluvia**
18:00, 20:15, 22:30.

**De dioses y hombres**
18:00, 20:15, 22:30.

**The fighter**
18:00, 20:15, 22:30.

Otsailaren 11tik 17ra.

**GURIDI**

**Enredados (3D emanaldiak)**
16:30, 18:30.

**El santuario (3D emanaldiak)**
20:30, 22:30.

**Más allá de la vida**
17:30, 20:00, 22:30.

**RED**
17:30.

**La trampa del mal**
20:00, 22:30.

**Territorio prohibido**
17:30, 20:00, 22:30.

**127 horas**
18:00, 20:15, 22:30.

**Primos**
18:00, 20:15, 22:30.

**Valor de ley**
18:00, 20:15, 22:30.

Otsailaren 11tik 17ra.

**YELMO GORBEIA**

**El santuario (3D emanaldiak)**
16:00 (zapatua eta domeka), 18:05, 20:10, 22:15, 0:20.

**Saw VII**
18:00, 20:00, 22:00.

**Valor de ley**
16:10 (zapatua eta domeka),18:20, 20:30, 22:40, 0:50.

**Sed de venganza**
16:15 (zapatua eta domeka), 18:15, 20:15, 22:15, 0:15.

**Ópera MET - Nixon en China**
19:00.

**Enredados**
15:30 (zapatua eta domeka), 17:30, 19:30, 21:30, 23:30.

**Enredados (3D emanaldiak)**
16:30 (zapatua eta domeka), 18:30, 20:30, 22:30, 0:30.

**127 horas**
18:10, 20:05, 22:00, 0:00.

**Primos**
18:20, 20:20, 22:20, 0:20.

**La trampa del mal**
18:45, 20:40, 22:35, 0:30.

**RED**
17:45, 20:00, 22:15, 0:30.

**Más allá de la vida**
17:25, 19:50, 22:20, 0:45.

**¿Cómo sabes si...?**
22:30, 0:45.

**Balada triste de trompeta**
15:40 (zapatu eta domeka), 17:40, 19:40.

**Camino a la libertad**
20:00.

**También la lluvia**
15:45 (zapatua eta domeka), 17:45, 19:45, 21:45.

**Los próximos 3 días**
19:50, 22:10.

**Biutiful**
21:40.

**Carne de neón**
15:50 (zapatua eta domeka), 17:50.

**Sammy (3D emanaldiak)**
18:00.

**Tron legacy (3D emanaldiak)**
16:00 (zapatua eta domeka).

**Como la vida misma**
16:40 (zapatua eta domeka).

**Gulliver (3D emanaldiak)**
16:00 (zapatua eta domeka).

**The green hornet (3D emanaldiak)**
15:30 (zapatua eta domeka).

**3 metros sobre el cielo**
15:50.

Otsailaren 11tik 17ra. Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzean eta zapatuan.

**ABACO BOULEVARD**

**Primos**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 0:30.

**Santuario**
16:00, 18:10, 20:20, 22;35, 0:45.

**Carne de neón**
16:00, 18:10.

**Amor y otras drogas**
20:15, 22:35.

**Enredados**
16:20, 18:25, 20:30, 22:40, 0:45.

**La trampa del mal**
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 0:50.

**Más allá de la vida**
17:00, 19:30, 22:00.

**Valor de ley (True grit)**
16:05, 18:15, 20:30, 22:45, 0:50.

**Enredados**
15:55, 18:00, 20:10.

**The tourist**
22:30.

**Sed de venganza**
16:20, 18:20, 20:25, 22:30, 0:30.

**RED**
15:50, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

**127 horas**
16:10, 18:15, 20:15, 22:20, 0:30.

**Los viajes de Gulliver**
17:00.

**Camino a la libertad**
19:20, 22:00.

Otsailaren 11tik 15era. Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzean eta zapatuan.

## KRITIKA

**LA DANZA** ★★★★☆

**Zuzendaria:** Frederick Wiseman.
**Herrialdea:** Frantzia eta AEB.
**Urtea:** 2009.
**Aktoreak:** Stéphane Phavorin, Emmanuel Thibault, Nolwenn Daniel, Ève Grinsztajn.
**Iraupena:** 159 minutu.



# Prozesu artistikoaren azalpena

Proposamen bitxia eta oso gomendagarria da *La danza*. Aurrez ezaugarri batzuk azaltzea komeni da ikusleak gutxi gorabehera zer ikusiko duen jakin dezan. Ez da fikziozko lana, dokumentala baizik; jatorrizko hizkuntzan gaztelaniazko azpitituluekin estreinatu da. Iraupena bi ordu eta erdi pasatxokoa da, eta *L'opera de Parise*-ko balletari buruzko dokumentala da. Ezaugarri horiek garbi uzten dute ez dela lan komertziala, baina zinemagatik jakingura sentitzen duenak eta gauza desberdina dastatu nahi duenak sorkuntza artistikoari buruz hitz egiten duen film ederra ikusteko aukera izango du. Wisemanek apaindura gutxiko estiloa erabiltzen du Parisko operako balletera hurbiltzeko. Kamera bat erabiltzen du dena filmatzeko, eta dantzarien edo pertsonaien mugimendua jasotzen du kameraren mugimenduaz. Ez du irudi artistikorik sortu nahi. Dantzaren bidez sortzen den artea islatu nahi du, bere purutasunean. Bera, ematen den prozesu sortzailearen lekuko da, eta irudien, soinuen eta pertsonaiek esaten eta egiten dutenaren bitartez, erakunde frantziar horren antolaketa eta osagaiak erakusten dizkigu. Eraikina nolakoa den ikusiko dugu: korridoreak, eskailerak, bulegoak, entsegu gelak, eta operako dantza gela. Konpainiaren antolakuntza administratiboa ere agertzen da: diru kontuak, urte askotarako egiten diren programazioak... Garrantzi handia ematen zaio irakaskuntza eta obra prozesuari: sortzen diren mugimenduei, musikarekin nola bateratzen diren ondoren koreografiaren laguntzarekin zentzu dramatikoa lortzeko... Ispiluen gelak, eszena tokiko entseguak, egindako lanaren eta esfortzuaren emaitza dira. Dena heltzen zaigu. Zuzendariak apaltasunez eta maisutasunez islatzen digu prozesu artistikoaren bidea eta magia zein den.

ANTONIO ZABALA

ana zubillaga ©




goiena

2011-02-11

**HARPIDETZA:** ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

# Lankide izateaz gain, 'autokide' ere bai

▶ Egunero Donostia eta Arrasate arteko bidea egiteko autoa erosi zuten orain dela sei urte

▶ Pozik daude hartutako erabakiarekin, baina elkarren artean ondo konpontzea ezinbestekoa dela diote

**ARRITXU BARRUSO** | ARRASATE

Mamel, Guillermo, Jon eta Jorge Donostian bizi dira eta Arrasateko Ikerlan enpresan egiten dute lan. Etxetik lanera, eta lanetik etxera, egunero 140 kilometro inguru egiten dituzte elkarrekin. Lankideak izateaz gain, azken sei urteetan *autokideak* ere badira; Donostia eta Arrasate bitarteko bidea egiteko lauren artean autoa erostea erabaki zuten. "Auto baten iragarki batekin piztu zitzaigun bonbilla. Kasu hartan *leasing* modura eskaintzen zuten. Kontu pila bat atera genituen eta azkenean erabaki genuen auto bat erostea. Gure kalkuluen arabera, autoa bost urterako izango zen; 40.000 kilometro kalkulatu genituen bost urte horietan egiteko eta halaxe izan zen. Duela urtebete aurreko autoa saldu genuen eta orain Honda Civic bat daukagu beste bost urterako", kontatu digu Guillermo Irazokik.


Mamel Ezkerra, Guillermo Irazoki, Jon Urkola eta Jorge Elizalde. | A.B.

## Ordutegia duen autoa

Donostian bata bestearengandik nahiko gertu bizi dira eta lau lagunak batu ostean 06:30 inguruan irteten da autoa hiriburutik; itzulerako ordua, berriz, 17:15ean da. Esan daiteke beraz, autobusen modura auto konpartituak ere ordutegia duela: "Bai, ordutegia ipini beharra zegoen. Tira, hamabost minutuko malgutasuna badaukagu, e? [Barre]. Baina 17:15ean lanetik irten ezin garen egunetan gure autoarekin etortzen gara".

## Harreman ona ezinbestekoa

Laurak ere pozik daude duela sei urte hartutako erabakiarekin, baina kontatu digute horrelako gauza bat egiteko ezinbestekoa dela harreman ona eta konplizitatea izatea elkarren artean: "Oso garrantzitsua da elkarren artean ondo ulertzea, eta gure kasuan halaxe izan da hasieratik. Azken finean, gauza asko dira. Kontu korronte bat ireki dugu lauron artean, hortik ordaintzen dira autoaren kreditua, segurua, gasolina eta gastu guztiak. Autoa ere ezin da lauren izenean ipini eta erabaki behar da zeinen izenean jarri; seguruarekin gauza bera. Esan bezala, detaile asko dira, baina, gure kasuan, oso ondo konpondu gara".

Detaile asko dira, baina Donostiako laukoteak dena oso ondo antolatuta dauka. Esaterako, lan kontuengatik Arrasatetik kanpora joan behar badute, autoa eramaten dute eta Ikerlanek kilometrajea elkarrekin daukaten kontu korrontean ordaintzen die. Hori bai, Arrasatetik kanpora badoaz, 17:15erako bueltan izan beharko dute, autoaren ordutegia errespetatzeko.

## Eta aste bukaeran zer?

Hori da jendeak egiten dien galdera. Bada, autoak aste bukaeretan ez dauka jaberik. Egubakoitz arratsaldean Donostian aparkatzen dute eta astelehen goizera arte bertan egoten da, geldi. Jabeen moduan, autoak asteburuetan ere atsedenaldia hartzen du.

AZKEN HITZA

IDOIA ETXEBERRIA



# Plastikozko bizitza

Plastikozko diruarekin ordaintzen dugu. Plastikozko makinan ateratzen dugu dirua. Plastikozkoak dira gure kotxeak. Plastikozkoak eskuko telefonoak. Aurrerapenaren izena plastikoa da. Plastikozko eserlekuak, mahaiak. Edalontziak, oinetakoak. Eta hemen nabil, plastikozko ordenagailuan. Plastikozko berogailuaren ondoan. Plastikozko teklak sakatzen. Plastikozko lanpara buru gainean. Horregatik poztu nau plastikozko leihora hurbildu den txoriak.

Eta plastikozko nahi gaituzte gu ere. Dendetako manikiak bezalakoak. Robotak bezain esaneko. Denak ohitura berekin. Kontsumoaren morroi. Behar ez dugun arropa erosten. Plastikozko janaria jaten. Bi urtetik behin eskuko telefonoa aldatzen, konpaiñiak *oparitu* egin digulako. Modernoak izateko. Ipod, ipad, ipud. *Ni ez naiz inozoa!*, dio iragarkiak. Erosi eta bota. Berria erosteko.

Lehen gauzek askoz gehiago irauten zuten. Orain iraungitze datarekin egiten dituzte. Jogurtak bezalakoak dira kotxeak, telefonoak, jostailuak. Inpresorak, galtzerdiak. Dena programatuta dago. Guk botatakoak erre egingo dituzte. Afrikara eta Asiara bidali, toneladaka. *Oparia* hori ere.

Eguraldi ona egiten du, eta banoa. Plastikozko eguzkitako betaurrekoak jantzita.

